



ttipi-ttapa



HERRIETAKO BESTAK / 29



«BURU OSASUNeko ARAZOAK BETI BERTZEek IZANEN DITUZTELA PENTSATZEN DUGU, BAINA EDOZEINEK IZATEN AHAL DITUGU»

Uxua Lazkanotegi Matxiarena beratarra buru osasunaz aritu da TTIPI-TTAPAREKIN. Gaia normaltasunez hartzeko beharraz aritu da. / 10

61. Baztandarren Biltzarra prest

Hamabertz herriak elkartuko dituen besta handia uztailaren 21ean egingen dute Elizondon. / 46

SINADURAK



ZOKKETA / 68



Dolu perinatala hizpide Irati Irigoras eta Imanol Etxeberriarekin / 7

Haur-ehibidunen hizkuntza nahastei buruzko ikastaroa Lesakan / 14

Leitzako Atekabeltzen urteurren festa uztailaren 20an / 26

Nafarroako Herri Kirol Federazioaren egoitza Sunbillatik Doneztebera / 45

SPUC errugbi taldea Frantziako txapeldun laugarren aldiz / 56

Drone zerbitzuak



Kalitatezko irudiak behar duzunerako



Dronearekin sortutako edukiak

Publizitatea Argazki eta bideoak



Turismoa, Empresak, Eraikuntza lanak eta proiektuak...



Bideo edizioak eta muntaiak



NIRE TXANDA

IZASKUN IGOA JAIMERENA

Zuei

Uztaila. Ez dakit negua arras negu izan den, udak berotuko gaituen eta udaberriak eta udazkenak non gelditu zaizkigun. Zuei esker, hala ere, hasi naiz behatzen ikasten.

Haurrak. Zehazki zuek. Egunero-egunero zuekin elkar bizitzeak ikaskuntzaz bete dit urtea. Egunero erakutsi didazue biharrari baino gehiago orainari ematen atentzioa, egunero bistaratu didazue mundura ez garela inor inoren espektatibak betetzera etorri. Egunero, intentzioak arras inportanteak direla baina egiten dudanak uzten duela arrastoa azkenean. Egunero, ez dagoela denentzat egokia den formarik. Ez dagoela aita-alaba, ama-ama, lagun-lagun eredurik. Edo, egon badirela ereduak, baina inor ez garela erduetan kabitzen. Zuk eta nik ziurtatu behar dugula zuk eta nik hemen egon nahi dugun.

Zuen ahots, poema, irri, haserre, josteta, begirada, gardentasun eta intuizioek bete dizkirate egunak. Esker mila zuei: animaliak bezala ibiltzeagatik ondoan, gainean. Jendearen hurbiltasun beharra sumatu, usaintzeagatik.

«EGUNERO ERAKUTSI DIDAZUE ORAINARI EMATEN ATENTZIOA»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Euskaltzainen merienda

Hizkuntza guztiek bezala, euskarak ere bere arauak behar ditu, noski, eta lan eskerga hori eskertzeko Euskaltzaindiaren azken bilerara hurbildu nintzen: (Tok-tok!) *Bolondres nator berendua sukaldatzera. Ate barrenetik erantzuna: Boluntario nator merienda kozinatzerara behar luke... Portzierto, euskaraz kax-kax jotzen da atea!* Meriendatu gabe gelditu ziren.

NABARMENTZEKOAK



MARTXEL LARRAZA
INDABURU
BERRIA SARIA



UXURI PORTU
CRESCO
ESPAINIAKO TXAPELDUN

Berria egunkariak, EHUrekin batera antolatutako Komunikazioko gradu amaierako lanen III. Berria sariketa irabazi du etxalartarrak, *Xerka* fotokazetaritza lanari esker.

Espainiako trial kopa irabazi ondotik, Espainiako txapelketa ere irabazi du ekainaren 30ean Cartagenan txirringuluri lesakarrak, 9-12 urteko nesken kategorian. Denboraldi bikaina!

GIBELERA BEGIRA



2014-07-10 · TTIPI-TTAPA · 618 zk.

Hasier Larretxearekin 'Larremotzetik'

Duela hamar urte argitaratu zuen Hasier Larretxea Gortari idazle arraioztarrak *Larremotzetik* liburua. Gauza intimoak kontatzera ausartu zen idazle baztandarra: «Album familiar baten gisa ere egin dut, ausentziak eta presentziak ageri dira, eta galdemodu aunitz ere bai, zenbait gertakari latzen inguruko kuestionamendu bat ere badago. Nirengandik espero zenaz ere ari naiz. Ttikikatik aizkora eta harria goititzen nituen aitaren irakaspeneren ondorioz. Ez naiz aizkolari edo harri-jasotzaile fina izan, eta alde horretatik liburua nire aita eta irakatsitakoa omentze modua ere bada, baina ez aizkoraren bitartez, literaturaren bitartez baizik». Liburuak iraganarekin eta «hein batean Baztanekin baketzeko» balio izan ziola kontatu zuen.



erran.
eus



Argitaratzailea

Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odrizola
Arantza Agirre
Berriemakileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Aitzuri,
Arantxa Etxeberria, Iraia Jaurena,
Iruñe Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mixelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantxa
Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione
Aritzegi, Jaione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberrigarai, Maialen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea

Paskual Rekalde
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko
udalak, Malerrekako Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2024ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerrekako	47€
Leitza	40€
Hego Euskal Herria	50€
Ipar Euskal Herria, Europa	110€
Amerika eta Australia	155€





KOLABORAZIOAK

MALEN ALTZUART ARANBURU

Konplizeekin kantuz

Edertasuna bizipenik ttipienetan dagoela errepikatzeak ahalketzen nau, baina topiko ooren gainerik, azken aldian horixe berretsi didate bizipenek. Uste dut ondokoaren eskutik indartuta sentitzeak dakarren emozioa parekaezina dela.

Bat-batean hor gaude zazpi-zortzi pertsona: batzuk beren gitarrak estu atxikita, bertzea kaxarekin arras barreneko duen erritmoa ezin hobeki segiz, eta gainontzekook ahotsa dugu instrumentu. Kantuan hasi gara. Kantu berri eta zahar. Baina zahar batez ere. Bat akitu orduko bertzea hasten dugu, eta baten bat ezagutzen ez dugularik burkideari ezpainak leitzen dizkiogu. «Ene txoririk maiteena, zertaz jin hiz nigana? Iratzarrazi nialarik ametsik eijerrena», erranen dugu, ahoa inoiz baino gehiago irekiz, ondokoak entenditu ahal izateko maneran. Eta abesti baten eta bertzearen artean bada halako isilune lotsati bezain konplize bat: «Eta orain zein? Ez zaidanan boteprotoan deus gehiago okurrizten, baina ez dinat isildu nahi, eta bazekinat hik ere ezetz». Eta apal-apal galdeginen du norbaitek: «Baratze bat?». Eta orduan bai, denak batean: zintzurra urratzea ez da mingarri eta nolabaiteko indar batek elkartzen gaitu, eta doinuaz

«DENA NEURRIRA EGITEKO ANBIZIOA EZ DA MUSIKAK INPOSATUA»

apaindutako hitzetan doanez barrenean gordetzen duguna, ondokoa ikusten ahal dugu inoiz baino garbiago, deus kontatzen ahal duen arren. Eta ezkerrekoak inguratzen gaitu soinburutik

eta guk aldaka heltzen diogu.

Horrelako jendeak erakusten dizu musikaz jakitea musika sentitzen jakitea dela, funtsean. Horretarako dela sortua eta horretarako sortu behar dela; dena beti neurrira egiteko anbizio hori ez dela musikak inposatua, perfekzio behartu baten zantzua bertzerik ez dela. Eta *sol* beharrean *sik* eskapu egiten dizunean edo letra atzentzen zaizunean eginen dizute irri ttipia erranez: «Eta zer? Ari zara, eta nola ari!».

Ahizpek erakusten digute geure ahotsak ere aditu behar direla. Erakusten digute zangoak lurrian ongi errotuak izanda ere hegan egiten ahal dela, eta uste dut hori dela ahalduntzea. Kantatzen ez duenak zorionik ez duela ongi ikasia naiz, eta kantuak sortzen duena zer den ez daki hain inguru goxoan aritzeko aukerarik izan ez duenak.

Musikak eta ahizpatasunak badute halako analogia bat orain niretako. Esker mila konplizeei eperrei hegalak dituztela oroitarazten laguntzeagatik hitz urratu bakoitzean.



ANE INTXAUSTI LASARTE

Lagun ikusezina

Gaur ere ez du ia lorik egin. Egunak, asteak, hilabeteak daramatza begirik bildu gabe. Gauak pasatzen ditu ohean bueltaka, lo hartu ezinik. Gauak buruari bueltaka, itzali ezinik. Horrela igarotzen dira orduak, alarma hotsa entzuten duen arte. Beste egun bat.

Gaur ere nekatuta dago. Energia izpirik gabe. Baina lortuko du beste behin eguna bukatzerako bere eginbehar denak betetzea. Modu automatikoan, pentsatu gabe. Pentsatzekotan, ohetik jaikitze hutsa ere bi aldiz pentsatu beharko lukeelako. Eta hala ere, gogoz kontra jaiki.

Kalte egiten dio jaten duen guztiak. Kalte egiten dio hanburgesak eta kalte egiten dio frutak. Pizzak eta porru patatak. Kafeak eta zukuak. Badirudi zerbait esan nahi diola sabeleko burrunbak, baina ez du ulertzen zer. Egun osoan zehar entzuten duen arren.

Kezkatuta dago, erabat. Gertatu diren gauzengatik, gertatzen ari diren gauzengatik, gertatuko diren gauzengatik. Gertatu ez diren gauzengatik, gertatzen ari ez diren gauzengatik, gertatuko ez diren gauzengatik. Gerta zitezkeen gauzengatik, gerta daitezkeen gauzengatik, gerta litezkeen gauzengatik. Kezkatuta, beti. Nahiz gehienetan ez duen jakiten zerk sortzen dion kezka. Ezinegona.

«ARRASTAKA BADA ERE FUNTZIONATZEA BAITA BERE HELBURU NAGUSIA»

Estuasuna.

Estutzen zaio lehenik sabela, bularra ondoren, eta azkenik arnasa. Mina sabelean. Mina bularrean. Buruan. Giharretan. Kosta egiten zaio arnasa hartzea. Itolarria. Zorabioa.

Botagura. Angustia. Larrialdietarako pilula. Berrabiarazten...

Egunero egiten zuen negar lehen. Azaleko arrazoi batengatik, batzuetan. Arrazoi sakonago batengatik, besteetan. Arrazoi desberdinengatik, beste batzuetan. Eta arrazoi kontzienterik gabe, noiznahi. Negarrik ez egiteko pilulak hartzen ditu orain, sentitzeari uzteko pilulak. Goizean goiz, jaiki orduko. Gosariarekin batera.

Nahiz lehen egunetan pilula hartu behar izateak sortzen zion negarra, orain pilula bera da negarra eragozten diona. Baita egiteko beharra sentitzen duenean ere. Emozio guztiak lokartzen baitizkio. Heldu funtzional bat izaten jarraitzeko ez da beste biderik eta momentuan.

Funtzionatzea baita bere helburu nagusia, nola edo hala. Eguna bukatzerako bere betebehar eta eginbehar guztiak betetzea. Arrastaka bada ere. Ezin dio bizitzaren arrapaladari ihes egiten utzi. Ezin beste baterako utzi.

Orain ez bada ez delako izanen. Baina denbora badoa, eta ez da iristen. Eta estutzen zaio sabela, bularra, arnasa. Mina sabelean. Mina bularrean. Buruan. Giharretan. Itolarria.

Gaixo dago, baina ez da ikusten. Antsietatea da bere lagun ikusezina. Antsietatea da nire lagun ikusezina.

11 GALDERA LABUR

SUHAR IRISARRI ELGORRIAGAKO GAZTEA

«Bestetara jende gehiago etortzea nahiko nuke»

Uztailaren 24an hasi eta 27ra arte ospatuko dituzte Santiago bestak Elgorriagan. Bestetako antolazaleetako bat da Suhar Irisarri gaztea eta antolakuntzari eta beste buruzko kontuak kontatu ditu.

Aurkeztu zure burua. Nor da Suhar?

Nire izena Suhar Irisarri da eta 17 urte ditut. Elgorriagako naiz eta Elgorriagako bestetako antolazaleetako bat ere banaiz.

Zein dira zure zaletasunak?

Nire zaletasunik haundienak motoa eta futbola dira.

Heldu den egunetan ospatuko dituzue herriko bestak. Nola antolatzen dituzue eta zenbat lagun aritzen zarete horretan?

Bestak udalaren, Elgorriagako gazteen eta herriko jendearen

artean antolatzen dira. Gu 30 gazte inguru gara bestetan eta antolaketa parte hartzen dugunak.

Zer izaten da bestak prestatzeko orduan lan gehien ematen dizue-na?

Dena behar bezala prestatzeko ematen digu lan gehien, bestak hasi aitzinetik gauza denak ongi prestatu behar direlako.

Zenbat urte daramatzazu herriko bestak antolatzeko lanean?

Nire hirugarren urtea da aurtengoa bestak antolatzen ari naizela.

Zure ustez zerk egiten ditu berezi Elgorriagako bestak?

Herriko jendearen artean sortzen den giroagatik dira bereziak Elgorriagako bestak.

Zein da bestetan zure ekitaldirik gustukoena?



Egun hobereena gazteen kontzertuak izaten dira. Bestetako egun batean gazteek antolatutako kontzertuak egoten dira eta egun horretan izaten da normalean bestarik haundiena.

Eta zer dute faltan bestek?

Falta duten gauza bakarra da bestetara jende gehiago animatzea. Denak ongi etorriak izanen dira, eta giro hagitz polita egoten da.

Elgorriagako bestez aparte, zein herriko bestak dira gehien

gustatzen zaizkizunak? Zergatik?

Gehien gustatzen zaizkidan bestak Doneztebekoak dira, Elgorriaga ondoan daudelako eta gehienetan Donezteben ibiltzen naizelako.

Zein dira zure asmoak epe motzera?

Herriko bestetan zein Doneztebekoetan ongi pasatzea.

Eta epe luzera?

Elgorriagako bestak gehiago haunditzea eta jende gehiago etortzea.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak

Mantelak

Kuxinak

Edredoi nordikoak

Ohe estalkiak

Maindireak

Toallak

Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Euskal kulturgintzan marko ideologikorik ba ote?

XUBAN ZALDAIN

Joan den egunean, kasualitatez, ezagutzen ez nuen Jon Sarasua euskaltzain eta bertsolari ohiarekin topatu nintzen eta berak plazara ateratako gaiak idatzi txiki hau eskribitzera animatu nau. Laburbilduz, orain dela hilabete batzuk emandako hitzaldi batean, Sarasuak bertsolari txapelketetako marko ideologiko estu eta pobrea seinalatu zuen, txapelketa horietan gai jakin batzuetan erran daitekeenaren eta erran ezin denaren banda zabalera bat dagoela adieraziz. Banda zabalera horren barnean mikroideiak ere badaudela komentatu zuen bai, baina beti ere marko ideologiko «progresista» eta hegemoniko horren barnean. Hortik ateratzea jada eremu arriskutsua da eta «faxista», «fatxa», «arrazista», «misoginoa», «transfoboa» edo «islamo-foboa» bezalako izengoiti maitekorrak aditu behar izateko arriskua duzu. Azken finean, beti da errazagoa *ad hominem* gezurrak botatzea, planteatzen diren argudio edo zalantzei aurre egitea baino.

Idahoko euskal amerikar baten ikuspuntuaren adibidea jarriz, berak horrela galdetuko lukeela planteatu zuen «Desberdin pentsatzen baduzue, zergatik kantatzen duzue denek gauza bera? Zergatik inork ez du Trumpen alde kantatzen? Hemen gizartearen erdia gaude Trumpen alde. Zergatik inork ez ditu israeldarren arrazoiak aipatzen? Zergatik inork ez du zalantzarik abortuaren gaiaren inguruan?». Eta ez pentsa Idahoko herritar horrek ideia «progresista» horiek aitzinetik adituak ez zituenik ez, hain zuzen ere orain hemen modan ditugun gaiak eta horien inguruan izan beharreko iritziak, Kaliforniako ezkerak eta bertako elite kapitalistak orain dela hainbat urte lehenago jarriak baititu bertan dantzan.

Azken batean, aipatutakoa ez da bertsolarietara mugatzen den zerbait,

ezta gutiago ere. Berak erran moduan, euskal kulturgintzara eta euskal iritzi publikatura hedatzen den arazoa da eta are gehiago, Mendebalde osoan zabaldua dagoen dinamika da. Baina Euskal Herrian eta euskal kulturaren barnean bereziki nabarmena dela iruditzen zait. Hala, Jon Sarasuak bere klaseetan bultzatu ohi duen moduan, zalantza egiteaz eta gure kabuz pentsatzeko tresnak hartzeaz ari gara, laster edo beranduago hemen ere Mendebalde osoan gauzatzen ari den eskuin erradikalak zuzendutako erantzuna ikusi nahi ez badugu. Nahiz eta, horretarako, Pirinioetako muga pasatzea aski dugun jada.

Salbuespen neurrik ez!

MIKEL SANSEBASTIAN GAZTELUMENDI

ETA ZABALLAKO, IRUÑEKO ETA BASAURIKO KARTZELETAN DAUDEN BERTZE 13 PRESO POLITIKO

Eusko Jaurlaritzaren menpean dauden kartzeletan euskal preso politikook gure senide eta lagunetikiko komunikazioari dagokion arloan asko galdu dugu. Hila-beteroko aurrez aurrekoen kopurua txikiagoa eta iraupenez laburragoak dira. Beraz, hurbilago badauzkagu ere, denbora gutxiago ematen dugu gertukoekin.

Bistakoa da preso ororentzat bere ingurukoekin harremana mantentzea eta gozatzea garrantzitsua dela, oinarritzko eskubidea delako. Are gehiago preso politikoon kasuan, Herriarekiko daukagun konpromisoari bizirik eusteko ezinbestekoa baita lotura hori.

Etxekoek eta lagunak ez digute sekula huts egin, hamarkadetan indarrean egondako sakabanaketari aurre eginez. Sakabanaketaren helburuak ez zituzten bete, Herriarekiko lotura ez da inoiz eten, elkartasuna eta kemena astebururo heldu zitzaigun, gaur egun bezala. Baina, egun, EAEko kartzeletan gauzkatelarik, beste tresna bat sortu dute lotura apurtu nahian: Salbuespen neurria.

Dozenaka dira gurekin komunikatzeko debekua ezarri dieten lagunak. Besteak

BOTA BERTSOA



Iñaki gure lagunari

Doinua: Gogoan daukat ez du aspaldi

*Zure ordua iritsi zela
onartzea bizilege
izan zinenaz gogoratzeak
egiten digu mesede
Gure hizkuntza eskualdetik
biziberritza xede
militante fin, batzordekide,
eta aholkulari trebe
Gure argia izaten zinen
une txarrenetan ere (bis)*

*Euskara bazen betitik zure
konpromisoaren zati
Zenbat bilera, zenbat momentu
eta zenbat erabaki
zurekin erraz solas zitekeen
patxadatsua izaki,
erran daitezkeen denak erranda
inoiz ez da izanen aski
eman diguzun guziagatik
eskerrik asko, Iñaki! (bis)*

beste, judizialki helegiteak bideratuta, ondorio honetara heldu gara: Eusko Jaurlaritzak eraturako zerrenda beltz batez baliatuz lagun ugariri debekatzen diote kartzelara sartzea.

Salbuespen neurri hau sektore iraultzaileetako izatea leporatuz eta haien zat deseroso diren edo haiek etsaitzat hartzen dituzten lagunei ezarri diote. Argi ikus daiteke, adibidez, Auzitegi Nazionaletik gure helegiteei emandako erantzunetan konpromiso militantea edukitzeak apartheida dakarrela.

Egoera latz hau jakinarazi nahi diogu Herriari, salbuespen neurri hau salatuz eta ozen esanez sakabanaketarekin lortu ez zutena ez dutela honekin ere lortuko. Herriaren maitasunak eta indarrak gure bizigai izaten jarraituko dute.

Artikulu osoa: erran.eus/iritzia



Irati Irigoras Larrazabal eta Imanol Etxeberria Antxorena Aietz ttikia besoetan dutela. TTIPI-TTAPA

«Dolua lantzen ez baduzu bizi osoan arrastaka eramanez duzu»

IRATI IRIGORAS LARRAZABAL ETA IMANOL ETXEBERRIA ANTFORENA DOLU PERINATALAZ

Dolu perinatalari buruz aritu dira Irati Irigoras zegamarra eta Imanol Etxeberria arizkondarra. «Tabuak eta lotsak» alde batera utzita, gaia ikusgarri egitea garrantzitsua dela diote

G. PIKABEA ARIZKUN

Haurdunaldian, erditzean edota jaio eta gutira pasatzen diren heriotzen dolu prozesua da dolu perinatala. Datuek diotenez, lau haurdunalditik bat ez da bukaerara ailegatzen, baina guti solastatzen da gaiaz. Irati Irigoras eta Imanol Etxeberria, ordea, garrantzitsua iruditzen zaie ikusaraztea, «egunerokoa presente» dagoelako. 2021ean galdu zuten lehenbiziko haurra, eta bi urtez, lau galdu dituzte. Pasatu zaien «naturaltasunez» kontatu izan dute «hurbilekoen artean» eta mina desagertu ez bada ere, «dolua arintzen lagundu» diela onartu dute. Orain, berriz, bizitakoa publikoki kontatzea erabaki dute: «Gure egoe-

ra igualean dagoen norbaitek belarri batzuk behar baditu, jakin dezan hemen gaudela». Dolu perinatalaren bueltan dauden beharrez aritu dira, bederatzi hilabete dituen etxe-ko ttikia, Aietz, ondoan dutela. **Aietz sortu aitzinetik, lau haur galdu dituzue bidean...**

Irati: Bai, ez gara ume bakarreko familia, Aietz jaio aurretik galdu ditugun laurak ere kontatzen ditugu. 2021ean galdu genuen lehenengoa. Bageneramatzen sei hilabete haurdun gelditu nahian, eta gelditu ginenean 'listo, hiru izango gara' pentsatu genuen. Sintoma guztiak nituen, dena aurrera zihoan, baina hirugarren hilabeteko ekografia egiteko egu-

naren bezperan, odoletan hasi nintzen. Odol pila bota nuen eta ospitalera joan ginen. Ospitalean ekografia egin zigutenean garbi ikusi zen; poltsa hor zegoen, baina umea ez.

Imanol: Hor ezagutu genuen fetuaren arrautza hutsa zer den. Iratik haurdunaldiko sintomak zituen, baina ez zegoen haurrik.

Irati: Ospitalean hiru ginekologo jator tokatu zitzaizkigun. Dena esplikatzen ziguten eta hiru aukera eman zizkiguten: lehenengoa etxera etorri eta etxean poltsa bakarrik ateratzen utzi; bigarrena medikazio bidez probokatzen hasi eta ospitalean legratua egitea. Medikazioa hartuta bakarrik ateratzen zen

ikustea erabaki genuen. Hiru pastilla eman behar zizkidaten, eta lehenengoarekin kontrakzioekin hasi nintzen. Ez zen ezer atera; bigarrena ere eman zidaten eta txanda aldaketa izan zen. Txanda aldaketan, beste ginekologo bat sartu zen, eta indarkeria obstetrikoa jasan nuen. Nola zegoen ikusteko kontsultara eramán zidan, eta kontsultan ginela, ezer esan gabe, tresnak hartu eta poltsatik tiratzen hasi zen. Izugarriko mina sentitu nuen. Tiraka eta tiraka aritu zen, eta ezer ez, ez zela askatu eta ebakuntza-gelara joan behar nuela esan zidan. Min hura hasieratik saihestu zitekeen, edo gutxienez esplikatzen behar zidan. Momentu hark ondorioa utzi didala konturatu naiz Aietz jaiotakoan. Ez da galera bakarrik, galera hura halakoa izateak blokeoa eragin zidan eta gaur egun psikologo perinatal-sexual batekin nabil.

Imanol: Lehenbiziko haurdunaldian, guraso izatea erabakitzen duen edozeinek bezala, kristoren ilusioa hartu genuen, baina hirugarren hilabetea ailegatutakoan kristoren kolpea izan zen. Gero jakin genuen abortuen % 20 fetuaren arrautza hutsa direla, baina jendeak ez du kontatzen.

Irati: Bigarrenaren eta hirugarrenaren kasuan, odoletan hasi nintzenean, etxean gelditzea erabaki genuen. Eta laugarrena ugalketa lagundu bidezko haurdunaldia izan zen. Jarraipen zorrotza egin ziguten haurdunaldian, eta seigarren astean esan ziguten umea igual ez zela aurrera aterako.

Imanol: Beti «badoa, baina...» erraten ziguten.

Irati: Hirugarren hilabeteko ekografian baieztatu ziguten hilda zegoela, ez zuela bihotz taupadarik eta malformazio batzuk zituela. Ospitalera joan behar izan genuen. Aurretik bizi izan genuen esperientzia gogorraren ondoren, lokartuta legratua egitea nahi nuen. Ospitalera ailegatu ginenean, berriz ere lehenengo haurdunaldiko ginekologoa toka- →

→ tu zitzaigun. Ordurik ez zuela eta biharamunean bueltatzeko esan zigun. Halaxe egin genuen. Pastillak eman, eta bi ordura, umetokilepoazabaldua zenean, ebakuntza gelara eramango zidatela esan zigun. Baina orduak pasatu ziren. 09:00etan sartu ginen ospitalean eta 18:00etan, odoletan hasi nintzenez, beste ginekologo bat etorri zen eta orduan eraman zidaten ebakuntza gelara. Egun bat erditze induzitu baten estiloa, berriz ginekologo hura tokatu zitzaigulako.

Nolakoak izan dira dolu prozesuak?

Irati: Nahiko gogorrak. Dolua nahiko gaizki eraman dugu ez garelako batere babestuak sentitu profesionalen aldetik. Gaur egun inguruan ditugun profesionalekin konparatuta, egin diguten jarraipena eta izan duten enpatia ikusita, ikaragarriko aldea dago. Orduan ere holako profesionalak izan bagenitu, ez genuen hain dolu gogorra pasatu izango.

Beraz, osasun profesionalen aldetik hutsuneak sumatu dituzue...

Irati: Denetarik tokatu zaigu, bi muturrak ezagutu ditugu. Batzuk oso onak izan dira, oso ondo zaindu gaituzte eta haien enpatia eta errespetua asko eskertzen dugu. Baina beste batzuk justu kontrakoak izan dira. Lehenengo aborturen ondoren, urtebete pasata, ez genuen haurdun gelditzea lortzen eta ginekologoarengana joan nintzenez, «gaztea zara eta lasai, ez duzu presarik» esan zidan. Hori 30 urterekin, eta gero, 35 urterekin zaharra zara. Zentro pribatu batera joatea erabaki genuen, lehenengo abortu haren ondoren dena ondo zegoen jakiteko. Bioi egin zizkiguten probak eta intseminazio bidez probatzea aholkatu ziguten. Probak egiten ari ginela pasatu ziren bigarren eta hirugarren abortuak, baina naturalki gelditua nintzen haurdun. Intseminazioarekin ez nintzen haurdun gelditzen eta azkenean, in vitro bidez gelditu nintzen laugarrenaz haurdun. Zentro pribatuan garbi



Ezkerretik hasita, Imanol, Aietz eta Irati. TTIPI-TTAPA

gelditu zen laguntza behar genuela, baina txosten guztiak publikora eramanez gero, hutsetik hastea proposatu ziguten. Bi urte eta erdi «gaztea zara» entzunez, eta laugarrena galdutakoan, proba guztiak eginak izanagatik, hutsetik hasi nahi zuten. Hori ere oso gogorra izan zen, umeak galdu, laguntza behar eta laguntzarik ez zela ailegatzen ikustea. Suerterez, mediku pribatua ordaindu ahal izan dugu, baina hori ez da denen aukera. Publikoaren zain zaudenean adina pasatzen ahal zaizu.

Imanol: Lehenbiziko lau abortuetan Elizondon ginekologo finkorik ez izateak ere ez zuen batere lagundu. Aldiro diferentzia zen, eta beti denei gau-

za bera esplikatu behar. Aietzekin tokatu zitzaigun ginekologoak, berriz, segimendu zorrotza egin zigun. Ohiko hitzorduez aparte, kontsulta gehiago egin zizkigun. Nik, pertsonalki, bihotz taupadana arras gaizki eraman nuen. Dena ongi zihoala ikusten nuen, baina nire galdera beti bihotz taupadak zituen izaten zen. Horri buelta ematea kosta zait.

Biek berdin bizi izan duzue dolua?

Imanol: Elkarrekin egon gara, eta nik uste bikote bezala aunitz indartu garela. Elkar laguntzen eta elkarri babesa ematen aritu gara. Ni gaizki nintzelarik Irati beti ondoan egon da eta bera gaizki zelarik ni hor egon naiz bere ondoan. Hola atera gara aitzinera.

«BADA GARAIA GAUZAK NATURALITASUNEZ BIZITZEKO»

«LAU HAURRAK AGURTZEA ARRAS INPORTANTEA IZAN DA GURETAKO»

Agurra egitea garrantzitsua iruditu zitzaizuen...

Irati: Laugarren umea galdu genuenean, inflexio puntu bat izan genuen. Guretzat oso inportantea zen lau ume horiei merezi zuten despedida ematea. Izena jarri, bakoitzari karta bat idatzi, eta dolua ixteko karta horiekerre eta Imanolen aitaren erratsak dauden lekuan bota genituen. Haiek merezi zuten, eta guk ere behar genuen. Ematen du ez dela ezer gertatzen, umea galdu, medikuarenetik atera, etxera joan, segidan lanera... Laugarrena galdu genuenean, geldialdi bat egin genuen. Biok etxean denbora pasatu behar izan genuen, nik Imanolek baino gehiago, fisikoki ere ez nengoelako oso ondo. Orduan ikusi genuen merezi zuten aitortza eta agurra eman behar genitela. Horrek, aldi berean, Aietzena motxilarik gabe hasten lagundu zigun.

Dolua gainditu duzuela erraten ahal da edo hor segitzen du?

Imanol: Hor segitzen du.

Irati: Bai, hor dago. Aietzen erditzea oso gogorra izan zen, eta horrek ospitalean bizi izandako galeraren zauria ireki zidan. Hala konturatu naiz ez dagoe la oso itxia. Eskertzekoa da emaginak psikologo batengana bidali izana. Biok joaten gara, baina hor ere bada hutsunea.

Imanol: Profesionalen aldetik formazio falta ikaragarria dago.

Irati: Adibidez, azken kontsultan, psikologoak antsiolitikoak hartzeko esan zidan. Dolua ez da antsiolitikoak hartuta pasako. Dolua tratatu behar da, eta barruan korapilatua duguna zer den ikusi eta libratu. Hori da dolu batek eskatzen duena eta osasun sistema publikoan horren falta sumatzen dugu. Pribatura bideratuak garela ikusten ari gara.

Datuek diote lau haurdunalditik bat ez dela bukaerara ailegatzen. Baina gaiaz ez da aunitz solastatzen.

Imanol: Denek barnean eramaten dute norbaitek kontatzen duen arte. Guk, guri pasatutakoa, mantso-mantso eta naturaltasunez kontatzea erabaki

genuen, eta makurtasun horren barnean, kontatzeak aitzinera segitzen lagundu digu. Inguru hurbilean, enpatia ona sentitu dugu, nahiz eta «gazteak zarete, segi larrutan» erran digute-nak ere izan diren.

Irati: Umea galtzen duzunean esaten dizute lau haurdunalditik bat galdu egiten dela, baina ez du inork ezer kontatzen. Eta holako egoera batean zaudenean beste batzuen esperientzia entzuteak lagundu egiten du. Egoera honetatik pasatu den bati kontatzen diodanean, badakit ez nauela epaituko, badakit ez didala «lasai, gaztea zara» edo «hobe hasieran hiltzea, jaiotakoan hiltzea baino» esango. Horregatik erabaki genuen gurea kontatzea, eta gure egoeran dagoen norbaitek belarri batzuk behar baditu, jakin dezala gu hemen gaudela. Guk horren falta sentitu dugu, eta hitz egiten hasitakoan, «niri pasatu zait», «nire arrebari edo ahizpari pasatu zaito»... esaten dizute. Gaia agerian utzi behar da, egunerokoan presente dago. Edozeini pasatzen ahal zaio eta hitz egin behar da. Buru osasunarekin ere lotua dago.

Zuei lagundu dizue solastatzeak...

Imanol: Bai, min hori presente dugu, baina solastatzeak eta partekatzeak korapiloa aritzen laguntzen du. Baztango Udalenaren bitartez egin genuen aitatasunari buruzko ikastaroan, sei aita bakarrik elkartu ginen, baina bakoitzak gure historia kontatu genuen eta solastatzeak denoi pila bat lagundu zigun.

Zergatik uste duzue gaiak tabu izaten segitzen duela?

Irati: Alde batetik, ez delako hitz egiten, eta bestetik, gizartean heriotza ez delako naturaltasunaz bizi. Gauza onak kontatzen ditugu, baina ematen du txarrak kontatzeko ez dugula baimenik. Eta pena da, bizitzako parte delako. Klinika pribatuan urte eta erdiz ibili ginen, ia astero joaten ginen, eta hura beti jendez bete izaten zen eta ez genuen inorekin kointziditu. Horrek esan nahi du umeak galtzen edo haurdun gelditze-



Bederatzi hilabeteko Aietz gurasoekin. UTZITAKO ARGAZKIA

ko arazoak dituzten asko dau dela.

Imanol: Ez dakit hitza zein den, beldurra, lotsa edo zer den, baina jendeak ez du kontatzen. Hoberena gaia naturaltasunez hartzea izan litzateke, baina jendeak nahiago du arazoak norberarendako altxatu eta zoriontasunak elkarbanatu. Guk ez dugu beraien esperientzia txarra kontatu digun inor izan. Mundu honetan dagoen gauzarik errazena haurrak egitea dela aditu dugu. Baina guk lau galdu ditugu, eta gu bezala jende aunitz dago egoera horretan. Bi urtez lau abortu izan ondotik, suertez, Aietz etorri zen, baina bada borts, sei edo hamar urtez edo sekula haurdun gelditzen ez dena.

«IDURI DU GAUZA TXARRAK KONTATZEKO EZ DUGULA BAIMENIK»

Irati: Gaia tabu izatearen hari- ra, jendearen komentarioek ez dutela laguntzen gehituko nuke. «Hobe hasieran hiltzea, jaiotakoan hiltzea baino» bezalako komentarioak entzun baino lehenagotik isildu egiten zara; mina saihestuko duzu.

Zerk laguntzen du momentu horietan?

Irati: Guri momentu hartan besarkada bat emateak edo «zerbait behar baldin baduzu, hemen gaude» esateak lagundu izango liguke edo entzuteak. Besterik ez. Badakit halako komentarioak ez direla maleziarekin egiten, baina min handia ematen dute, eta askotan horregatik erabakitzen duzu isiltzea. **Zer ondorio izaten ahal ditu isiltasunak haurra galdu dutenengan?**

«ZAMA AUNITZ ARINAGOA DA BARNEA HUSTEN DENEAN»

Irati: Dolua ez baduzu pasatzen, trabatua gelditu den zerbait ondo bideratzen ez baduzu, bizitza osoan arrastaka eramango duzu. Bada garaia gauzak naturaltasunaz bizitzeko eta kontatzeko, tabu gabe, lotsa gabe. Bizitza hola da. Gizarteko parte da heriotza, nahiz eta galera haurdunaldiko sei- garren astean izan.

Lege aldetik trabarik sumatu duzue?

Irati: Ez da inon ageri bizirik jaio ez diren ume batzuk eduki ditudala, edo ezin izan ditugu enbrioiak ekarri nahi genuen despedida emateko. Existituko ez balira bezala da eta nik gure umeak direla sentitzen dut. Araudia duela gutxi aldatu dute eta umea haurdunaldiko sei- garren hilabetetik aurrera hiltzen denean, izen-abizenekin erregistratzen ahal duzu, baina bestela ez. Badaude hutsuneak, eta ez dut uste asko kostako litzatekeenik ume baten izena nonbait agertzea. Gure kasuan, lehenengo hiru hilabeteetan galdu ditugunez, argi dago ez direla pertsona kontsideratzen.

Imanol: Eta lege kontuak aipatu ditugula, holako galeren ondotik emakumeei egun batzuetarako ordaindutako baimena eman beharko liokete, nolabait erreperatu ahal izateko. Ez da inorendako goxoa ume bat galdu eta ordu batzuen buruan lanera joan behar izatea. **Zer erranen zeniekete haurra galdu duten familiei?**

Imanol: Barnea libratzeko, korapiloak ez baitira batere onak. Barnea husteko inguru segurua bilatzea ere garrantzitsua da, ez astakeriak botako dituen jendea. Nahiz eta beti barnean zerbait izan, zama aunitz arinagoa izan da. Denborarekin eskertuko dute.

Irati: Doluak badu bere lana, baina merezi du. Eta profesionalak hor daudela ere esango nuke. Konfiantzako profesionalen bat harrapatuz gero, laguntza eskatzeko. Zaila da buru osasuna hamar-hogei minutuko kontsultan ikustea, eta ondo ez bagaude guk ere pausoa eman eta laguntza eskatu behar dugu.

«Gero eta jende gehiagok behar du buru osasuneko laguntza»

UXUA LAZKANOTEGI MATXIARENA BURU OSASUNEAN ADITUA

Buru osasunean aditua da Uxua Lazkanotegi beratarra eta gaia normaltasunez hartzearen garrantziaz aritu da, «edozeinek izaten ahal dugulako buru osasuneko eritasunen bat»

G. PIKABEA ELIZONDO

«Buru osasunaz ari garenean, beti bertzei pasatuko zaiela pentsatzen dugu, baina jakin behar dugu inorez gaudela libre. Datuen arabera, lautik batek buruko patologiaren bat izanen du bere bizitzan». Halaxe kontatu du Uxua Lazkanotegi Matxiarena beratarra. Gaia «normaltasunez» lantzeko beharraz aritu da, eta «buru osasunari lotutako eritasunak dituztenak onartzeko» eskatu du. Badaki zertaz ari den, buru osasunean aditua baita. Ikasketaz erizaina da, buru osasunean espezializatua, eta gaur egun Elizondoko Benito Mennizentroa hartzen duen Aita Menni-Ahizpa Ospitalariak zentroetako laguntza zuzendaria da. Nafarroako Unibertsitate Publikoko erizaintza fakultatean irakasle ere ari da, eta Espainiako Buru Osasunaren Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kidea da.

Zergatik buru osasuna?

Buru osasunaren gaia betitik gustatu izan zait. Erizaintza ikasten ari nintzela, praktikak egin nituen denboran, psikiatriako unitatearen ondok pasatzea tokatzen zitzaidan. Baimendutakoek bakarrik zuten harat sartzeko aukera eta atearren bertze aldean zegoena zer zen jakin nahi izaten nuen, erizainek zer egiten zuten jakin. Baimena eskatzea erabaki nuen eta lau hilabetez praktikak egiteko aukera eman zidaten. Han konturatu nintzen erizainek jendearekin kontaktu ikaragari

ria dutela. Burua ez dugu hagit ongi ezagutzen, eta jakin gabe, jendeak aise ematen du buru osasunaz bere iritzia. Bertze edozein eritasun baldin baduzu, denak ondoan izanen dituzu, baina eskizofrenia, depresioa edo buru osasuneko zerbait baldin baduzu, aparte geldituko zara. Egoera horrek laguntzeko gogoia ematen zidan, eta nire ibilbide profesionala buru osasunaren bueltan egin dut. **Gaur egun, Aita Menni-Ahizpa Ospitalariak-eko laguntza zuzendaria zara, irakaslea unibertsitatean, Espainiako Buru Osasunaren Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kide...** Bai. 1998an, Benito Mennira etorri nintzen, eta erizain hasi nintzen. Tarte horretan ikasten segitu nuen. Gerora, erizainen arduradun izatera pasatu nintzen, eta nire ibilbidea kudeaketara bideratzeko, joan den urtean, ospitaleetako eta osasun zentroetako kudeaketa eta zuzendaritza masterra egin nuen. Orduan eskaini zidaten gaur egun dudana lanpostua. Horrez gain, zortzi urte daramatzat unibertsitatean, Erizaintzako graduari buru osasunari buruzko klaseak ematen. Eta duela lau bat urte Espainiako Buru Osasunaren Elkarteko Zuzen-

«ZERBAIT SUMATUZ GERO, LAGUNTZA ESKATU BEHAR DA»

daritza Batzordeko kide izatea proposatu zidaten. Buru osasuneko erizaintzako espezialitate ez da aunitz ezagutzen, eta beharrezkoa da bultzatzea. **Eta zer bereizgarri ditu buru osasuneko espezialitateak?**

Gai horren inguruan bada alde eta kontra dagoen jendea. Batzuen ustez, erizainok jakintza orokorra izan behar dugu, arlo guzietan lan egiteko, baina nire irudiko, buru osasuneko espezialitatea berezia da, bertzelako zaintza behar duena: prebentzioa, promozioa...

Zein dira gaur egun buru osasunari lotuta dauden behar nagusiak?

Nolabait erakustea inorez gaudela libre. Buru osasunaz ari garenean, beti bertzei pasatuko zaiela pentsatzen dugu, baina datuek erraten digute lautik batek bizitzan buru osasuneko eritasunen bat izanen duela. Urrutira joan gabe izanen dugu buru osasuneko arazoaren bat duen norbait. Datu batzuk aipatze aldera, 2021ean, Nafarroan, buru osasunari lotutako 151.854 kontsulta izan ziren. Buru osasuneko arazoekin lanean bajak % 53 hazi dira; eta langileen % 15ek buru osasuneko arazoren bat du. Gehiago ere bai. 2023an, Nafarroan 61 lagun

«NORBERARENTZAT DENBORA HARTZEA HAGITZ INPORTANTEA DA»

suizidioz hil ziren eta munduan hamar segundero suizidiogatik pertsona bat hiltzen da.

Buru osasunarena gai tabua da?

Pandemiarekin buru osasunaren garrantzia agerian gelditu zen, eta uste nuen hala izaten segituko zuela, baina lehengo martxan segitzen dugu. Buru osasuneko eritasunen bat baldin badugu, gordean edukitzen saiatzen gara, edo ez dugu erranen psikologoarengana, psikiatrararengana edo buru osasuneko zentrotan batera joaten garela. Gainera, buru osasuneko eritasun larri bat dudala erraten badut, jendeak pauso bat gibeleragaitzen du. Kontuan izan behar dugu burua galtzea gogorra dela, kontrolatu ezin den zerbait. Sintomak gogorak dira, eta bereziki norberarentzat. Buru osasuneko eritasuna dutenek egunerokoan ohikoak izaten ahal diren ardurak batzuk egiteko zailtasunak dituzte: ohatzetik altxatu, dutxatu... Halako zerbait pasatzen bazait, beti pentsatzen dugu nekatua gaudelako izanen dela. Eta kanpoko jendeak 'ze alferra, ez du altxatu nahi; ze zikina ez da dutxatzen; nola aldatu den'... erranen du. Horrek ez du laguntzen, gero eta bakartiago sentiarazten du laguntza behar duena. Badira buru osasuneko gaixotasun larriak eta hain larriak ez direnak, baina ezin dira alde batera utzi. Bihurritu bat egiten duzunean, fisioarengana joanen zara, eta gehiago makurtzen bada, traumatologoarengana, alegia, beti laguntza eskatuko duzu. Baina zer gertatzen da buru osasunarekin? Tristura eta antsietatea sentitzea, ahotsak aditzea... Sintoma horiek ez dira gordean eduki behar, garrantzitsua da laguntza eskatzea. Zenbat eta lehenago egin, orduan eta hobekiago. Ez pentsatu bakarrik gaitutiko dituzunik. Garaiz tratatzen hasita, igual eritasun kroniko bihurtuko da, baina bizitza normala eginez segitzen ahal izanen duzu. Gerorako utzita, berriz, konplikatzen ahal da. Buru osasuneko arazoak edozeinek izaten



Uxua Lazkanotegi Matxiarena beratarra Aita Menni-Ahizpa Ospitalariak zentroetako laguntza zuzendaria da. TTPI-TTAPA

ahal ditugula onartu, eta jendeak beldurrik gabe laguntza eskatzen ahal duela sentitu behar du; eta norbaitek laguntza eskatzen badigu, laguntzeko prest egon behar dugu. Gaia normaltasunez hartu behar dugu.

Zer dago buru osasuneko eritasunen gibelean?

Bizimodua bera, estres ikaragarria dugu. Zerbait normala balitz bezala onartua dugu, baina estresa denbora luzez mantentzeko ondorioak sortzen ahal ditu. Horren harira, prebentzioan paratu nahiko nuke arreta, batzuetan norbere baitan dagoelako soluzioa. Norbere burua zaindu behar dugu, gelditu eta lasaitu. Haurrei ttikitatik emozioak bideratzen erakutsi eta elkarbizitzako ba-

loreak berreskuratu behar ditugu. Denak diferenteak gabela onartu behar dugu eta elkarrekin bizitzen ikasi, hala ez bada, ondorioak helduetan ere sumatzen dira.

Adin ttikikoak aipatu dituzu. Zer arazo ikusten dituzue haien artean?

Gaur-gaurkoz gehien ikusten ditugunak antsietate, depresio eta adikzio arazoak dira. Drogak ere hor daude. Alkohola kontsumitzea, adibidez, normalizat hartua dugu, baina datuak gogorak dira. 13-14 urterekin hasten dira edaten, ikusten dutena egiten dute, hau da, mozkortu. Marihuana erretzeak ere buru osasunean kalte handia sortzen du. Gainera, ez dakigu gure zaurgarritasun maila zenbaterainokoa den, eta aka-

so edaten edo erretzen duen bati ez zaio deus pasatuko, baina bertze bati kalte handia egingen dio. Hor ere prebentzioa nabarmenduko nuke, bizi osasuntsua izatearen garrantzia. Norbere bizimodua aldatzea norbere esku dago, eta laguntza behar denean hor gaude profesionalak. Baina haurrei bizimodu egokiena zein den erakutsi behar zaie, eta nik kirolari garrantzia ematen diot. Osasun fisikorako edo buru osasunerako hagitx ona da; pastilla guttiago eta zapatila gehiago.

Helduetan zein dira ohiko arazoak?

Antsietatea eta depresio kasuak igo dira, eta neurri ttikiagoan, psikosia, nahasmendu bipolarra eta adikzioak. Batzuetan, sufrimendua arintzeko adik-

ziora jotzen du jendeak, alkohola edo bertze toxikoetara. Horretan ikaragarriko garrantzia du buru osasuneko eritasunen bat dutenak onartzeak. Eritasuna izanen dute, eta ezin diezu eskatu egin ezin duena, baina gure aldetik laguntzeko begirada izatea nahitaezkoa da. Benito Mennira lanera etortzen diren aunitzek zahar etxeetan nahiago dutela ari erraten dute, hemen ikara sentitzen dutela. Eta zergatik? Tratamendua eta laguntza behar dute, baina gu bezalakoak dira. Hemen ongi eta seguru sentitzen dira, eta badakizu zergatik? Ondoan gaudelako. Kanpoan baztertu egiten dituzte, etengabe aditzen dute ez dutela deusetarako balio, hori sinesteraino. Gero eta jende gehiagok behar du buru osasuneko laguntza.

Teknologiak badu eraginik?

Bai. Teknologiak adikzioak sortzeko prestatuak daude. Dena ez da txarra, baina gauza guziak bezala, mugak paratzen eta oreka bilatzen jakin behar dugu. Teknologia berriekin denekin konektatuta gaudela iduri du, baina bakardadea sortzen dute.

Badira nahiko baliabide buru osasuneko arazoei aurre egiteko?

Nafarroan sare ona dago, baina beti egiten ahal da gehiago eta baliabideak ongi bideratu behar dira. Hainbertze behar ditugu, eta batzuetan behar horiek elkar lagunduz gainditzen ahal ditugu. Buru osasuneko erizainok lanerako zer erreminta ditugun galdetzen didatenean, gure tresna solasa dela erantzuten diet. Aditzen jakitea, solastatzea eta aurrez aurreko harremana buru osasunerako hagitx tratamendu onak dira.

Edozeinen buru osasuna zaintzeko zer aholku emanen zenuke?

Batetik, bizi ohitura osasuntsuak izateko, hau da, ongi jan, ongi lo egin, kirola egin, eta ahal bada ez erre, ez edan edo ez bertze substantziak kontsumitzeko. Eta bertetik, agendan geure buruarentzako hitzordua hartzeko. Presaka bizi gara, baina hagitx inportantea da geure buruarentzat denbora hartzea.



Iazko erreka garbiketean parte hartu zuten herritarretako batzuk. UTZITAKOIA

Matzada erreka garbitzeko auzolana uztailaren 20an

Udalak eta Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatu dute erreka garbitzeko auzolana bigarren urtez segidan

A. LARRETXEIA

Aurten ere auzolana antolatu dute Ehiza eta Arrantza elkarteak eta udalak lankidetzan. Iazko ekitaldiari jarraipena eman nahi diote eta, intentzioa, auzolan hau urtero finkatua gelditzea da. Helburua herri kaxkoan dauden erreka bazterrak garbitzea da: zaborrak bildu, landaredia inbaditzailea kendu... Aurten, bereziki Matzadako erreka garbituko dute, baina Zia erreka ahantzi gabe. Uztailaren 20an egingen dute eta interesa duen herritar oro deitua dago.

09:00etan elkartuko dira Alzateko plazan eta taldetan antolatu ondotik, aurrez zehaztutako tokietara joanen dira. Komenigarria da arropa eta oinetako egokiekin joatea eta ahal bada eskularruekin. Lan mota horretarako tresneria eta makinaria eramateko ere eskatu dute. Bortzirietako Hondakinen Mankomunitateak edukiontziak jarriko ditu auzolanean bilduko diren hondakinak biltzeko, eta goiza borobiltzeko, Ehiza eta Arrantza elkarteak gosaria egingen dute parte hartzaileek.

Lurraren Eguna antolaketan hainbat aldaketa egingen dituzte

A. LARRETXEIA

Lurraren Eguna urrian ospatzen bada ere, dagoeneko hasi dira Berako Udala eta Gure Txokoa egunaren antolaketan. Aurten hainbat aldaketa egin nahi dituzte egunaren antolaketan zein eguneko egitarauan, eta horretarako, uztailaren lean bilera egin zuten.

22 lagun elkartu ziren bileran eta hainbat puntu adostu zituzten. Tartean adostu zuten antolaketa taldeka egitea, eta hainbat talde sortzea gaika zein eremura. Bertzetik, eskulangileak aukeratzeko



Iazko postuetako bat. TTPI-TTAPA

orduan ere, hainbat irizpide ezartzea adostu zuten. Horrekin batera, Merkatu plazatik artisasuak kendu, eta bertan baserriaren inguruko gai bat landuko dute.

Muga Gabe zirku jaialdiko bi ikuskizun egingen dituzte ortziralean

A. LARRETXEIA

Urruñako Arte eta Zirku Eszenaren Akrobazia Eskolak Muga Gabe zirku festibala antolatu du eta ortziralean, hilaren 12an, tailerrak eta ikuskizunak izanen dira herrian. Eguraldi ona bada Herriko Etxeko plazan egingen dituzte, eta txarreakin Alzateko frontoian.

17:30etik 18:30era akrobazia tailerra izanen da, ondotik, 18:30etik 19:30era clown tailerra Uhartean konpainiaren eskutik. 20:00etan Urruñako akrobazia eskolaren ikuskizuna izanen da eta 20:30ean, aldiz,



Zirku ikuskizuna iaz. UTZITAKOIA

A *tope* konpainiak ikuskizuna egingen du. Arratsaldean taloak eta edaria egonen dira Labiaga Ikastolaren eskutik.

Nafarroako Gobernuak diruz lagundu du ekitaldia.



Fernando Celaya
TERAPIA NATURALAK

Gure kontsultan honako patologiak aztertuko ditugu:

- Lixeriketa aparatuko patologiak
- Gihar patologiak
- Neurologiak patologiak
- Arnas aparatuko patologiak
- Ginekologia patologiak
- Giltzurrun eta gernu aparatuen patologiak
- Zirkulazio eta endokrino patologiak

Erabiltzen ditugun terapiak:

- Osteopatia
- Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
- Akupuntura
- Fitoterapia Txinatarra
- Reiki...

Salis Hiribidea, 24 - IRUN

639 955 324

www.fernandocelaya.com

Julia Artieda Vilak irabazi du bestetako azal lehiaketa

Denera 14 lan aurkeztu dituzte lehiaketara eta boto gehien lortu dituen izan da Julia Artieda Vilarena

A. LARRETKEA

Julia Artieda Vila ilustratzaile herritarren kartelak iragarriko ditu aurten herriko bestak. Berako Udalak eta Besta Batzordeak bestetako egitarauko azal lehiaketa antolatu dute bertze urte batez eta Artiedaren lana izan da herritarren boto gehien lortu dituen. Txupinazoko momentua islatu nahi izan du ilustratzaileak bere lanean eta horretarako alde batetik argazkigintza eta bertetik ilustrazioa elkartuta osatu du kartela.

Kontrazalean, aldiz, Luis Miguel Torrealba Garcíaren irudia agertuko da, bera izan baita bigarren sailkatua boto kopuruan. Denera 14 lan aurkeztu dituzte lehiaketara.

Besta aitzezineko hitzorduek

Besta aitzezinetik hainbat hitzordu izanen dira uztailean herrian. Heldu den larunbatean, hilaren 20an, herri kirol saioa izanen da, Nafarroako Herriz Herri txapelketaren kanporaketa. 18:00etan izanen da Toki Ona Institutuko patioan, eta lokotx biltzen, za-



Azal irabazlea. JULIA ARTIEDA VILA

kuarekin lasterketa, aizkoran, arpanean, txinga eramaten, ingude altxatzen eta lasterka ari beharko dira parte hartzaileak.

20:00etan, aldiz, Illekuetako Telletxea etxeko lorategian Xabier Zeberio musikariak Pause izeneko emanaldia egingen du. Kultur programaren barrenean, Nafarroako Gobernuak antolatu du emanaldia Berako Udalaren laguntzarekin.



UTZITAKOIA

Gure Txokoako dantzariak Portugalen

Gure Txokoako Dantzan Taldeko dantzariak eta musikariak Portugalen izan ziren ekaineko azken asteburuan dantzan. Sao Pedro de Castelaos taldeak gonbidatuta elkartrukea egin dute, eta bertan dantza ikuskizuna egiteaz gain Porto eta inguruak bisitatzeko aukera ere izan dute.

Xemein Aisialdi Taldeak kanpaldia egingen du herrian uztailean

A. LARRETKEA

Bizkaiko Markina-Xemein herriko gazteak berriz ere herrian izanen dira uztailean. Iaz 15 eguneko egonaldia egingen zuten, eta aurten ere herrian izanen dira uztailearen 31tik abuztuaren 14ra. Agerra ondoko belardian paratuko dute akanpalekua eta 8 eta 30 urte bitarteko 100 lagun egingen dira denera gazteak eta begiraleak kontuan hartuta.

Helburuetako bat tokiko garapenean eragitea da, eta ekarpen ekonomikoa egingen dute herrian zein eskualdean



Akanpalekua iaz.UTZITAKOIA

bertako zerbitzuak zein komertzioak erabiliko baituzte kanpaldia irauten duen bitartean. 1978tik urtero antolatu dute kanpaldia Euskal Herriko hainbat herritan.



Guillermo LARRAÑAGA doktorea
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin
- Tratamendu estetikoak, armiarma eta malformazioena
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-Ekointerbenzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak



Centro Médico Bera
San Esteban 17, Bera

Telefona: 610 549 507



24 orduko zerbitzua

Mugikortasun urria dutenentzat jasogailuak.
Izogailuak | Proiektuak
Karga-jasogailuak, plataforma hidraulikoak
Plater-igogailuak

MARKA GUZTIEN IGOGAILUEN MANTENTZE LANAK




ascensoresaguirrezabal@hotmail.com
ascensoresaguirrezabal.com

Arretxe Ugalde ind.
Ezurriki kalea, 29 IRUN
943 612 821

LESAKA

Haur elebidunen hizkuntza-nahasteak solasgai

Euskal Herriko Unibertsitateak, Uda Ikastaroen barne eskainiko du ikastaroa irailaren 20an eta 21ean Harriondoan

AITOR AROTZENA

Euskal Herriko Unibertsitateak, Uda Ikastaroen barne, *Hizkuntza-nahasmenduak haur elebidunen garapenean: ebaluazioa eta esku-hartzea* izeneko ikastaroa eskainiko du irailaren 20an eta 21ean Lesakako Harriondoa Kultur Etxean, Osasunbideak eta Elebilab erakundeak antolatua, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Osasun sailen, Osakidetza, Euskarabidearen, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen, Bortzirietako Guztioak elkartearen eta

Lesakako Udalaren laguntzarekin. Izena eman daiteke www.uik.eus webgunean. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza departamentuak homologatutako ikastaroa da eta 20 orduko balio akademikoa du.

Uda Ikastaro teoriko-praktikoa da, ingurune elebidun eta eleaniztunetan aurkitzen diren hizkuntzaren garapen nahasmenduak hobeki ezaugutu, ebaluatu eta eskuhartzean zentratuko dena. Euskaraz eta gaztelaniaz emanen dute.

Emakumeen futbol txapelketa herrikoia uztailaren 20an jokatu dute Mastegin

Beti Gazte elkarteak eta Xulufinak Lesakako Sare Feministak lehen aldiz antolatutako emakumezkoen futbol txapelketa herrikoia jokatu dute uztailaren 20an, larunbatean, 11:30etik aitzinera Mastegi futbol zelaian. Denei irekitako txapelketa izanen da eta par-

tiden ondotik, bazkaria eta musika ere izanen dute. Futbolearen aritzeko edota bazkarian apuntatzeko Telletxea estankotan eman behar da izena eta txartela eskuratu 15 eurotan. Uztailaren 15a izanen da azken eguna. Zalantzak argitzeko: 686 73 97 25 (Lorea).



AITOR AROTZENA

Sorginxuloko oihartzunak, ederrak

Sorginxuloko Oihartzunak kontzertua eman zuen musika bandak ekainaren 23an frontoian. Bertso eskolakoe, dantzariak, txistulariak, soinulariak, trikitilariak, Lesakako abesbatzak, gaiteroak eta 50 urte bete dituen Leitzako Jeiki abesbatzak ere parte hartu zuten emanaldi bikainean.



UTZITAKOIA

Arkupe pilota eskolaren jaialdia

Arkupe pilotazaleen elkarteak, udalaren laguntzaz, besten aitzinetik antolatu ohi duen pilota jaialdia ekainaren 29an egin zuten udal pilotalekuan. Hainbat adinetako pilotarien arteko pilota partidak ikusteko aukera izan zen, baina gurasoak ez ziren elkarren kontra jokatzera animatu.

Egin erreserba

Ansoenea ostatu jatetxea

TXUPINAZO EGUNEAN
10:00etatik aitzinera
HAMARRETA KOAK

Bestetan egunero:
Pintxoak
Plater konbinatuak
Bokatak
Menu berezia
Eta terraza giro ederra!!

T. 948 63 01 07 - M. 649 33 77 23 Foruen plaza, 1 · BERA

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

Jauztena

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa
eta dirulaguntzen gestioa

Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

'Pueblos Vivid Herriak' proiektuan aukeratuak

Fundación Empleak, udalak eta herriko Hirugarren Sektorearen Mahaia lehen bilera uztailaren 1ean egin dute

A. AROTZENA

Fundación Empleak sustatuta *Pueblos Vivid Herriak* diruz lagundutako proiektuan parte hartuko duen Nafarroako hamar udalerrietako bat da Lesaka. Fundación Empleak, Lesakako Udalarekin eta Hirugarren Sektorearen Mahaia-rekin elkarlanean arituko da hurrengo hilabeteetan, herriko enpresa-sarean ahalik eta erabaki eta ekintza onenak aurrera eramaten saiatzeko. Hiru aldeen arteko lehen saioa uztailaren 1ean izan zuten herriko etxeko batzar aretoan. Aldi berean, mahai honetan parte hartzeko izena eman daiteke oraindik whatsapp mezua bidaliz 662 64 81 81 telefono zenbakira edo teknikaria1@lesaka.eus helbide elektronikora mezu bat bidaliz.

Hirugarren Sektorearen Mahaia

Duela urtebete sortu zuten udalak Hirugarren Sektorearen Mahaia, Lesakako komertzio, zerbitzu, alojamendu, ostalaritza eta herritarrek osatutako

taldea. Hiru hilabetero biltzen dira beraien artean sinergiak bilatzeko eta ideia edo konponbide berriak eztabaidatzeko turismoaren eta hirugarren sektorearen esparruetan.

Talde honetan bildu duten kezketako bat udalerriko hirugarren sektorearen etorkizuna izan da, bereziki ekintzailtza eta belaunaldi erreleboan. Honen ondorioz, udalak diagnostiko lan bat egitea erabaki zuen, udalerriko hirugarren sektorearen oraingo egoerari buruzko ahalik eta informazio gehien lortzeko. Diagnostiko horri esker, zeuden indarguneak, ahuleziak, mehatxuak eta aukerak identifikatu zituzten. Hori kontuan hartuta, establezimendu guztien eta udalaren artean, ekintza planaren zirriborroa idatzi zuten, Lesakarako etorkizun duin bat bermatzeko helburuarekin. Ekintza horietako batzuk dagoeneko aitzinera eraman dituzte azken hilabeteotan, eta datozenetan, proiektu berri gehiago aitzinera ateratzea da asmoa.



Pepita Zubillaga, Esther Zumalde, Maren Maia eta Mara Satrustegi sua pizten.

Ikastolako langileek eta ikasleek piztu zuten udako solstizioa

Lesakako Euskara Batzordeak antolatutako udako solstizioa besta egin zuten ekainaren 23an. Beti bezala, bertsoak, dantza, sua, musika eta jatekoak eta edatekoak izan zituzten. Bertso eskolakoen eta trikitixa taldekoen saioen ondorekin, *Bat nahikoa da* adierazpena irakurri zuten *Txoltxan*

Txoperenak eta Tantirumairu ikastolako langileek piztu zuten sua. Pepita Zubillagak, ikastolako guraso, amatxi eta hainbat urtez sukaldari izandakoak, Esther Zumalde guraso eta irakasleak eta Maren Maia Larralde eta Mara Satrustegi Marin ikasle ttikiak eraman zuten suzia.

Eñaut Arburua bigarren Euskadiko txapelketan

Irungo Bidasoa Atletiko taldean ari den Eñaut Arburua Portu Euskadiko atletismo txapelketako 300 metro hesidunen lasterketako finalean izan zen ekainaren 22an Durangon. 16 urtez behe-tiko kategorian meritu handiko bigarren postua eskuratu zuen (42.08).



Arburua txapelkunorde podiumean.

ZAPOREAK

GOURMAND EXPERIENCE

ONGI ETORRI ZURE GOURMET GUNE BERRIRA.

BERRIA

PRODUKTU FRESKOA ♦ JANARI BEREZIA ♦ EDARIAK ♦ JATETXEA

BIOK

EXPERIENTIAL SHOPPING

Dantxarinea

zaporeak.com

Gradu amaierako Berria Saria irabazi du Martxel Larrazak

Ekainaren 20an eskuratu zuen saria Leioan (Bizkaia), 'Xerka' fotokazetaritza lanari esker

IRUNE ELIZAGOIEN

Berria egunkariak, EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatearekin elkarlanean, Komunikazioko gradu amaierako lanen III. Berria sariketa antolatu du aurten. Martxel Larraza Indaburu herritarrak irabazi du, *Xerka* fotokazetaritza lanarekin. LGTBI komunitateak bizi duen sexilio isilari buruzko lana da.

Epaimahaiaren arabera, Larrazaren lanak bete-betean egiten du bat sariak ezarritako irizpideekin: «Kazetaritzaren *leitmotiv*etako bat da ezkutuan

dagoena argitara ateratzea, plaza publikoan ahotsa ukatzen zaien horiei hitza ematea. Eta, alde horretatik, Larrazak lan aberatsa osatu du: LGTBI komunitateak bizi duen sexilio isilean jarri du arreta, eta askotariko testigantzak bildu ditu genero identitateari, adinari, bizipenei eta lurraldeari dagokienez». Larrazak «lan bibliografiko mardula taxutu du, lan prozesuan eginiko hautu guztiak xehetasun osoz azalduz, eta *Xerka* proiektua fotokazetaritzaren ibilbidearekin eta helburuekin lotuz».



PELI AVM

Usategietako XIV. Igoeran Beola nagusi

Ekainaren 22an autoen hotsak hartu zuen herria. Kotxeen sailkapen orokorrean Joseba Beola beratara izan zen garaile, bigarren Javier Goñi eta hirugarren David Hernandez. Monoplazetan, Iosu Beitia izan zen lehenbiziko eta Julien Salaberry bigarren. Oier Iturria herritarra ere ederki aritu zen.

ELUTSA
EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENUAK
PINTXOAK - BOKATAK - RAZIOAK
Andueta, 13 - ETXALAR
T. 948 635 191



MIREN OLAETXEA

Elkarrekin gantxiloa egiten

Pello Apezetxea Kulturguneko harrizko bankuan dagoen kuxina berritzeko asmoarekin, elkarrekin gantxiloa egiteko gelditu ziren dozena bat herritar ekainaren 28an. Elkarrekin gantxiloa egiten aritzea, eta ez dakienak ikasteko aukera izatea ziren helburuak eta ederki bete zituzten.



ITSASO ELIZAGOIEN

San Joan suaren inguruan dantzan

Txarra sutara bota eta onarekin gelditzeko asmoz, dozenaka lagunek egin zuten suaren gainetik salto ekainaren 23an. Guraso elkarteak antolatutako afari-meriendaren ondotik, joarek joz itzulia eman, txistularien doinuek lagundurik suak piztu eta dantza herrikoiak dantzatu zituzten.

Alberto RETEGI
abokatua
948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

USOA kooperatiba
50 urte 1974-2024
948 635 214 605 631 244
ETXALAR

Alkaiagako bestak uztailaren 20an eta 21ean

Mendi lasterketa, pilota partidak, dantza saioa, bertsolariak, musika eta otorduak izanen dituzte asteburuan

A. LARRETXEKA

Alkaiagako auzotarrek uztailaren 20an eta 21ean, larunbatean eta igandean, ospatuko dituzte auzoko bestak. Bi egunetarako egitarau bete-betea antolatu dute.

Bestak larunbatean hasiko dira, uztailaren 20an, Alkaia-ga Trail lasterketarekin. 17:00etan haurren lasterketa egingen dute. 14 urtetik beherako gazteek parte hartzen ahalko dute eta lau kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Ondotik, 17:30ean hasiko da helduen

lasterketa, zortzi kilometrokoa. Azken urteetan erreleboka egin badute ere, aurten, banakako lasterketa izanen da. Izen ematea aitzinetik egiten ahal da *alkaiaga@hotmail.com* helbidera idatzita, edota baita egunean berean ere. Zazpi euroko prezioa du, eta prezio horretan sartzen dira lasterketa ondotik banatuko duten bokata eta baita istripuen kontrako aseguru ere.

Lasterketaren ondotik, 19:00etan, botako dute suzuria eta segidan Gure Txokoa-



Alkaiagako auzotarrak iaizko herri bazkarian. UTZITAKOIA

ko dantzarien saioa izanen da. Hori bukatzean, Lesakako gaitariak ariko dira giroa berotzen. Eguna borobiltzeko 20:30ean erromeria izanen da Imanol Intxausti eta Iñaki Larrañagaren eskutik, eta atsedendian afaltzeko bokatak izanen dituzte.

Igandean gehiago

Biharamunean, uztailaren 21ean, igandean, izanen du segida bestak. 10:00etan pi-

lota partidak izanen dira frontoian. Ondotik, 12:30ean auzoko meza egingen dute plazan, eta meza ondotik Ekhiñe Zapiain beraterra eta Josu Sanjurjo lesakarra ariko dira bertsotan.

Bertsolarien ondotik, auzotarren bazkaria egingen dute 14:30ean karpan eta Fer eta Beñat musikariak ariko dira giroa alaitzen. Bestak bukatzeko, zumba saioa egingen dute auzotarrek.



Zerrategiko langileak Plaza Zaharrean egindako elkarretaratzean. UTZITAKOIA

Lesakako Echeveste Hermanos zerrategiko langileak lanera bueltatu dira

TTIPI-TTAPA LESAKA

Hitzarmen duinaren eta soldata eguneratzearen alde ia lau astez greban egon ziren Lesakako Echeveste Hermanos lantegian. ELA sindikatuko ordezkaria den Jose Gregorio Etxeberria langileak aipatu digunez, beraien eskariak kon-tuan hartuz zuzendaritzarekin

hitzarmena adostu eta sinatu zuten uztailaren 2an eta biharamunean lanera itzuli ziren. Langileek eskerrak eman nahi izan dizkiete babes eman dieten guztiei eta inguruko bizilagun guztiei.

Aitzinetik, ekainaren 27an elkarretaratzea egin zuten Plaza Zaharrean.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
AUTOMOTIVE SOLUTIONS

www.ibargoyen.net **943 616 587**
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



Herriko dantzariak San Juan Xarren. ANA ETA ITZIAR

San Joan eguneko ospakizunak giro ederrean eginak

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, bezperako eta egun handiko egitaraua betetzeko modua izan zen

ANA ETA ITZIAR

San Joan bezpera euritsu eta ilun egon bazen ere, ilunabarrean egitaraua betetzeko tartean ateri egon zen. Antzerki polit baten istorioan murgilduta, San Joan bezperako sua piztu zuten eta herritarrek frontoian afaldu ondotik salto ederrak egin zituzten.

Biharamunean, San Juan Xarren meza eman zen. Ondotik, dantzari koxkorrek beraien saioa eskaini zuten eta, Biltoki Ttikikoen kantina paratu zuten bokadu goxoa eta tragoxka egiteko, baita erroslak erosteko ere.



Bezperako antzerkia. ANA ETA ITZIAR

Jubilatuek ere ederki gozatu zuten eguna. Meza ondotik Baratzondon bazkaldu eta gero dantzarako eta kantarako aukera ere izan zuten, bazkalondo musikatuarekin.



UTZITAKOA

Jubilotekan taxi zerbitzu berria

Baratzondon asteazkenero egiten den jubiloteka saioan zerbitzu berria estreinatu zuten ekainaren 26an. Etxetik jubilotekara eta bueltan etxera joateko taxi zerbitzua martxan paratu dute. Boluntarioei esker eskaintzen den zerbitzua da, eta lehenengo egunean bortz lagunek erabili zuten.

Igeriketa ikastaroa uztailaren 11tik 31ra eginen dute

Urteroko legez, aurtengoan ere udako sasoiari, igeriketa ikastaroak eskainiko dituzte igerilekuan. Uztailaren 11tik 31ra emanen dituzte, astelehenetik ortziralerara. 16:00etatik aitzinera emanen dituzte klaseak eta maila bakoitzak bere ordutegia izanen du.

Helduen eta gaztetxoek frontenis txapelketak abian

Frontenis txapelketa abian da. Oraindik hasteko data zehatzik ez bada ere, bikoteak apuntatuak daude. Gaztetxoek txapelketa ere antolatzen hasiak dira, eta piszina dute apuntatu nahi dutenek zerrenda. Biltokiko arduradunek osatuko dituzte bikoteak.

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortziralerara

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

BIDASOA
GURPILAK - GASOLINDEGIAR
1999 URTEIK

609 446 693 - 948 625 663
bidaso@neumatocobidasoa.es
www.ferminlucosbidaso.es

Eska ezazu BIDASOA txartela erregeia deskontuak izateko

Alkaiaga Industrialdea Ziobi Kalea 6 31770 Lesaca (Nafarroa)

Noain-Eskiroz Industrialdea Y Kalea 10 31110 Noain (Nafarroa)

GASOLIOA ETXERA eramaten dugu

F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

MARITX

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK

· BOLETIN INDUSTRIA
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

29 haur udalekuetan ibiliko dira uztailaren 26ra arte

Hiru eta hamabi urte bitarteko haurrak dira eta eurekin hiru begirale dituzte

NEREA ALZURI

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak Dindaia Fundazioarekin elkarlanean antolatutako udalekuak uztailarekin batera hasi dira eta aurten ere erantzun ona izan dute: Hiru eta hamabi urte bitarteko 29 haur apuntatu dira eta Ane,

Nahia eta Marta begiraleekin batera eskolan elkartzen dira, 10:00etatik 13:00etara. Partaide kopuru hori, halere, orokorra da, astez aste, izen emateak aldatzen baitira.

Uztailaren 26ra arte hainbat jarduera eginez ederki pasatzeko modua izanen dute.



UEMA

Salto! udaleku ibiltaria

Ekainaren 24tik uztailaren 2ra egin zuten UEMAk antolatutako Salto! udaleku ibiltariaren lehenbiziko txanda eta uztailaren 4an hasi zuten bigarrena. Bi txandak Arantzan hasi zituzten eta gainera, aurten, herriko hiru gaztek parte hartu dute: Asier Mutuberriak, Xabi Leizak eta Peru Almandozek.

Zakurrak mendian lotuta ibiltzeko deia egin du udalak

Udalak bando bidez, zakurrak mendian lotuta ibiltzeko deia zabaldu du. Mendian aziendak libre ibiltzen direnez, jabeek zakurrak mendian lotuta ibiltzeko eskatu die, bertze animaliei, pertsoneri edo natur inguruneari egiten ahal dizkieten kalteak saihesteko.



KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com

Panelak
Aluminioa, PVC edo metakrilatoa

Neurrira eginak, formarekin moztuak, formatu handiak, iraukorak...



ARANTZAKO UDALA

Herritarrek auzolanean

Herritarrek auzolanean segitzen dute, bai herrigunean, bai baserri auzoetan, baita gainerako bazterretan ere, eta ari diren guztien lana eskertu nahi izan du udalak. Argazkian Osiña karrikan ingurua garbitzen aritu zen kuadrilla ageri da.



AEK

Barnetegien denboraldia hasi da

Hementxe dago uztaileko lehenbiziko hamabortzaldiko barnetegiko taldea Aterpeko atarian. Ohi bezala, eskolan klaseak izaten dituzte eta Aterpean ostatu. Egunero euskara praktikatu eta ikasteko modua izanen dute ikasleek, klasean ez ezik, karrikan, dendan, ostatuan, bestan....



MÁRMOLES AMEZTI
Desde 1994

SUKALDEKO ETA KOMUNEKO ENTZIMERAK EGITEN DITUGU

info@marmolesamezti.com • www.marmolesamezti.com

Iruñea Irun errepidea, z/g. **ORNOZ-MUGAIRI** T. (+34) 948 592 325
F. (+34) 948 592 295

SUNBILLA

Marta Mariezkurrena omendu dute ikasturte bukaeran

Erretiroa hartuko du azken hogei urteetan eskolako irakasle, tutore eta zuzendari izandakoak

MAIDER PETRIRENA

Sunbillako eskolako ikasleek eta irakasleek urtero bezala 2023-24 ikasturteari bukaera hunkigarria eta polita eman zioten. Aurtengoan omenaldi xume bat egin zuten, gainera. Azkeneko 20 urteetan eskolako zuzendari, irakasle eta tutore izan den Marta Mariezkurrena jubilatuta da eta agurtzeko zenbait ekitaldi eta opari eskaini zizkioten. Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiogu egindako lan guztiarengatik. Eskerrak aunitz. Gozatu ibilbide berriaz.

Nahia Bertiz Espainiako txapeldun

Nahia Bertiz Babace herritarra, Nafarroako Pilota Federazioa ordezkatzuz, Iscarren (Valladolid) egon da ekainaren 26tik 29ra bitarte. Eskolarteko Adi-



Bertiz, Zabaleta eta Ibarrola.

neko Federazioen Espainiako txapeldun suertatu da Nafarroa. Kadete mailan suertatu zen txapeldun Bertiz, Goiuri Zabaleta leitzarrarekin eta Aizane Ibarrolarekin. Binakako txapelketako partida guztiak jokatu eta irabazi zituen herriko pilotariak. Finalean, Aizane Ibarrolak eta Nahia Bertiz herritarrak 2-0 (10-4 eta 10-2) irabazi zieten Errioxako Carmen Uyarrari eta Alejandra Bilyaki.

Eneit Bertiz bigarren Green Series txapelketan

Green Series txapelketaren azken karrera jokatu zen ekainaren 30ean Ortuellan. Eneit Bertiz Apezetxea herritarrak Scratch Elite S23 sailkapen orokorrean eta 23 urtez azpiko sailkapen orokorrean, bietan bigarren postu ederra eskuratu zuen.



Eneit Bertiz, bigarren, podiumean.



MAIDER PETRIRENA

San Joan bezperan musika eta sua

Ekainaren 23an, urtero bezala, ogitarteko jatea egin zen. Oraingoan denborak lagundu ez zuenez frontoi barrenean izan zen. DJ J&Jk giro ederra paratu zuen bere musikarekin. 21:00etan euria atertu zuenez suak saltatzeko aukera izan zuten musika giro ederrean. Mila esker antolatzaileei.



UTZITAKOIA

Bide berdea moldatua

Bide berdea, denbora batez Sunbillako Bidasoa auzoko zubi urdinetik aitzinera itxita egon da, 2021eko uholdeen eraginez izandako kalteak moldatzeko. Udalak egin du inbertsioa, Espainiako Gobernuaren ez-ohiko laguntzarekin. Dagoeneko lanak akituta berriz ere irekita dago.



BORDALABREA

BORDAKO
Gara Haragiak • Pastelaria Carnes

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com



LIDERA
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

INGURUNE BERRI BAT ZURE IRRIBARREARENTZAT
astelehenetik ortziratera
08:00-13:00
15:00-20:00
larunbatetan goizez

Iturrunzubiko plaza. 9-10 • 31770 LESAKA
Tel. **722 662 478** | lidera@hortzklina.es
@liderahortzklina

Besta ederrak eta jendetsuak izan dira aurtengoak

Joxe Irigoien eta Ainara Marizkurrena omendu dituzte haurren dantza saioan eta Trapatan dantzan

OIER ZULAIKA

Ederrak izan dira aurtengo sanpedroak. Ekainaren 27an hasi eta uztailearen 1era arte besta giroa nagusitu da karrikan, eta eguraldiak sobera lagundu ez badu ere, jende aunitz bildu da.

Rosario Erasun, Kotoño Belarra eta Tomas Uterga izan ziren suziria pizteaz arduratu ziren herritarrik. Herriko etxearentzako lanean aritzen dira eta erretiroa hartuko dute sarri. Horregatik, eta urte aunitzez egindako lana eskertzeko asmoz, eman zien udalak aukera. Suziria piztearekin bat lehertu zen besta txaranga doinuekin.

Omenaldi hunkigarriak

Herriko bestak egun batez aurreratu direnez, haurren eguna ere lehenago ospatu zuten, San Pedro bezperan. Juan David Costa Rodrigues izan zen alkate ttikia, Oier Lopez Oteiza bake epailea, Kemen Villamea Saralegi banderaduna eta bertze zenbait neska-mutiko zinegotzi. Bear Zana pilotalekuan egin zuten dantza saioan ehun bat haurrek parte hartu zuten

eta Joxe Irigoien omendu zuten azken urteetan dantza taldeko gurasoen arduraduna izan baitzen. Egun osoan agintean aritu ondotik, iluntzean utzi zituzten karguak korporazio haundiaren esku.

Larunbateko San Pedro egunean ere omendu zituzten Irigoien eta Ainara Marizkurrena. Trapatan dantzan dantzari zein txistulari gisa parte hartzen zuten eta gogoan izan zituzten loreak, bestetako atorrak, zapiak eta txapelak paratu baitzituzten plaza bazterrean. 32 dantzarik dantzatu zuten Trapatan euripean, inoiz baino dantzari gehiagok. Igandean ere omendu zuten Irigoien erraldoiek bere etxe aitzinean geldialdia eginda eta dantzatuta.

Bertzelakoan, jende aunitz bildu da antolatutako ekitaldi denetan. Bereziki jendetsua izan zen En Tol Sarmiento taldearen kontzertua; eskolako patioa goraino bete zen talde arabarraren doinuek aditzeko.

Aurtengoak bukatuta, irailean ospatuko diren bestak ttikiak izanen dira hurrengo bestak.



Tomas Uterga, Rosario Erasun eta Kotoño Belarra. ALICIA DEL CASTILLO



Txistulariak San Pedro egunean karrikabueltan. ALICIA DEL CASTILLO



Korporazio ttikiko kideak desfilean ekainaren 28an. ALICIA DEL CASTILLO

Andoni Acebedo eta Idoia Nogales nagusitu dira 44. krolean

TTIPI-TTAPA

230 bat lagun animatu ziren ekainaren 23an Errekak antolatutako 44. krolean. Haurrak ere aritu ziren lasterka, eta bereziki emakume aunitzek hartu zuten parte.

Proba nagusian, gizonzkoetan, Beste Iruña taldeko Ando-

ni Acebedo izan zen lehen sailkatua (23.51) eta emakumezkoetan, aldiz, Idoia Nogales debatarra (28.29). Gizonzkoetan Acebedoren gibelatik bigarren postua lortu zuen Ait Hadi Younessek (23.56) eta hirugarrena Aimar Bouzianek (24.18).



Emakumezkoen podiuma. UTZITAKOIA

Emakumezkoetan, berriz, Henar Etxeberria (28.55) izan zen bigarren sailkatua eta Eguzkiñe Zabaleta (29.42) hirugarrena.

Proba motzean aldiz Hiru Herri taldeko Beñat Rubio eta Pamplona Atletico taldean lasterka egiten duen Saioa San Miguel herritarra izan ziren azkarrenak. Herriko lehen lasterkariak Santi San Miguel eta Amaia Etxarte izan ziren.



Zumarragako txapelketako lau finalistetatik hiru herritarrak ziren. UTZITAKOA

Mattin Leiza Espainiako txapeldun pilotan

Aurtizko pilotaria Nafarroako selekzioarekin aritu da Iscarren (Valladolid) eta infantil mailan txapeldun izan da

ARKAITZ MINDEGIA

Ekaineko azken asteburuan Mattin Leiza Aurtizko pilotari gaztea Iscarren (Valladolid) aritu zen Espainiako txapelketan Nafarroako selekzioarekin. Ekainaren 27tik 30era bitarte hiru partidu jokatu zituzten finalera sailkatzeko. Mattinekin batera taldean, Aiur Uhartemendia leitzarra eta Sergio Santesteban aritu ziren infantil mailan. Finalean, Leizak eta Santestebanek Errioxako Ruiz eta Sanchezzi 2-0 irabazi zieten (8-3, 8-3). Esperientzia polita ekarri du herri-ara, baita txapela ere.

Neska pilotariak ere han eta hemen

Ados pilota eskolako pilotariak entrenamentuak akitu zituzten, baina herriz herri partidak jokatzen ari dira. Zumarraga Hiria, San Juan kaleko festetan Oiartzunen eta Cortesen aritu ziren. Aipagarria da Zumarraga hiriko txapelketako finalean lau finalistetatik hiru herrikoak zirela: Janitz Irigoien (Izar Etxezarreta gipuzkoarrarekin), Irati Altxu eta Dunixe Alberroren kontra aritu zen. Par-



Mattin Leiza Iscarren.

tidu gogorra jokatu zuten eta azkenean irabazle suertatu ziren Altxu eta Alberro. Udan ere han eta hemen aritzekoak dira. Irungo Ola sagardotegiko eta Getariko txapelketan ere ariko dira. Azken honetan Dunixe Alberro Iraide Iriarte sunbildarrakin ariko da.

Herritarrak Arbizuko 4x4ean

Arbizuko 4x4 proban parte hartu zuten herritar batzuk ekainaren 29an. Afizio polita duten eskualdeko lagunekin elkartu eta Sakanako edizio honetan elkarrekin parte hartu zuten. Beraien ibilgailuekin gozamen polita hartu zuten. Lohia nagusi zen baina hantxe ibili ziren aitzinera eta gibelera prestatuturiko ibilbidean.



Herriko haurrak buruhandiekin. Aurtien ere gozatzeko aukera izanen dute.

Uztailaren 18tik 21era ospatuko diren bestetan murgiltzeko gogotsu

A. MINDEGIA

Uztailaren 18tik 21era ospatuko ditugu Iturengo bestak. Auten ere egitarau zabala izanen dute (erdiko gehigarrian oso-osorik). Ortzegun arratsko txupinazoa baino lehen, herri kirolak eta haur jokoak, nesken frontenis txapelketako eta esku pilotako finalak izanen

dira. Ortziralea hurrei eskainitako eguna izanen da eta ohiko bazkariak eta puzgarriez gain, diskofesta ere izanen dute. Larunbatean, pilota partida eta herri bazkaria eta igandeko azken egunean, herri kirolak, mariatxiak eta xingar eta xolomo jatea izanen dira, bestak akitzeko.



Publikoaren aitzinean hainbat harri altxatu zituen Etxebestek. IBON ERRAZU URIA

Estefi Etxebeste bikain Doneztebeko bestetako herri kirol erakustaldian

Estefi Etxebeste herriko harri-jasotzaile gaztea, urtarrilean debuta egin zuenetik, tope dabil han eta hemen. Doneztebeko San Pedro bestetan egin zen herri kirol erakustaldian parte hartu zuen. Ezkurra pilotalekua jendez gainezka zegoen. Bertan aizkora apustua izan zen Vicente-Mugerza

eta Larrañaga-Txikiaren artean eta erakustaldia eskaini zuten Eneko Saralegi aizkolariak eta Estefik harri altxatzen. Gipuzkoako harri txikitako txapelketan ere parte hartu zuen eta gustura gelditu zen emandako mailarekin. Hasi berria bada ere, aitzinera pausak ematen ari da.



Jubiloteketako kideak Zarautzen. RAMONI ORDOKI

Beintza-Labaienen ere jubiloteka paratuko dute

Zubietako jubilotekak atekak itxi ditu eta horren partez, Narbarten ere martxan paratu dute

TTIPI-TTAPA

Uda ailegatzearekin batera, ikasturtea akitu dute Malerreka-ko eta Bertizaranako jubiloteketako kideek. Ekainean Zarautzera eta Hondarribira ateraldia eginda borobildu zuten.

Hala ere, aldaketekin akitu dute ikasturtea. Batetik, Zubietako jubiloteka alde batera gel-

ditu da, eta horren partez, Narbarten paratu dute martxan. Bertzetik, irailean bertze herri bat gehituko da jubiloteka duten herrien multzora: Beintza-Labaien. Beraz, irailetik aitzinera, borts herritan izanen dute zerbitzua: Beintza-Labaienen, Donamarian, Ezkurran, Narbarten eta Sunbillan.



IÑIGO ZUBELDIA

Saldiasko festak giro paregabean

Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, ederki joan ziren Saldiasko festak. Bereziki larunbatean giro bikaina izan zen, txarangarekin eta sokatira desafioan. Herritarrek lau talde atera zituzten sokatiran, eta saltsa ederra sortu zuten. Gainerako ekitaldiak ere ongi atera ziren.



Urte hasieran zuntz optikoaren harira Donamarian egindako bilerako irudia.

Zuntz optikoa herri guztira hedatu dute Donamarian

TTIPI-TTAPA DONAMARIA

Internet zerbitzua herritar guziengana hedatzeko bidean, bertze pauso bat eman dute Donamarian.

Natalia Rekarte Donamaria-ko alkateak TTIPI-TTAPARI jakinarazi dioenez, «herrigunean zuntz optikoa zabaltzeko gastuak Wikai enpresak bere gain hartu ditu eta baserrietara eramateko gastuak, berriz, udalaren dirulaguntzarekin egin dituzte». Hori izan da Rekarteren hitzetan, «herritar guziek Internet izateko modu bakarra. Udalak lagundu izan ez balu, gure baserritarrak

Internet zerbitzurik gabe gelditu izanen ziren».

Dirulaguntza

Horretarako, Nafarroako Gobernaren Toki Inbertsioen Planeko libreki zehazteko programatik hartutako dirulaguntza erabili du udalak. Kontatu duenez, «Wikai enpresak egindako inbertsioa 38.228 eurokoa izan da. Udalak 9.500 euroko ekarpena egin du eta gisa honetara, baserritarrek 200 euro ordaindu beharko dute beraien konexioa». Udalak «Wikai egin duen apustua eskertu» nahi izan du.



ANDER ARAGON

Zubietan ere su gainean saltoka

Zubietarrek ere ez zuten hutsik egin ekainaren 23ko hitzorduan. Eguraldiagatik sua piztu edo ez zalantzan ibili baziren ere, azkenean aurrera egin eta txarrak kanporatuz su gainean saltoka ibili ziren. Aurretik ostatuan eta estalpean otorduak ere egin zituzten hainbat herritarrek.



Joan den urtean 75 lagun bildu ziren kantu zaharren bazkarian. BASAGAITZ

Kantu zaharren bazkaria uztailaren 27an Legasan

Bazkaria Basagaitz elkarteak antolatu du eta Leokadia ermitan izanen da

TTIPI-TTAPA LEGASA

Aurten ere kantu zaharren bueltan hitzordua antolatu du Legasako Basagaitz kultur elkarteak. Uztailaren 27an Leokadia ermitan kantu zaharren bazkaria egingen dute Angel Mariezkurrenarekin, Aitor Ibarra *Jalisko*-rekin eta Beñat Mitxelenarekin. 45 eurotan, bazkaltzeko eta

euskal kantu zaharrez gozatzeko aukera izanen da. Hilaren 10erako apuntatu behar zen.

Bertzetik, Basagaitz elkarteak bertze hitzordu bat ere antolatu du egunotan. Uztailaren 8tik 11ra eskulan tailerrak egingen ari dira Itziar Mikelperizenarekin: arropa pertsonalizatuak, giltzatak eta koadroa.



MAITE BERTIZ

Narbarteko eskola utzita institutura begira

Gaugero udako oporrez gozatzen ariko da argazkiko laukotea. Aimar, Arene, Ane eta Iriak aurten akitu dute Narbarteko eskolako ibilbidea eta DHB egitera joan dira heldu den ikasturtean Doneztebera. Ekainaren 19an eskolako lagunak, irakasleak eta familiek agur berezia egin zieten.

Iñaki Dieguez eta Xabier Leturiaren kontzertua Donamarian

TTIPI-TTAPA DONAMARIA

Nafarroako Gobernu Kultura Zuzendaritza Nagusiak (Vianako Printzea erakundea) antolatutako 29. Kultur programaren barnean, uztailaren 19an, ortziralea, Iñaki Dieguez akordeoilariak eta Xabier Leturia pandero jotzai-

leak *Pepito Yanci*, *beti bizi* izenburupean kontzertua emanen dute Donamarian. Jauregia izanen da hitzordua, 20:00etan.

Pepito Yanci Lesakako akordeoilari handia gogoan egingo dako musika emanaldia izanen da.



JAIONE ARIZTEGI

San Joan bezperako seinalea Urrozen

Etkez etxe kartoizko kaxak eta zakuak biltzen ibili ondotik, 30 lagun inguru bildu ziren ekainaren 23an Urrozko Herriko Ostatuan egin zuten merienda-afarian. Ilundutakoan, sua egin eta su gainean salto egingez ospatu zuten udako solstizioa.



MAITE BERTIZ

Txarra kanporatuz su gainean Narbarten

Bertze herri aunitzetan bezala, Narbarten ere karrikara atera ziren ekainaren 23an. Lehenbizi, afari autogestionatua egin zuten plazan, eta ondotik, erreka ondora joan ziren su gainean salto egitera, txar guziak uxatzeko asmoz. Etxe inguruetan ere su tikiak piztu zituzten.



Bidaiara lehen txandan joan diren bazkideak. UTZITAKOA



Albaniako bidaiara bigarren txandan joan diren bazkideak. UTZITAKOA

Albanian izan dira elkarteko bazkideak ekainean

Astebetez Albaniako kulturaz eta ondareaz disfrutatzen aukera izan dute bidaiari izan direnek

TTIPI-TTAPA

Albanian izan dira elkarteko bazkideak oporretan ekaineko bigarren hamabortzaldian. Bi txandatan banatuta, astebeteko egonaldia egin dute eta Albaniako hainbat txoko bisitatzen aukera izan dute. Argazkietan ageri den gisan, ederki ibili dira Mediterraneoan.

Lehen egunean Madril eta Berat (Albania) arteko bidea egin zuten hegazkinez. Arratsa han pasata, bigarren egunean hiria bisitatu zuten. Hirugarren egunean, Sarandatik Brutintorako irteera egin zuten. Albaniako hegoaldean dago

Saranda, eta Unescok 1992an izendatu zuen gizateriaren ondare.

Laugarren egunean Albania utzi eta ferrian Greziako Corfu irlara joan ziren, eta bertan pasa zuten eguna. Borzgarren egunean Tiranarako bidea egin zuten, bidean, Gjiroskaster Unescoren mundu-ondare izendatuta dagoen hirian geldialdia eginda. Handik, Ardenikako monastegira joan ziren bisita egitera, eta iluntzerako itzuli ziren Albaniako hiriburura.

Seigarren egunean, goizean Tirana bisitatzeko aprobeitza-

tu zuten, eta arratsaldean, aldiz, erdi aroko Kruja hirira joan ziren eta bertako museoa ikusi eta erdi aroko aztarnak bertatik bertara ikusteko aukera izan zuten. Zazpigarren eta azken egunean, aldiz, Tirana azken aldiz ikusi eta etxerako bidea hartu zuten.

Zazpi egunetan Albaniako kulturaz eta ondareaz disfrutatzen aukera izan dute, beraz, bidaiari parte hartu duten bazkide denek.

Galiziara eta Benidormera

Azken aldizkarian aipatu bezala, hurrengo bidaiari luzea Galiziara egingen dute irailean 6tik 23ra. Bidaiari horretarako izen emateko epea, ordea, igaror da, uztailearen 8an eta 9an egin behar baitzen.

Urriaren 5etik 15era, aldiz, urteroko bidaiari egingen dute Benidormera. Urriaren 5ean aterako dira, eta Castejonon gelditu eta Javalambren bazkaldu ondotik, Benidormera ailegatuko dira iluntzean. Ber-

tan atseden egunak izanen dituzte urriaren 6tik 14ra bitartean, eta urriaren 15ean hartuko dute bueltako autobusa. Barracasen geldialdia egin, eta Castejonon bazkalduko dute. Arratsalderako ailegatuko dira nor bere herrira.

Poseidon Resort hotelean hartuko dute ostatu Benidormen eta honako prezioak izanen dituzte. Binakako logela nahi dutenek 770 euro ordaindu beharko dituzte, eta banakako logela nahi dutenek, aldiz, 1.045 euro.

Izen ematea abuztuaren 5ean eta 6an egin beharko da 948 45 08 78 edo 618 56 78 37 zenbakira deituta. Ordainketa ere abuztuaren egin beharko da.

BENIDORMEKO IZEN EMATEA ABUZTUAREN 5EAN ETA 6AN

68 mendizale elkartu dira Hondarribian ekaineko mendi irteeran

TTIPI-TTAPA

Arkupeak erretiratuaren elkarteko mendizaleek hilabeteko irteera egin zuten ekainaren 18an Gipuzkoan barna. Hondarribiko Guadalupeko Ama baseliza ataritik abiatu ziren 68 mendizaleak eta itsasoko bista ederrak zituen mendi

ibilaldia egin zuten, Jaizkibel mendiaren inguruan. Gero, Berako Zalain jatetxean bazkaldu zuten guztiek, umore ederrean.

Eguneko irudiekin bideoa osatu du Joxe Zubietak eta erran.eus atarian ikusten ahal da.



Hondarribiko irteerara joan ziren 68 mendizaleak. UTZITAKOA



Atekabeltzen urrian egingo dituzten topaketak aurkeztu zituzten ekainaren 19an.

Atekabeltzen urteurren festa uztailaren 20an

Egun osoko egitaraua prest dute eta kameleoi bat irudikatzen duen logo berria ere estreinatu dute

TTIPI-TTAPA

Hemeretzigarren urteurrena ospatuko du uztailaren 20an Atekabeltz gaztetxeak. Egun osoko egitaraua prestatu dute, kirola, musika eta festa bilduko dituena.

Goizean, 10:00etan, frontenis txapelketa jokatu dute plazan. Izena emateko zerrenda Torrea tabernan jarriko dute. Mahaiaren bueltan bilduko dira gero, 14:00etan, bazkaria izanen dute. Bazkarirako txartelak uztailaren 8tik aurrera jarriko dituzte salgai Torrea tabernan. Arratsaldean, herrian zehar zabalduko dute festa giroa, *Karromojipoteoa* egingen dute 18:00etan eta luntxa Atekabeltzen 21:00etan. Gauean, musikarik ez da faltako 22:00etatik aurrera. Katez herriko musika taldeak azken kontzertua eskainiko du. Vaire talde valentziarra ere gonbidatu dute eta gaua borobiltzeko Muffin Djaren musika izanen dute.

Logo berria

Logoa ere berritu du Atekabeltz gaztetxeak eta kameleoi baten irudia erabili dute. Irudiaren



Kameleoi baten irudia erabili dute.

esanahia azaldu dute: «kolorez aldatzeko kapazak eta aldi berean, kolore guztiak onartzekoak; ideia askeko espazioa, aisialdi alternatiboa eskainiz, autogestioz, Leitza hobe bat eraikitzeko lanean gabiltzan kameleoiak».

Topaketak udazkenean

Uztaileko urteurren festa ez da izanen aurten Leitza gaztetxearen bueltan egingen den hitzordu berezi bakarra. Urriaren 19an, Atekabeltz herri gunean bilduko dira Euskal Herri osotik etorritako gazteak. *Autogestioa saretu, etorkizuna okupatu* lelopean, elkar eza-gutu, gogoeta egin eta bide berriak elkarrekin lantzeko asmoz antolatu dute hitzordua.



AURRERA MENDIBIL MENDI TALDEA

Denboraldiko azken irteera egin dute

Lagunarteko giro bikainean, Aurrera Mendibil Mendi Taldeak ekainaren 23an egin zuen denboraldiko azken irteera. Latasatik abiatuta, Ergatik eta Aixitatik pasatu ziren mendizaleak berriz Latasara ailegatu aurretik. Udako etenaldiaren ondotik, irailean irteerak antolatzeko asmoa dutela adierazi dute.



NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA

Urrezko dominak pilotari gazteentzat

Federazioen arteko Espainiako pilota txapelketan parte hartu dute Goiuri Zabaleta, Xuban Telletxea eta Aiur Ugartemendia leitzarrek. Nafarroako selekzioko ordezkariak izan dira, lehenbiziko biak kadete mailan eta azkena infantiletan. Hirurek garaipena lortuta, urrezko dominak ekarri dituzte etxera.

Ortzadarraren kolorez margotu dituzte txokoak

Harrotasunaren eta LGTBI+ fobiaren aurkako nazioarteko egunekin bat egin zuten hainbat eragilek eta herriko txokoak ortzadarraren kolorez margotu eta Naizen elkartearen materiala salgai jarri zuten.



LEITZAKO UDALA

Emakume baserritarrek botako dute txupinazoa

Herritarrek aurkeztutako hiru hautagaien artean beraiek izan dira boto gehien eskuratu dituztenak

TTIPI-TTAPA


Herriko festei hasiera ematea ez da nolanhiko ohorea eta esanahi bikoitza du herritarrek izan direnean hautagaitzak aurkeztu dituztenak. Aurten-goan ere, herritarren esku utzi du festa batzordeak aukeraketa egitea eta emakume baserritarrek izan dira boto gehien eskuratu dituztenak.

Maiatzaren 26ra arte bildu zituzten hautagaitzak eta horien artean, hiru aukeratu zituzten festa batzordeko kideek: Ibai Azurmendi Sagastibeltza txirrindularia, Jeiki abesbatza eta

emakume baserritarrak. Hautagaitzak aurkezterakoan honakoa izan zen emakume baserritarren inguruan idatzi zutena: «urtetan gorputza, burua eta bihotza lurrari eman dioten emakumeak. Isileko lana, ofizio zein afizio, baserria eta lurra, zaintza lanak. Guztiak goxo burututakoak eta askotan aitortu gabekoak». Abuztuaren 10ean udaletxeko balkoira igoko da emakume baserritar kuadrilla eta txupinazoa botata, herritar guztien eskutik jasoko dute ongi merezitako omenaldia.

Usoa Ostolazak Giroan eta Tourrean parte hartuko du

Leitzan bizi den txirrindulariak Pirinioetako Itzulia (argazkian) eta Espainiako errepideko txirrindularitza txapelketa irabazi ditu. Italiako Giroan parte hartzen ari da orain eta Tourrean ere aritzekoa da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Itxaro Zabaleta bigarren izan da T3T lasterketan

Maila bikaina erakutsi zuen ekainaren 15ean jokaturako mendi maratoian. Tolosako hiru tontor ezagunenak igotzen azkarrena Oihana Zubillaga izan zen (5.13.06) eta bere atzetik sailkatu zen Zabaleta (5.18.31).



T3T



Kide Aholkularitza enpresako kideak sariarekin. BAI EUSKARARI

Kide Aholkularitzak Bai Euskari saria irabazi du

TTIPI-TTAPA

Bai Euskarari Elkartek 2024ko Bai Euskarari Sariak banatu zituen ekainaren 20an Donostiako Victoria Eugenia antzokian. *Txinparta bizia euskararentzat* izan da aurtengo sari banaketako leloa eta euskara lan munduan biziarazten duten enpresak saritu nahi izan

dituzte. Hiru izan dira sarituak: Leitzako Kide Aholkularitza, Ulma eta Izarkom enpresak. Leitzan eta Donostian ditu bulegoak Kide Aholkularitzak eta 2013tik daukate Bai Euskarari Ziurtagiria. Lantalde osoa euskalduna da eta euskaraz lan egiteko hautua egin zuten.



PABLO FEO

Suaren bueltan jendetza bilduta

Eguraldiak askorik lagundu ez bazuen ere, jendetza bildu zen ekainaren 23ko ospakizunetan. Kiroldegian egin behar izan zituzten dantza emanaldia eta afaria. 350 bat lagun bildu ziren dantzak ikustera eta 700 inguru afarian. Plazan suak piztuta borobildu zuten eguna.



Zapotxin pailazoaren bisita izanen dute aurtengoan ere. UTZITAKO ARGAZKIA



Bertako produktuak eta artisau lanak jarriko dituzte salgai. UTZITAKO ARGAZKIA

Festa giroa nagusi izanen da uztailaren 25etik 28ra

Gauero herri afariak egiteko asmoa dute norberak etxetik eramanen duenarekin

TTIPI-TTAPA

Lau egunez, festa giroan, kantuan eta dantzan ibiltzeko aukera izanen dute uztaileko azken asteburuan. Uztailaren 25ean, ostegunean, hasiko dituzte festak eta uztailaren 28an, igandean, bukatuko dira. Elkarki erronka botaz, lehia sanoan ibiltzeko aukera ere izanen dute herritarrek: pala edo ping-ponga, musa, toka eta patata tortilla txapelketa antolatu dituzte. Gauero mahaiaren bueltan biltzeko proposamena egin dute, norberak etxetik eramandako afaria elkarrekin jateko.

Uztailaren 25a, osteguna

Festei hasiera emateko txupinazoa 12:00etan botako dute, herriko buruhaundi eta erraldoiak lagunduta. Aurretik meza izanen dute eta dultzaineroak ere aterako dira giroa alaitzera. Eguerdi partean, pilota partidak antolatu dituzte. Jubeniletan, J. Sagastibeltza, X. Iturberen aurka ariko da. Horiek bukatutakoan, Aranoko eta Goizuetako pilotariak ariko dira aurrez aurre: M. Leonet eta O. Legarreta, X. Salaberria eta E. Elizegiren aurka ariko dira. Irati, Ane eta Joxe Leonen kantuek goxatuko dute arratsaldea. Kantaldia eskainiko

dute 17:00etatik aurrera. Segidan, 18:30 aldera, herritarren arteko pala txapelketa azkarra antolatu dute eta euria bada, ping-pongean ariko dira. Eguna bukatzeko, herri afaria egingen dute 21:00 aldera eta gero poteo kalejira.

Uztailaren 26a, ostirala

10:30ean herritik Surora joanen dira, erraldoi berria aurkeztuz ibilbidea egingen dute. Gero hamaiketako egingen dute. Arratsaldean, 17:00 aldera, bezperan hasitako pala txapelketako partidekin segiko dute eta finala ere jokatuko dute. 21:00etan herri afaria izanen da. 22:30ean XL. Mus Txapelketa jokatuko dute San Roke elkartearen eta kanpoan toka txapelketa egingen dute.

Uztailaren 27a, larunbata

Bertako produktuen azoka egingen dute 12:00etatik aurrera eta Zapotxin lagunaren bisita izanen dute. Patata tortilla txapelketa ere egingen dute (bakoitzak etxetik eraman beharko du prestatuta). Arratsaldean, lagun arte-

ko ipuin kontaketa saioa antolatu dute 17:00 aldera eta 18:00etan herri kirolak izanen dira. Gauean herri afaria egingen dute eta egunez aldatuta bada ere, bertsorik ez da faltako. Santiotako urteroko bertso saioa egingen dute afalondon. Gauerdian, dantzaldia izanen da Komerik taldearekin.

Uztailaren 28a, igandea

11:00etan meza. Segidan, herri gurasoen hamaiketako, dantzariak eta umeen arteko pilota partiduak. Arratsaldean, etxeko txikiak gozatzeko aukera izanen dute: 16:00etan altxorraren bila, 17:30ean apar festa eta 18:30ean txokolate jana egingen dituzte. Gauean elkarrekin afaldu eta bingoan ariko dira.

PRODUKTUEN AZOKA ANTOLATU DUTE UZTAILAREN 27AN



Etiketak eta pegatinak

Paperean edo biniloan (opakua edo gardena)
Bobinan edo soltean, formarekin moztuak...





Aranoko Udalak

festa zoriontsuak opa dizkizue herritar eta bisitari guztiei

ELGORRIAGAKO BESTAK

2024

Egitaraua



Uztailak 24, asteazkena

Arratsaldean, txupinazoa bestei hasiera emateko. Ondotik, zopak. 00:00etatik 04:00etara erromeria.

Uztailak 25, ortzeguna

Goizean, meza nagusia. Ondotik herriko dantzarien emanaldia. Arratsaldean mus eta tortilla txapelketak. 21:00etan hasi eta gauerdia arte Itzal taldearekin erromeria.

Uztailak 26, ortziralea

Goizean haurrentako jokoak. Eguerdian, paella jatea. 16:00etatik 20:00etara txaranga herrian barna. Arratsean Hago Silik taldearen kontzertua.

Uztailak 27, larunbata

Goizean toka. Eguerdian zikiro jatea. Iluntzean afaria. 01:00etatik 03:00etara DJ Endara.

**ELGORRIAGAKO
HERRIKO OSTATUAK**

**BESTA ON BATZUK
OPA DIZKIZUE**

☎ 629 12 70 81

**Pintxoak
Bokatak
Platerak**



**ELGORRIAGAKO
UDALAK**

Errespetuz besta egin

BESTA ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE
HERRITAR ETA BISITARI GUZTIAI



ITURENGO BESTAK 2024



ITURENGO UDALAK
besta zoriontsuak opa dizkizue herritar eta bisitari guztiei

Uztailaren 18tik 21era

ERASO SEXISTARIK EZ!



Egitaraua

Uztailak 18, ortzeguna Bezpera

17:00etan herri kirolak eta haur jo-koak. 18:00etan nesken frontenis txapelketako finala. 19:00etan esku pilota finala. 20:00etan txupinazoa. Ondotik Mendaur trikitixa-pandero eskolako kalejira herrian barrena. 21:00etan afaria: Ostatuan baztan zopak eta Altxunea erretegia. 00:30-04:30 DJ J&J.



Uztailak 19, ortziralea Haurren Eguna

09:00etan dianak herriko txistulariekin. 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara puzgarriak. 14:00etan haurren bazkaria. 17:00etan mus txapelketa. 18:00etan txokolate jatea plazan. 19:00etatik 21:00etara diskofesta Indijones. 21:00etan paela. 00:30ean Itzal erromeri taldea.

14:30ean herri bazkaria. 18:30etik 21:30era Elutxa txaranga. 21:30ean xingar eta xolomo jatea plazan. 00:30etik 04:00etara gaupasa Iratzar taldearekin.

Uztailak 20, larunbata

09:00etan dianak herriko txistulariekin. 10:00etatik 12:00etara plater tiroketa. 11:30ean herriko haurren pilota partidak. 13:00etan helduen pilota partida: Bereau-Urruzola, Apeztxea-Santestebanen kontra.

Uztailak 21, igandea

09:00etan dianak herriko txistulariekin. 12:30ean herri kirol erakustaldia: Julen Kañameres-Eneko Saralegi. Nerea Arruti-Karmele Gisasola. 13:30ean toka txapelketa. 18:00etan herriko dantzarien erakustaldia. 19:00etan Los Gavilanes mariatxiak. 20:30ean xingar eta xolomo jatea. Besten amaiera.

AURTIZKO OSTATUA **ONGI PASA BESTAK!**

Errazioak, eguneko menuak, bokatak, pizzak, hanburgesak, plater konbinatuak...

Baja, 18 Aurfitz | ☎ 848 68 05 57 | aurtizkoostatua@gmail.com

Ileapaindegia **EIDERA** Estetika

Asteartea eta ortzeguna: 09:00 - 14:00
Asteazkena eta ortziralea: 15:00 - 20:00
Larunbatetan: Goizez

Kontsejo, 6 | ITUREN | T. 630 633 445



Ainhoa Altzuguren Mitxelena **ongi pasa bestak!**

Abokatutza orokorrean · Herentziak Alokairuak · Arazo administratiboak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89
ainhoaaltzuguren@gmail.com

ITTUNGO HERRIKO OSTATUA

BESTA ON BATZUK OPA DIZKIZUE

☎ 948 451 346



erran.
eus

ECHEVERRIA ZURGINDEGIA

A+++ PVC LEIHOAK

Leitza errep. · 31745 ITUREN
M. 676 393 996 · T. 948 388 455 · F. 948 456 164
carpinteriaecheverria@yahoo.es



Merkatuko leihorik hoberenak egiten ditugu!

6 kamara eta 82 mm-ko perfilak

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

Egiturak	Eskailerak	Ateak	Lurrak
Armairak	Sukaldeak	Egutzezko leihoak	Leiho mistoak





ELIZONDOKO BESTAK 2024

Egitaraua

Uztailak 20, larunbata

12:00etan Elizondoko Bestetako II. Igeriketa Txapelketa Giltxaurdin.

Uztailak 24, asteazkena

12:00etan txupinazoa eta baztan zopak plazan. **Ondotik** karrika dantza konpartsa, txistulari, gaitari eta TukuTuku txarangarekin. **18:00etan** Andoni Ollokiegi Txokoton eta Kakus DJ Iriarte pilotalekuan. **19:30etan** karrika dantza konpartsa, txistulari, gaitari eta bandarekin. **20:00etan** Salbea elizan Elizondoko Abesbatza, Felix Txoperena eta bandarekin. **Ondotik** karrika dantza eta erraldoien dantza plazan. **21:30etan** TukuTuku txaranga herrian barna. **22:30etan** kontzertuak plazan: Very Txarrak, Azken Sustriak, Naxker eta DJ Xurita Beltz. **23:00etan** Lurrikara Gau Elektronikoa Merkatuko plazan.

Uztailak 25, ortzeguna

09:30ean diana. **10:30ean** karrika dantza elizara. **11:00etan** meza nagusia. **12:00etan** karrika dantza.

12:30ean plazako ekitaldia: mutil-dantzak, erraldoien dantza bandarekin eta luntx herrikoia. **17:30ean** Elutxa txaranga herrian barna, Jokai haurrentako jokoak Merkatuko plazan eta Txaruta Pilota Elkartearen partida pilotalekuan. **18:00etan** Aspe pilota partidak pilotalekuan. **19:00etan** Aurrera Dantza Taldea plazan. **20:30ean** dantza herrikoiak Ziga plazan. **Ondotik** mutil dantzak plazan. **22:30ean** Txingones de la Rencle mariatxiak plazan. **Ondotik** Olgetan taldea plazan.

Uztailak 26, ortziralea

09:30ean diana Beartzunen. **11:00etan** ludoteka Iriarte pilotalekuan eta itzulia konpartsarekin. **14:00etan** kuadrillen bazkaria Kuarateleko zelaian. **16:00etan** ludoteka Iriarte pilotalekuan eta Mugarkiren haurrentako kirol ekintzak Txokoton. **18:00etan** poteoa Marabiyak Soundekin elkartzek elkarre. **19:00etan** Trikiteens taldea plazan. **20:30ean** dantza herrikoiak Ziga plazan. **Ondotik** mutil dantzak plazan. **23:00etan** kontzertuak plazan: Tribade eta Trikiteens.



EGUZKIALDE OSTATUA

Ongi pasa bestak!!!



Eguneko menua
Errazioak
Entsaladak
Sandwichak
Hanburesak
Plater konbinatuak
Ogitartekoak

T. 948 45 26 26 - Santiago 43 - ELIZONDO

Ongi pasa bestak!



MAPFRE

Etxea, autoa, bizitza, jubilarzioa...

Jaime Urrutia, 8 • 31700 ELIZONDO • T.948 58 03 76

IRURITA
Dukesa plaza
T 948 580 059
T 948 452 021
(Obradorea)



1988

ELIZONDO
Santiago kalea 19
T 948 452 393

www.arkupegozotegia.com



TAILERRAK

Mekanika
Elektrizitatea
Pneumatikoak
Ibilgailuen salerosketa

Ongi pasa bestak!

Ind. Ordoki · Arizkun (NA)
T. 948 453 488 · M. 675 324 960

info@indauto.es



Ongi pasa bestak!

SANSIÑENA

garajea

TAILER MEKANIKOAK
KOTXEEN SALMENTA ETA KONPONKETA
ENGRASEAK
ERABILITAKO NEKAZARITZA TRESNERIA
AGRIA, NEW HOLLAND TRAKTOREAK
ZERBITZU OFIZIALA:




Santiago, 37 | ELIZONDO | 948 580 406



TXOKOTO
TABERNA



hiru ostahua

BERTAN JAN edo ERAMATEKO
Deskargatu gure APPa eta egin
zure eskaera

... betikoa baina ezberdina

ONGI PASA BESTAK!



Kaxulak, plater konbinatuak, bokatak, pizzak, hanburgesak, ensaladak, fritoak...
Etorri eta dastatu gure berezitasunak!

Baztan Berri 7 B | ELIZONDO | T 948 581 219

**Uztailak 27,
larunbata**

09:30ean diana. 11:00etatik 14:00etara uretako puzgarriak Giltxaurdin eta konpartsaeren itzulia. 12:00etan Recreo de Elizondo bandaren kontzertua elizako belardian. 16:30ean Elizondoko XII. Mus Txapelketa Xalbador karrikan. 17:00etan Elutxa txaranga herrian barna eta herri kirolak Iriarte pilotalekuan: Nafarroako Herriz Herriko Txapelketa. 17:00etan Menditarrak zahar etxean eta ginkana plazan. **Ondotik** txokolate hartzea Ahaztuen plazan. 17:30ean Elizondoko II. Boneta Jaurtiketa txapelketa Giltxaurdi karrikan. 19:00etan bertso saioa plazan: Alaia Martin, Ekhiñe Zapiain, Maialen Lujanbio eta Onintza Enbeita. 20:30ean dantza herrikoiak Ziga plazan. **Ondotik** mutil dantzak plazan. 21:30ean Elutxa txaranga herrian barna. 22:30ean kontzertuak plazan: Ankerrak, Kaskezur, DJ Kalima Limon eta DJ Juru & Piru. 23:30ean DJ Potota Frexko eta Flazido Fonki Txokoton.

**Uztailak 28,
igandea**

09:30ean diana. 11:00etan itzulia konpartsaekin. 12:00etan Elutxa txaranga herrian barna. 14:00etan zikiro jatea Iriarte pilotalekuan. **Ondotik** poteoa Elutxa txarangarekin. 16:30ean jokoak Jolastokirekin Pedro Axular karrikan. 19:00etan Bizphiru Pelau taldea plazan. 21:00etan mutil dantzak eta dantza herrikoiak plazan. **Ondotik** Bizphiru Pelau plazan. 00:00etan Gaixoa ni eta kalejira Elutxa txarangarekin. **Ondotik** DJ Piek plazan.



ONGI PASA BESTAK!

Maite Petirena

Aseguru agentzia

Allianz 

Saskaitz plaza · ELIZONDO
Tel. 948 452 394
teresa.petirena@allianzmed.es



ongi pasa bestak!

Dendako artikuluen likidazioa

deskontu handiak

H. LOPEZ

Erreforma integralak eta gremioen koordinazioa

Aire girotua · Tximiniak · Igerilekuen salmenta
Gas, gasolio eta biomasazko galdara eta berogailuak
Zeramika eta bainugelako altzarien salmenta

Santiago, 93 ELIZONDO - T. 948 452 126
info@honestolopez.com
www.honestolopez.com

ESKISAROI *Ongi pasa bestak!*
 J A T E T X E A
 T 948 580 013
 Jaime Urrutia 40 31700 Elizondo
 www.eskisaroi.eus


BRIKO BAZTAN, SL *Ongi pasa bestak!*
 Drogeria · Garbiketa produktuak · Ferretaria
 Sukaldeko tresnak · Mozorroak · Papertegia
 Kiroleko eta mendiko jantziak · Moda...
 T. 608 016 052 San Andres, 66 · NARBARTE

Belzunegui
 DESDE 1901
ONGI PASA BESTAK!
 Jaime Urrutia, 44
ELIZONDO
 Tel.: 948 580 056

BC BALLARENA
 ERAIKUNTZAK
ELEKTRIZITATEA
 Instalazio berriak | Berritzeak
 Argindar fakturan aurreztu nahi?

 delegatuak gara


ANZABAL
 INMOBILIARIA
 ZURICH ASEGURUAK
 www.anzabal.com Santiago, 15 ELIZONDO
 + 34 948 580 804


KULTURKARI
 Diseinu grafikoa | Publizitatea
 Zure jatetxeko diseinuarekin menuak, kartak, mahai-oihalak, musuzapiak, baso-azpikoak, etab. pertsonalizatzen ditugu
 kulturkari.com

LAN GUZTIETAZ
 ARDURATZEN GARA:
 teilatuak, zaharberitzeak, elektrizitatea, kalefakzioa, pladur lanak, iturgintza, etab.

 Mortero tematikoarekin fatxadak jantzi eta erabat itxuraldatzen ditugu aintzinako etxebizitzaren tradizioa mantenduz

 Abartan, 22 behea ELIZONDO
 T. 948 452 395 - M 647 688 988 / 647 688 982
 www.ballarenaconstrucciones.com


 Errotulazioan eta diseinuan aritzen gara.
 Egin nahi duzun proiekturako hainbat proposamen ditugu eskaintzeko, eta hori gauzatzen lagunduko dizugu.
 Kristalak tindatzea
 Autoak errotulatzeko
 Inprimatze digitala
 3Dko kartel argidunak
 Eranskailuak eta kartelak pertsonalizatzea
 Lokalak errotulatzeko
 Kanpo seinaleak
 Publizitate-olanak
 Bisita-txartelak, albaranak, etab.
 ☎ 948 58 09 77 ☒ 647 00 63 36
 Pol. Ind. Zaldubia, 1
 31730 Irurita (Nafarroa)

Ongi pasa bestak!!

BB BLOK BAT TALLERES
Cub Cadet
 Distribuidor oficial
 ENDURO SERIES™
 www.biokbat.com • ELIZONDO • Tel. (0034) 948 580 898

Gureaut
TAILERRAK

Mekanika, elektrizitatea, ibilgailuen salerosketa

ONGI PASA BESTAK!

Zaldubia industrialdea | 31730 Irurita
Tel.: 948 580 225 - M. 619 328 145
gureauto2@gmail.com

A. ETXEBERRIA
PINTURAK

fatxadak barnealdeak
etxebititzak

Ongi pasa bestak!

Akullegi, 6 - 31700 Elizondo
Tel (0034) 607 587 196
etxebeandoni@hotmail.com



Ongi pasa bestak!

lixue
GARBITEGIA

OSTALARITZARAKO ZERBITZUA	ORDUTEGIA
AUTOZERBITZUA	09:00-13:30 15:30-18:00

Santiago 94 - 96 - 31700 Elizondo
621 264 404
info@lixue.eus

ONGI PASA BESTAK!

Malkorra

Txokolatea urrakin egina
Tartak eta pastelak | Etxean egindako izozkia



Santiago, 15 | T. 948 580 061 | ELIZONDO
www.malkorra.com

«Berdintasuna lortzeko bidean bakoitzak bere ardura du»

GARAZI SAROBE SANSIÑENA BESTETAKO BRIGADA MOREA



«Feminismoan bizitzea gustuko duen neska». Horrelaxe aurkeztu du bere burua Garazi Sarobe Sansiñena elizondokoa. «Musika entzutea eta dantzatzea, maite dudak jendearekin egotea, lekuak ezagutzea eta etengabe ikastea» du zaletasun, berteak berte. Herriko beste begira, «bertzelako ilusiorik» egiten ez badiote ere, «seguruak diren espazioetan lagunekin gozatzea» du gustukoena. «Herriko jendea elkartu eta edozein zapalkuntza edota erasoren aitzinean borrokatzeko prest agertzea» egiten ditu berezi egun horiek; «mutil dantza berdinzaleetan dantzatzea, erasoen aitzinean antolatu eta elkartzea...» eta horregatik erabaki du aurten ere Brigada Morean parte hartzea.

Neska* eta emakumeen* mugimendua Elizondoko Brigada Morea egiten duten hirugarren urtea izanen da aurten, «orain arte arras tresna erabilgarria eta beharrezkoa izan da, eta ziur nago aurten ere hala izanen dela».

Berriki arte, «bestetan gerta zitezkeen eraso sexistak guztiak Puntu Morearen bitartez artatzen ziren, baina egun bakar batez egoten zen. Duela bi urte, ordea, Baztan Iñarrosiz taldeko kideok horri buelta emateko beharra sentitu genuen, alde batetik erasoak egun bakarrean artatzea ez zitzaigulakoz nahikoa iruditzen, eta bertzetik, erasotua guregana hurbiltzea hurbilagoa eta pertsonalagoa izanen zela pentsatu genuelako. Hori dela eta, gure errekurtsoekin brigada moduko bat osatzea erabaki genuen».

Lehenbiziko urtean «taldeko kideak bakarrik» antolatu ziren, «baina ia Berdintasun Batzordearekin eta Besta Komisioarekin elkartzea eta sarea zabaltzea erabaki genuen. Horrek, brigadako kide gehiago bermatzeaz gain, hainbat estrategia eskaini zitzaizkion; formakuntza eta jakintza, mugimendu feministan militatzen ez dutenen parte hartzea, ikuspegi zabalagoa... 55 bat lagun bildu ginen».

Azken finean, «Brigada Morea antolatzearen garrantzia hurrengo da: batetik, erasotua erasotzeko hurbileko akonpainamendu seguru eta erres-

INTZA
TABERNA

Ongi pasa bestak!

T. 948 580 417

BOKATAK
PINTXOAK
RAZIOAK



Mendi
ostatua



Enkarguak hartzen ditugu
bazkari eta afariak
Giro ederra!

T. 948 580 313

petutsua ziurtatzea, eta bertzetik, Baztango neska* eta emakumeen* artean sarea osatu eta elkarren artean ahaldundu eta zaintzea».

Gune seguruak helburu

Besta giroa «ez dela segurua» adierazi du, «espazio seguruak guk geuk sortu behar izaten ditugu. Eskualdean arras onartuak daude erasoak».

Izan ere, «eraso sexistak norbait bortxatzea edota bere baimenik gabe ukitzea baino aunitzez gehiago dira: mutil zein gizon aunitz taberna edo plazetan kamisetarik gabe egotea, tabernako espazio gehienak bereganatzea, pareta edo barra kolpatuz, oihu eginez, edo orangutanak bezala jokatzu. Begiradarekin deseroso sentiaraztea, familiako bazkarietan txiste misogino, homofobo edo tankerakoak egitea eta mutil dantzak elizako atarian dantzatzea ere erasoak dira. Zerrenda amaigabea da».

Azken batean, «gizon izateak suposatzen duen askatasunaren izenean nahi duzun guziaz egiteak, eta gainera zure kuadrillaren zein kuadrillakoak ez diren babesak izateak, ahalbidetzen du erasotzaileak egotea. Konplizerik eta konplizitaterik gabe, gauzak aunitz aldatuko lirarteke».

Protokoloa martxan

Erasoei erantzuteko, «hasteko brigada antolatzeke deialdia eginen dugu, eta protokoloa azalduko dugu. Taldea sortuta, bestetan brigada izanen dela helaraziko dugu, eta bestak hastean, kamiseta zahar, oihal zati, zapi edo edozein trapu more erraz ikusten den leku batean jantziko dugu».

Prestaketak eginda, «norbait guregana eraso bat salatzerik hurbildu arte itxarongo dugu, eta protokoloa martxan paratuko dugu». Bestak akitzean, berriz, «eraso guzien ana-

lisia eginen dugu eta erasoak jasan duenak nahi izanez gero, prentsaurreko, elkarretaratze edo dena delakoa antolatuko dugu».

Norbaitek protokoloaren berri izan nahi badu, «brigadaren hitzordueta- ra agertu edo gutako bati galde diezaioke. Baina hitz guttitan, protokoloaren helburu nagusia da erasotua- ren segurtasuna eta babesak bermatzea, uneoro bere erabakiak eta prozesuak errespetatuz».

«ERASOAK BORTXAKETAK ETA UKITZEAK BAINO GEHIAGO DIRA»

Herrigintzaren garrantzia

Erasoen prebentzioa eta horien aurkako erantzunak sustatzeko, Baztango Berdintasun Zerbitzuak formakuntzak eskaini ditu. «Arras garrantzitsua da denok saio hauetan parte hartzea, nahiz eta brigadan ez parte hartu, guttieneko ezagutza eta kontzientzia edukitzeko. Herritar guziaz animatu nahiko nituzke prozesuan bere aletxoak paratzera. Guri bereziki, protokolo osatuago bat gauzatzeko aukera eman digu, baita bertze herrietako errealitateak ezagutzeko eta elkar elikatzeko ere».

Herrigintzan aritzea inportantea da, «betiere kontzientzia minimo bat izanda eta barneratutako gauza aunitz deseraikitzeke prest baldin bazaudete. Berdintasuna lortzeko bidean bakoitzak bere ardura du eta beharrezkoa da norberak bere moduan parte hartzea, zapalkuntza eta eraso ororekin akitzeko!».



instalazioak
IGOGAILUAK

PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE LANAK

*Ongi pasa
bestak!*

1 KANPOKO IGOGAILUAK

Kanpoko fatxadan guztiz integratuak. Portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.

2 BARRUKO IGOGAILUAK

Eskailerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-aulkian daudenezako egokitua.



3 IRISGARRITASUNA

Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-aulkian daudenezako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.



EZ ZAITEZTE KEZKATU! Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, dirulaguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

Santiago, 73 | ELIZONDO | M 619 424 999 | suteia@suteiazaldain.com

ALMACO Eraikuntzako materialak

GRUP **GAMMA**



besta zoriontsuak pasa!

Errepide nagusia, Elizondo

Tel: 948 580 104

www.almacobaztan.com



<https://es-la.facebook.com/AlmacoBaztanElizondo>

«Bestetako kontzertuak arras harrera ona izaten du jendearen aldetik»

AMAIA BERTIZ GAZTELUMENDI ELIZONDOKO RECREO MUSIKA BANDA



Elizondoko 29 urteko neska gaztea da Amaia Bertiz. Musika du gustuko, eta Elizondoko Recreo musika bandan klarineta jotzen du gaur egun.

Musikarekiko zaletasuna

«Tikitatik» izan du etxean musika presente, «gurasoek beti eraman izan gaituzte gaitari eta txarangen gibeletik, eta musika emanaldi aunitzetara. Guttinaka-guttinaka zaletasuna hartu nuen, eta nik ere haietako bat izan nahi nuen».

Sei urterekin hasi zen musika eskolan ikasten, eta zazpi urterekin

hartu zuen klarineta; «adin hartan musika instrumentu aunitz erakutsi zizkiguten eta klarineta izan zen interes haundiena piztu zidana».

«Mota aunitzetako musika» aditzen du orain, «gehien bat rocka. Baina egia da musika mota hori haizezko instrumentu batean jotzea ez dela erraza, egokitzapenak lortzea edo egitea zaila delakoz». Hori dela eta, «jotzeko gehien disfrutatzen ditudan obrak pelikuletako soinu bandak dira».

Emanaldiz emanaldi

12 urte ingururekin erabaki zuen Bertizek Elizondoko bandan sartzea. Azaldu duenez, gaur egun, «45 bat lagunek osatzen dugu taldea, eta gehienok haizezko instrumentuak jotzen ditugu: tronpeta, tronboia, tuba, bombardinoa, tronpa, saxofoia, flauta eta klarineta». Baina noski, perkusioak eta hari instrumentuak ere bere lekua dute; «geroz eta instrumentu gehiago sartzen ari gara, lira adibidez, soinuan aberastasuna lortzeko».

Urtean hiru-lau emanaldi egiten dituzte: «Eguberrietako kontzertua, udaberrikoa, bestetako kontzertua eta, aukera dugunean, Nafarroaren egunean ere emanaldia egiten →

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE abokatua



Dibortzioak, herentziak, alokairuak, alkoholemiak...
T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

Ongi pasa bestak!

Juli Ostaturia

Gosariak · Bazkariak · Afariak
Etxeko Janaria

Giltxaurdi 6, Elizondo.

948 452 462



Albaitaritzza

www.albaitaritzza.com

Tlfno.: 948 580 980

Materiala

Botika

Hazia

Osagarri mineralak

Bildots eta aratxeendako esnea

Xaboi eta desinfektatzaileak



Zaldi eta zaldi-zaleentzako produktuak

Albaitack

www.albaitack.com

Tlfno.: 948 506 169



Tfnoa.: 902 169 169



www.albaikide.com

Albaitari zerbitzua

ONGI PASA BESTAK!



LABORRA ARKITEKTOAK
- Gabriel & Ines -

www.laborra.com

gabriel@laborra.com
Santiago 66, 1º ELIZONDO 948.580.122



arteka
arkitektura arquitectura

Tel. 948580610 Plaza. Dr. Balda 1-. 1. A
info@artekabaztan.com 31700. Elizondo Baztan

www.artekabaztan.com

LA BAZTANESA S.A



Tel: 948 580 129
autobuses@labaztanesa.com

ferreteria
Quevedo
burdindegia



Santiago, 31 ELIZONDO (Nafarroa)
Tel.: 948 580 234
info@ferreteriaquevedo.com
www.ferreteriaquevedo.com



dugu». Horrez gain, «egun berezietan ere karrikara ateratzen gara, adibidez, Olentzero eta errege egunetan».

Bestetako kontzertua «berezia» dela azaldu du, «harrera arras on izaten du publiko aldetik eta hori aunitz gustatzen zaigu». Hala ere, «niri gehien gustatzen zaidana udaberrian egiten duguna da. Duela urte batzuk gai desberdinak aukatzen ditugula kontzertua horretan oinarritzeko, eta horrek bizitasuna ematen dio».

Baina kontzertuen aitzinetik, doike, ongi prestatu beharra dago. «As-tean bi orduko entseguak egiten ditugu urte osoan, nahiz eta bestak pasatuta atsedenaldia egiten dugun irailera arte». Etxean, berriz, «gazteago nintzelarik arduratsuagoa izaten nintzen ordutxo pare bat praktikatzeko, baina egia da orain ez dudala denborarik hartzen horretarako, eta taldean entseatzeko dugunean, horren falta nabaritzen dut».

Bestetarako prest

«Gogo haundiarekin» bizitzen ditu Bertizek Elizondoko bestak; «kuadrillarekin elkartzea eta urtean guti ikusten dudan jendearekin egotea aunitz gustatzen zait. Herriko bestak beti dira bereziak, eta adin eta interes guzientzako ekintza aunitz antolatzen dira».

Ttikitatik oroitzapen «arras onak» ditu, «buruhaundien aitzinetik lasterka ibiltzea, gurasoen lagunekin egiten genituen afarietan petardoak eta suzko bolkanak botatzea...». Gaur egun, berriz, «zikiro eguna da gehien gustatzen zaidana, bai bazkaria eta baita txarangarekin herri-tik ematen dugun buelta ere».

«TTIKITAKO OROITZAPEN ARRAS ONAK DITUT BESTETAN»



ELIZONDO

Foru plaza, 3
ELIZONDO
T. 948 580 005



Astelehenetik larunbatara 09:00-21:00

BEAARRAINDEGIA

esarte



ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA



elicetxe
suministros electricos

material elektrikoak

ongi pasa bestak!

Tel. 948 581 261 Faxa: 948 452 397
Santiago, 83 Ind. · ELIZONDO
elicetxe@elicetxe.es
www.elicetxe.es




HOSTAL ANTXITONEA

23 LOGELA

BAINUA | AIRE GIROTUA | TB
WIFI | APARKALEKU PRIBATUA
GOSARIAK | AFARIAK

Herri erdi erdian, Baztan errekaaren ondoan

Braulio Iriarte, 16 ELIZONDO 948 581 807 hostal@antxitonea.com www.antxitonea.com



HOTEL TRINKETE ***

20 LOGELA

BAINUA | AIRE GIROTUA | TB
WIFI | GOSARIAK | AFARIAK



Autxitxia
GASNATEGIA · QUESERIA

Bertan egindako ardi gasna

- Behi eta ahuntz gasnak saltzeko
- Zenderena
- Gaztanbera

Ongi pasa Bestak!

Jaime Urrutia, 32 - ELIZONDO
848 45 57 30
autxitxia@gmail.com





asegi asesorias
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 · F. 948 580 648	Eztegara pasealekua, 22 31780 BERA T. 948 631 108	Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 · F. 948 451 304	Eltzeta, 20 31770 Lesaka T. 948 638 077
---	---	---	---



erran.
eus




mañonea
ASEGURUAK AGENTZIA

ASEGURUAK
GENERALI

www.mañonea.com

Kontable, zerga, lan eta juridiko
AHOLKULARITZA
Barride **KOMUNITATEEN KUDEAKETA**
(administrazioa, kontuak, obra...).

Braulio Iriarte karrika, 9
ELIZONDO BAZTAN - NAFARROA
T. 948 58 11 32 - 606 89 68 43
info@mainonea.com

ONGI PASA BESTAK!



AXULAR

Fotokopiak, faxes, enkuadernazioak, plastifikazioak, aldizkariak, prentsa, tabakoa eta testu liburuak ekartzen dira enkarguz



Ongi pasatu herriko bestak! eskermile urte guzian bezero izateagatik

Santiago · ELIZONDO · T: 948 581 507

Ongi pasa bestak!



helvetia
ASEGURUAK

Tratu pertsonala,
zure beharrianak asetzeko,
konpromisoa eta segurtasuna,
persona erabakigarriak.

Santiago, 78 - ELIZONDO
T. 948 45 25 29 - M. 628 35 71 38
jfagoagaleiza@gmail.com

JOSEPHINE'S
20 ENGLISH 13
BAZTAN

Pedro Axular karrika, 2 Elizondo

Ongi pasa bestak!

IRAKASLE NATIBOIA

2024-2025 MATRIKULA IREKITA
Lehen Hezkuntza, DBH,
Batxilergoa (B1, B2) eta Helduak

Christina Irigoyen ☎ 637 176 572 ✉ josephinesenglish@gmail.com

Natura Elxea
BELAR-DENDA ETA DIETETIKA

ONGI PASA BESTAKI

SANTIAGO, 47 ELIZONDO T. 948 580 203

Goizalde ostatua

Ongi pasa bestak!!

Pintxoak
Eguneko menua
Karta
Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Entsaladak
Hamburgesak
Errazioak

Jaime Urrutia 8 - ELIZONDO - Tel.: +34 948 58 13 34 - goizaldeostatua.com

«Herritar bat gehiago sentitzen naiz eta irrikan nago txupinazorako»

ION ALBIZ ETA OIHANE SAGARDIA BENITO MENNI

Joan den urtean Benito Menniko erabiltzaile batek bota zuen bestetako txupinazoa lehenbiziko aldiz. Oihane Sagardia gizarte hezitzaileak azaldu duenez, «emozioz betetako esperientzia izan zen; urdurasuna, alaitasuna eta harrotasuna izan ziren nagusi. Besten parte aktiboa izateaz gain, arreta gune izan eta komunitatearen errekonozimendua jaso zuen, inklusiorako pauso garrantzitsu bat emanez».

Aurten ere egoiliar batek botako du txupinazoa: Ion Albizek. «Aunitz gustatzen zaizkio bestak; lehenbiziko egunetik azkenekora zapia jantzi eta ilusio eta gogo haundiarekin bizitzen ditu. Hori dela eta, aukera ematea aproposa iruditu zitzaigun». 27 urte daramatza Albizek Elizondon bizitzen; «zentroan gehien eramaten duen erabiltzaileetako bat da».

Bestetarako gogotsu

«Mutil leiala, langilea eta alaia, ondokoa laguntzeko beti prest». Horrelaxe definitu du bere burua Albizek. Futbola ikustea gustuko du, «Osasuna eta Baztan taldeak» batez ere, eta «aunitz disfrutatzen dut Elizondoko karrketan paseatzen eta ostatuetan zerbait hartzen».

27 urteren ondotik, «baztandarra sentitzen naiz, eta niretako, Elizon-



doko bestak, nire herriko bestak dira». Egun horietan dena gustuko du; «alde batetik, urte guzian gutti ikusten duten herritarrekin topatzea eta solastatzea polita iruditzen zait. Bertzalde, erraldioak eta buruhaundiak aunitz gustatzen zaizkit, baita dantzaldiak ere. Gainera, Baztango janari tipikoarekin aunitz disfrutatzen dut, zopekin batez ere».

«Arras kontent» dago txupinazoa botako duelako; «erran zidatenean ezin nuen sinestu, harro eta pozik sentitu nintzen. Eskerrak eman nahi dizkiet aukera hau eman didaten guziei. Arras gustura bizi naiz hemen eta aukera hau bizitzeko irrikan nago. Gora Elizondoko bestak!».

Zurri
Esterika-zentroa
Edertasuna eta teknologia

ONGI PASA BESTAK!

Santiago, 59 behea - Elizondo
Tel. 948 10 32 00
M. 676 14 00 81

• Drratzik gabeko infiltrazioa
• Zahartzearen kontrako tratamendu ez inbaditzailea
• Larruazalaren gaztetzea
• Garbiketa sakona
• Hidratazioa eta esfoliazioa
• Akne aktibo eta handituarentzako tratamendua

• Vform aurpegiko tratamendua
• "Impulsos de Juventud"

LABAYEN OSTATUA

Etxeke janari goxoa Zatozte! eta on egin!

Santiago · ELIZONDO
948 580 338

ONGI PASA BESTAK!

Zaindu maite duzun hori...

Zein da zuzena?

'*2 zm' edo '2 cm'?

* Izartxoaren dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Sinboloak idazterakoan, euskaraz ere nazioarteko arauak bete behar dira, eta hala bilduak daude *Euskaltzaindiaren Hiztegiari*.

-Nazioarteko grafiaz: cm/*zm

-Punturik gabe: min/*min.

-Dagokien moldean, hau da, letra xehez (milimetro: *Mm >mm edo letra larriz (megametro:*mm >Mm).

-Aitzinean hutsunea dutela: *2kg > 2 kg

Zenbakia letraz adierazten bada, ez da sinboloa erabili behar, unitatea baizik:

-*Hiru kg-ko pisua > hiru kilogramoko pisua

Zenbakia sinboloaren aitzinean idazten da: luzera: 5 cm [bost zentimetro]; abiadura: 6 m/s [sei metro segundoko]; tenperatura: 20 °C [hogei gradu]...; 2 kg-ko pisua [bi kilogramoko pisua].

Zenbakia bat denean eta digituz emana, aitzinean idazten da (baina ez da aitzinean irakurtzen): 1 € ordaindu behar du [euro bat ordaindu behar du].

Bertze aldetik, marratxoetan erabiltzen zaie aldian aldiko kasu atzizkia, eta unitatea hartu behar da aintzat, ez sinboloa: 50 kg-ko (kilogramoko edo kiloko) karga; 40 dB-etik (dezibeleatik) gorako zarata; 6 m/s-tik 4 m/s-ra (segundotik segundora) aldatu da.

Salbuespena bat zenbakia da: 1 m-eko (bateko) distantzia; 1 €-en (baten) orde. Zenbat balio du 1 kg-ek? [kilo(gramo) batek?].

Nola erran?

Fenomeno fonetiko seinalatua da euskaraz *i* bokalaren ondorengo soinua automatikoki sabaikaritzea (palatalizatzea); alegia, *itsu, itsaso, isil, maisu, isuri...* idazten direnak [itsu, itxaso, ixil, maixu, ixuri...] erratea; baina idatzi beharrekoak fonemak direnez, lehenbizikoa da idazteko modu zuzena. Hala ere, *itxaropen* eta *gaixo* dira forma gokiak.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61

Osatu erran zaharra

Aresoko Mendi Martxa antolatzen hasi dira herritarrak

Irailaren 1ean, igandean, egingen dute hamabosgarren edizioa izango dena

ENERITZ IRAOLA

Ekainean egin zuten Aresoko Mendi Martxa antolatzeko lehenbiziko bilera eta dagoneko lantaldea martxan hasi da. Beti bezala, iraileko lehenbiziko igandean egingo dute hitzordua eta mendizaleek 23 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Hamabosgarren edizioa izango da aurtengoa eta martxaren bukaeran, mendizaleek hainbeste eskertzen duten paella jateko aukera ere izango dute.

Aresoko plazatik abiatuko da mendi martxa eta Ulimen-

diko bidea hartuko dute Uli-zarko gainera ailegatu aurretik. Handik aurrera Merkuze-lai, Urkita, Pagozelai eta Guratzetik pasa beharko dute mendizaleek. Proba ez da lehiakorra izango eta antolatzailaileek zailtasun ertainekoa dela adierazi dute.

Izen-ematea

Eguna baino lehenago izena eman nahi duenak online egiteko aukera izango du hamabost euroren truke eta egunean bertan ere modua izango da, hogei eurotan.



NAZABAL ESKOLA

Eskolako azken egunean firin-faran

Ikasturteko azkeneko egunean ez zuten eskola barruan denbora gehiegirik pasa Nazabal eskolako ikasleek. Irteera egin zuten Bertizko natur parkera. Altxorren bila jolas egin zuten bertan eta bertako espezieak ezagutuz, goiz-pasa polita egin zuten.



JAIONE OLAZABAL

Euria ez da festarako traba izan

Ekaineko azken asteburuan, euria goian behean egin arren, festa girorik ez zen falta izan herrian. Aterkipean edo etxeetako egonaldia zertxobait luzatuz, baina Lagunarteko kideek eskea egin zuten. Festa herritar guztiei zabalduz, sagardo dastaketa eta herri afaria ere egin zituzten larunbatean.



BEA MUÑO

Suaren txinparta gaurik motzenean

Guraso elkarteak prestatutako ekitaldiekin, festa giroan ibili ziren haur eta gaztetxoak arratsaldean. Tartean, magia ikuskizuna ere izan zuten. Gero, elkarrekin afaldu zuten herritar guztiek eta suak piztuta, gainetik saltoka ibili ziren, txarra den guztia atzean utziz.

Festetako otorduetako tiketak plaza zaharrean salduko dituzte

ENERITZ IRAOLA

Lagunartekoek sanpedroetan egin duten bezala, herriko festetako otorduetarako txartelak plaza zaharrean saltzeko asmoa dutela jakinarazi dute. Horretarako, egun eta ordu zehatz batzuk aukeratu eta abisua pasako dute. Egun ho-

rietatik kanpo txartela erosten dutenek garestiago ordaindu beharko dute.

Abuztuaren 14an guraso elkarteok prestatuko dute festetako lehenbiziko afaria. Abuztuaren 18an, berriz, herri bazkaria izango da eta Sarayola catering arduratuko da.

Karmen bezperako festa ospatuko dute uztailaren 15ean

Herri afaria egingen dute, jatekoa norberak eraman beharko du etxetik eta beste gutzia Umore Onaren kontura izanen da

TTIPI-TTAPA

Hutsik egin gabe, Karmen bezperako festa antolatu du aurtengoan ere Umore Ona elkarteak, Goizuetako Udalak eta Ikastola Batzordeak lagunduta. Uztailearen 15ean, astelehenean, izanen da ospakizuna eta 21:00etan afaria egingen dute plazan. Eguraldi txarrarekin elkartean egingen lukete afaria. Beste urteetan bezala, Umore Ona Elkarteak jarriko ditu afarirako oinarriko bitartekoak: mahaiak, aulkiak, platerak, kubiertok, basoak, serbilletak, sagardoa

eta ardoa. Jatekoa norberak eraman beharko du etxetik. Afalondoan, 22:30 aldera, sua piztuko dute eta, animatzen direnek, su gainean saltoka ibiltzeko aukera izanen dute. Horrekin lotuta, Umore Ona Elkarteak argi utzi du ez dituela bere gain hartuko gerta daitezkeen ezbeharrak.

Bide batez, Umore Ona Elkarteak goiko lokala erabilgarri dagoela jakinarazi du. Ur-jarioa izan zuten duela gutxi eta konponketak egin bitartean beheko solairua bakarrik egon zen erabilgarri.



ELENA IRIGOIEN

Herrian lan eta bizitzeko aukerak aztertuz

Herriz herriko bilera errondarekin segitzen dute Cederna Garalurreko teknikariek eta Olatukoopeko kideek. Uztailearen 2an Goizuetako udaletxean egin zuten saioa Arano eta Goizuetako herritarrekin. Herri bakoitzeko errealitatea ezagutu eta beharretatik, aukerak sortzea da asmoa.



NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA

Alize Sagardui Espainiako txapeldun

Umore Ona Elkarteko Alize Sagardui pilotariak Espainiako Federazioen Arteko Pilota Txapelketan parte hartu zuen ekaineko azken asteburuan. Infantil mailan aritu zen eta urrezko domina eskuratu zuen. Nafarroako selekzioak irabazi zituen zazpi dominetako bat izan zen berea.



UTZITAKO ARGAZKIA

Lujanbio garaile Milagron

Nafarroako hegoaldetik ekarri du azken garaikurra Hodei Lujanbiok. Trail La cereza lasterketan parte hartu du eta gorputzari azken estutua emanda, orain arteko garaipen sortari beste bat gehitu dio. Urte erdia osatuta, ongi merezitako opporralditxoa hartzeko asmoa omen zuen.

Liburutegi ibiltaria uztailaren 26an etorriko da Goizuetara eta Aranora

TTIPI-TTAPA

Liburutegi ibiltariak urte osoko martxarekin segi eta uztailean ere bisita egingen du Arano eta Goizuetara. Horrela, Leitzako liburutegira liburu eske joan beharrik gabe, herrian bertan, udan irakurtzeko liburuak maileguan har-

tzeko aukera izanen dute herritarrek. Uztailearen 26an, hilabeteko azken ostiralean, 11:30etik 12:30era egonen da Goizuetan eta 13:00etatik 13:30era Aranora. Orain arte bezala, eskaerak liburutegira mezu bat bidalita egin daitezke.



Ikasleak eta irakasleak Anizko Jauregia Esnekiak-en. ARANTZAKO ESKOLA

400 ikasle eta irakasletik goiti Lurretik Ikasiz-en

Baztango, Bortzirietako eta Xaretako zazpi ekoizleek parte hartu dute, eta heldu den urtean segida emateko asmoa dute

TTIPI-TTAPA

Elikadura, ekoizpena eta hezkuntza uztartzeko asmoz, Lurretik Ikasiz proiektua garatu dute ikasturte honetan Baztango, Bortzirietako eta Xaretako zazpi ekoizleek. Euren etxaldeenak lan egiteko moduak ikas-tetxeetako haurrei eta gazteei erakusten aritu dira eta «balo-

razio positiboa» egin dute, «20 bat bisita eskaini ditugu eta 400 ikasle eta irakasle baino gehiagok eskualdeko ekoizpen proiektuak bertatik bertara ezagutu dituzte». Heldu den ikasturtean ekimenari segida emanen diote: «elikadura iraunkor baten inguruko lanaketa ohitura bihurtuko den esperantzaz».



Ekainaren 27ko prentsaurrekoan izan ziren sindikatuetakoko ordezkariak.

Unibertsitatetik kanpoko irakasleak grebara deitu dituzte irailaren 26rako

TTIPI-TTAPA

«Zer nahi dute 24/25 ikasturtea benetako negoziazioekin hasi, hau da, irakasleen aldarrikapenei erantzunez, ala ikasturte gatazkatsua?». Carlos Gimeno Hezkuntza Kontseilariari eta Nafarroako Gobernuari zuzenduz, galdera hori egin zuten ekainaren 27an, Hezkuntzako Negoziazio Mahai Sektorialeko sindikatuek: Steilas, LAB, ELA, Anpe, Afapna, CCOO eta UGT.

«23/24 ikasturtean, negoziatzeko prest» izan direla adierazi zuten: «Hezkuntza publikoko irakasleentzat hobekuntzak lortzen saiatu gara, baina ez da

gutxieneko aldaketarik izan». Kontseilariak eta Nafarroako Gobernuak «gure eskaerei benetako prestutasunez erantzutea» nahi dute. Euren hitzetan, «Hezkuntza Departamentuarekin egindako bilera guzietan erantzun bera hartu dugu: aurrekonturik ez dagoela». Hala, irailean 2025erako Nafarroako aurrekontuekin lanean hasiko direla eta, «irakasleen aldarrikapenei erantzuteko partidak eskatuko ditugu» eta ikasturte hasieran «mobilizazioak ugarituko» dituzte. «Irailaren 26ko greba egunean, hezkuntza sistema publikoa geldituko dugu».

Eskualdean izandako eraso matxistak gogor salatu dituzte herritarrek

TTIPI-TTAPA LESAKA

Eraso matxistagatik Nafarroan zazpi gizonezko atxilotu zituzten ekain hondarreko asteburuan, eta horietako bi eskualdean: Lesakan eta Baztanen.

Bada, eraso horiek salatzeo elkarretaratzea egin zuten uztailearen 2an Lesakan Xulufriñak Lesakako Sare Feministak eta Marrako Bortzirietako Gazte Feministen taldeak deituta.

Batetik, «babes osoa» adierazi nahi izan zieten «edozein motatako eraso edo jarrera matxistak izan dituzten edo izaten dituzten emakumeei*». Horrez

gain, «gertatutako eraso matxistak ez direla gertaera isolatu eta bakanak» oroitarazi zuten. «Maitasun erromantikoa eta hortik eratorritako harreman toxikoak indarkeriaren sustaile direla» ere aipatu zuten, eta erasotzaileei «erabateko arbuioa» adierazi zieten. Azkenik, «elkar-zaintzan oinarrituriko harreman sare sano eta parekideak eraikitzea denon ardura» dela azpimarratu zuten.

Lesakako Udalak ere gogor salatu zituen erasoak, «emakumeen kontrako indarkeria giza eskubideen bortxaketa larria»



Uztailearen 2an jende aunitz bildu zen Lesakan erasoak salatzeo. IRANTZU PASTOR

dela erranez. «Berdintasunean oinarritutako eta bidezkoa izanen den gizarte bat eraikitzeo lanean segitzea beharrezkoa» dela iritzita, adierazpen instituzionala onartu zuen; bertzeak

berzte, «erasoa sufritu duen emakumeari babes eta elkartasunik zintzoena» helaraziz eta «herritarrei 'zero tolerantzia eta zero inpunitatea' jarrerari eusteko» eskatuz.

«Nafarroan herri kirolak garatzea eta sustatzea da gure helburua»

ARANTXA ARIZTEGI ETA JON TELLETXEA NAFARROAKO HERRI KIROL FEDERAZIOKO KIDEAK

Sunbillan izan du bere egoitza Nafarroako Herri Kirol Federazioak azken 26 urteetan. Doneztebera lekualdatu dira berriki eta aitzakia baliatu dugu beraiekin iraganaz, orainaz eta etorkizunaz hitz egiteko.

ENERITZ IRAOLA SUNBILLA

1991. urtean sortu zuten Nafarroako Herri Kirol Federazioa. Ordura arte, plazetan jokatzeko zitzuten herri kirol txapelketa eta apustuak arautzea zen helburua: «beste kiroletan bezala arautegi baten barrenean aritzea». Donezteben ireki zuten lehenbiziko egoitza eta 1998ko urrian lekualdatu ziren Sunbillara. Hogeita sei urte egin dituzte bertan eta duela gutxi, Doneztebera bueltatu dira. Habia tokiz aldatu badute ere, argi dute zein den beraien apustua: «herri kirolak bizirik mantentzea».

Nola laburtuko zenukete urte hauetako jarduna?

Federazioan bertan, gorabehera ugari izan ditugu. Momentu txarrak izan dira. 2013an dirulaguntzak nabarmen murriztu zituzten eta geroztik ekonomikoki egoera larriak pasa izan ditugu. Urte batzuetan doi-doi biziraun du. Pandemia garaia ere ez zen batere erreza izan eta 2021eko uholdeak ere kolpe latza izan ziren. Oztupo guztien gainera, ilusioz eta esperantzarekin aurrera egitea lortu dute eta horretarako ezinbestekoa izan da urte hauetan guztietan egon diren zuzendaritza batzordeetako kideek egindako lan boluntarioa.

Zenbat pertsona ari zarete federazioan lanean?

Langile bezala ni, Arantxa, bakarrik nago. Zuzendaritza batzordea bederatzita pertsonak



Herri Kirol Federazioko zuzendaritzako kideak eta Juan Luis Altzugarai. M. PETRIRENA

osutzen dute eta boluntario moduan lanean ari dira: Jon Telletxea, Patxi Larretxea, Lander Sein, Irune Biurrun, Nerea Sorondo, Peio Kañameres, Pello Telletxea, Unai Bertiz eta Urko Gastearena.

Gaur egun zein da egoera?

Garai txarrak pasata, pixkanaka, ekonomikoki egonkortzen ari gara. Kirol aldetik ere kontent gaude. Nafarroako Kirol Jokoetan inoiz baino kirolari gehiago aritu dira aurten. Egia da Kirol Jokoetatik helduen txapelketetara salto handia izaten dela eta aunitzek ez dutela jarraitzen, baina azken urteotan gazte mailakoentzat txapelketak antolatzen ere hasi gara eta poliki-poliki gazte gehiago animatzen ari dira.

Hirugarren mailako Aizkolari Txapelketan hamahiru parte hartzaile izanen dira aurten eta horietatik asko oso gazteak dira. Hori seinale ona da. Hala ere, badira modalitate batzuk jendea animatzea gehiago kostatzen direnak: sega, lasto altxatzea... Orokorrean, adierazgarria da herrikirolek sortzen duten interesa. Nahiz eta landa eremu edo herri txikietara mugatutako lanetatik ateratako kirolak izan, hirietatik ere geroz eta parte hartzaile gehiago animatzen dira. Federazioaren erronka, orain arte bezala, kirol hauek mantentzen jarraitzea da eta ahalik eta hobekien egiten saiatzea.

Emakumeen parte hartzean ere izan da aldaketa?

Gauzak asko aldatu dira. Duela 20 urte lizentzia guztien %27a bakarrik ziren emakumeak eta 2023. urtean aldiz, %43a. Zentzu honetan datuak oso onak dira. Modalitate gehienetan emakumezkoen txapelketak antolatzen baditugu ere, badira batzuk antolatu ezin ditugunak, parte hartzaile faltagatik (harri jasotzea eta lasto altxatzea erraterako). Orokorrean uste dugu pozik egoteko motiboa badugula azken urteotan dauden fitxa kopuruakikusita. **Hogeita sei urtez egon zarete Sunbillan.**

Bai, eta elkarrizketa aprobetxatu nahiko genuke eskerrak emateko Sunbillako Udalari eta herritarrei, modu batean edo bertzean eman diguten laguntzagatik. Nabarmendu nahiko genuke 2021eko uholdeetan herritarrengandik jaso genuen laguntza. Federazioaren egoitza 26 urtez egon da bertan eta Juan Luis Altzugarai lokal horren nagusiari ere eskerrak eman nahi dizkiogu urte hauetan guztietan eskaini digun laguntzagatik eta bere eskuabaltasunagatik. Oso eskertuak gaude, benetan, beti prest egon delako laguntzako.

Sunbillak lotura berezia du herri kirolekin?

Sunbillan beti egon da zaletasuna eta herrikirolek garrantzia handia dute bertan. Hiru aizkolari handi izan ditu herriak: Latasa, Arretxea eta Etxeberría. Unai Bertizek zazpi aldiz irabazi du Nafarroako harri jasotze txapelketa da eta bi aldiz gurdi altxatzekoa. Hainbat txapelketan aritu diren kirolari sunbildar gehiago ere badira. 90. hamarkadaren hasieran sokatira eta konbinatuko taldea ere bazuen Sunbillak eta talde honek txapela lortu zuen behin baino gehiagotan. Gaur egun herriko gazteek ere herri kirol saioak antolatzen dituzte bestetan eta azken bi urteetan Nafarroako Herri Txapelketan ere parte hartu dute eta ezin aipatu gabe utzi, urtero abuztuan antolatzen duten Ramon Latasa Saria.



Baztandarren Biltzarra elkarteko kideak eta Saioa Ligos elizondoa, aurtengo kartelaren egilea. R. OSKARIZ

Ate joka da 61. Baztandarren Biltzarra

Hamabortz herriak elkartuko dituen besta ospatuko dute uztailaren 21ean Elizondon, eta antolatzaileak nahiz herritarrak prestaketa lanetan ari dira buru-belarri. Azken urteetan organ desfilean garaipen gehien lortu dituzten bi herriko gazteen testigantzak bildu ditu TTIPI-TTAPAK

R. OSKARIZ

Hemen dugu Baztandarren Biltzarren 61. edizioa eta elkarteko kideen erranetan, «nabariak dira urduritasuna eta gogoia. Urte batez gehiago bizirik dirauen besta honetan azpimarratzekoak dira elkartasuna, auzolana, identitatea eta nola ez, euskara». Uztailaren 21ean ospatuko da besta eta urteroko egitaraua izanen du: organ desfilea eta artisauen azoka, bazkaria eta bazkalondoko dantzaldia.

Gainera, «aurten ere besta seguru baten alde egingen dugu, protokolo feminista batekin eta herritarron konpromisoa eraikiz. Brigada Morea izanen da Baztandarren egunean eta baita aitzineko gauen ere. Animatu besta eredian normalizatuak dauden hainbetez jarrera bortitz birpentsatzera

eta nahi dugun moduan janzteko aukera izatera. Gona edo galtza, garrantzitsuena elkarrekin errespetuz jokatzeara».

Horrez gain, erabakia hartzean «karrikako erranak eta galdetegiaren atera ziren proposamenak» kontuan hartu ditu elkarteak. Hori dela eta,

BRIGADA MOREA IZANEN DA EGUNEAN ETA BEZPERAN

AUZOLANETAN PARTE HARTZERA ANIMATU DITUZTE HERRITARRAK

herriek egin ohi duten ostatu txandak kentzea erabaki dute, eta horren ordez, herri bakoitzaren ardura izanen da bazkariko mahaia biltzea.

Azkenik, «besta aitzinera ateratzeko egiten diren auzolanetan parte hartzera» animatu dituzte baztandar guztiak.

Desfilerako prest

Baztandarren Biltzarrek ekitaldi nagusirik badu, hori organ desfilea da. Lan ederra egiten dute herri guzietan organa prestatzeko, eta emaitza Elizondoko karriketaren ikusten da. Eta doike, elkarteak organ hoberenak sarituko dituzte aurten ere. Horretarako, sei irizpide kontuan izanen dituzte: originaltasuna, euskararen erabilera, genero ikuspegia, janzkera eta antzerkia, animalien zaintza eta antolakuntzarekiko errespetua.

Azken hamar urteetako irabazleei begiratuta, bi herri nagusitu dira bertzeen artean; Zigak eta Gartzainek lortu dituzte garaipen guztiak. Zein herri gailenduko da aurten?

2014-2023 urteetako irabazleak

Urtea	1. saria	2. saria	3. saria
2014	Gartzain	Berroeta	Elbete
2015	Gartzain	Elizondo	Elbete
2016	Gartzain	Berroeta	Elbete
2017	Ziga	Gartzain	Berroeta
2018	Ziga	Gartzain	Elbete
2019	Ziga	Gartzain	Berroeta
2022	Ziga	Gartzain	Elbete
2023	Gartzain	Ziga	Elbete

«Lanak banatzen ditugu eta bakoitzak ahal duena egiten du»

ANDONI GALARREGI ALEMAN GARTZAINGO GAZTEA

Gartzainen bizi den 25 urteko gaztea da Andoni Galarregi, eta beretako, «Baztandarren Biltzarra arras egun seinalatu da. Lan aunitz egin behar den arren, aunitz disfrutatzen dugu. Urte guzian egun horren zain egoten gara».

Ttiki-ttikitatik bizi izan du eguna: «betitik ezagutu dudan ohitura da, eta hamar urteak arte herriaren kartela eramaten ibiltzen nintzen». 13-14 urte zituela, berriz, orgarekin laguntzen eta desfilean parte hartzen hasi zen, «eta geroztik urtero ateratzen naiz desfilean parte hartzera.»

Orga prestatzen hasteko, «normalean hilabete bat lehenago elkartzen gara ideiak partekatzeke, gaia aukeratzeko eta materiala biltzen hasteko». Baina, aitortu duenez, «lan gehiena azkeneko astean egiten da». Orokorrean, lehenbizi lagun gutti biltzen gara, eta azken egunetan gehiago elkartzen gara, orga akitu eta arropak zein materialak biltzeko. Lanak banatzen ditugu, eta bakoitzak ahal duena egiten du».

Orga egiteak lana eskatzen badu ere, ideia pentsatzea ez da lan makala. «Urtero gaia



FESTAK.COM

pentsatzea arras zaila egiten zaigu. Gai berria edo oraindik egin ez den zerbait egitea izaten da gure helburua. Gaia pentsatzea da zailena, baina pentsatutako ideia guziaz batean adierazteak du lanik haundiena».

Azken urteetan lortutako emaitzekin «arras kontent» daude; «egindako lanak merezi duela ikusi dugu». Hala ere,

«irabazteko, ez dago sekreturik: lan txukuna egitea eta detaile guziaz kontuan izatea da guretzako garrantzitsua».

Gartzainek azkeneko urteetan egindako orga guziaz gustuko baditu ere, «lehenbiziko aldiz irabazi genueneko orga nabarmenduko nuke, lehenagoko baserriko lanei buruzkoa».

Aurten ere desfilean aterako dira, eta prestatzen hasiak dira horretarako. Hala ere, «geroz eta zailagoa da elkartzea, lan eta ordu aunitz eskaini behar zaizkio eta bakoitzaren bizitzarekin bat egitea ez da erraza».

Zailtasunak zailtasun, egun haundirako gogotsu dago Galarregi, eta argi du zer egingen duen: «goizean goiz elkartu eta azken prestaketak akitu, Elizondoko buelta egin, eta eguna besta eder batekin akitu!».

«Orgaren prestaketak herria bizirik dagoela erakusten du»

XABI ETA AMAIA SARRATEA URRUTIA ZIGAKO GAZTEAK

25 eta 29 urteko anai-arreba zigatarrak dira Amaia eta Xabi Sarratea. Ttiki-ttikitatik bizitu izan dute etxean Baztandarren Biltzarra, «ez da urterik izan orgarekin edo desfilean parte hartu ez dugunik; kartela eramaten, antzerkian parte hartzen, trikitixa jotzen, trakto-rean... beti saltsan ibili gara». Izan ere, «besta arras berezia da, adin guzietako jendea elkartzen duena eta Baztango bizipenak ezagutzeko aukera ematen diguna».

Etxeko atean egiten dute urtero herriko orga, eta beti izan dira esku bat botatzeko prest, «ttikiak ginelarik bazte-

rrak nahasten laguntzen baino gehiago, segur aski».

Azaldu dutenez, «normalean hilabete bat edo hiru aste lehenago hasten ditugu prestaketak». Baina ez da beti hala izaten, «helikopteroa egin genuen urtean hilabeteak lehenago hasi izan ginen, eta 50. urteurrenean, eliza egin genuenean, maiatza aldera».

Azken urteetan «lan talde polita osatu dugu eta lanak banatzen ditugu. Batzuk artistak dira orga eraikitzen eta bertzeak hobeki moldatzen dira sormen lanetan (antzerkia, kartela, janzkera...) edo materiala eta informazioa biltzen».



UTZITAKOA

Hala ere, orgarako ideia originala pentsatzea «geroz eta zailagoa dela» aitortu dute, «urte aunitz dira besta ospatzen dela eta urtero herri bakoitzak istorio desberdina kontatzen du. Pentsatzeak buruko min aunitz ekartzen dizkigu baina, ideia izanda, gogotsu aritzen gara lanean. Herriko helduen bizipenak gogoz aditzea nahikoa da errepresentazio polita egiteko».

Eta lanaren emaitzak ezin hobeak izan dira azken urteetan; «gustura aritzen gara eta sariak ondoko urtean berriz ere gogotsu aritzeko motibazioa ematen digute». Aurten ere, «ilusio handiz ari gara orga prestatzen».

Zigak egindako orga guziaz artean, Xabik 2007koa nabarmendu du; «lehenbiziko aldiz parte hartu nuen desfilean eta helikopteroaren gainean ateratzen nintzen». Amaiak, berriz, 2022koa; «trilladora batekin baserriko lanak irudikatu genituen, eta berezia izan zen gure etxeko historia eta bizipenak kontatu genituelako».

Bestaren aitzineko egunetako giroa azpimarratu dute; «jendea hurbiltzea, azken ukituak, merienda-afariak... Ziga bizirik dagoela erakusten du». Eta egunean ere, «Elizondorat orgarekin jaitea, gosaria, urduritasuna, desfilea... giro ederra sortzen dugu».

Baztango Mindeitze kantaldi ederra Berroetan

Thierry Biscaryk gidatutako taldeak ikuskizun zoragarria eman zuten herriko karrketan barna

MAIALEN IANTZI

Kantu Herrikoiak tailerlean ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izan zuten ekainaren 22an 16 kantarik: Ixabel Aleman, Elisa Almandoz, Mattoni Ballarena, Itziar Barberena, Mari Joxe Dagerre, Begoña Durruti, Karmentxu Elizegi, Lurdes Elizegi, Pello Etxeberria, Kiko Gartxitorena, Fermin Gartxitorena, Irene Iribarren, Rosa Karrika, Josune Kordoba, Jaione Kordoba eta Ines Muñoz. Musikari zein letra egileen laguntzarekin, kantaldi ederra eman zuten.

Euriak lasaitasun momenturik utzi ez bazuen ere, jende andana elkartu zen ikuskizunaz gozatzeko. Momentu hunkigarri ugari eskaini zituzten, tartean, frankistek fusilatu zuten Valeriano Intxauspe Puieneko herritarrari eskainitako bertsoak, urte luzez lixutegian lan egin zuten emakumei eskainitakoak, edota Ameriketara joan eta handik Elizaldeko Miguelek idatzitako bertsoak.

Ekitaldia akitzeko, partaideak elkartera joan ziren mahaiaren bueltan biltzeko.



Eguraldi kaskarra izanagatik jendetza bildu zen. UTZITAKOAK ETA ONDIKOL



Ikasle ohiak elizaren aitzinean. ALICIA DEL CASTILLO

Lekarozko ikasle ohiak ikastetxeko eliza botatzearen kontra

TTIPI-TTAPA

Lekarozko kaputxinoen ikastetxeko ikasle ohiak urteko batzarra egin zuten ekainaren 22an, eta batzarraren ondotik, elizara hurbildu ziren argazkia ateratzera.

Aurtengoan, aldarrikapen pankarta eta guzi atera zuten: *Eraisketari ez, gure historia da*,

Baztango historia 1888tik zioen. Izan ere, Nafarroako Gobernuak elizaren egoera kaxkarra dela, eta hau bota behar duela jakinarazi dio Baztango Udalari, herri jabetzakoa baita. Ikastetxeko azken oroigarria den eliza ez botatzea eskatu dute Lekarozko ikastetxeko ikasle ohiak.

Saharako 10 haur etorri dira eskualdera uda pasatzera

TTIPI-TTAPA

Saharaztanek, ANAS elkartearekin batera, haur sahararrak ekarri ditu eskualdera Oporrak Bakean ekimenarekin. Zehazki, 8-10 urte bitarteko sei mutiko eta lau neska izanen ditugu eskualdean irailaren 3ra arte. Horietatik sei Baztanen ditugu, eta gainerako lauak Malerrekan.

Elkartasun deialdia

Jakinarazi dutenez, «gaur gaurkoz Nafarroan 15 neska-mutil geratu dira harrera familiarik gabe. Bakoitzaren egoera desberdina da: batzuk, aurreko urteetan etorritakoak dira baina aurtengoan familiarik lortu ez dutenak; beste batzuk, iaz gurekin egoitzan izandakoak dira. Bakarren bat lehen aldiz etorri da mediku azterketak egitera osasun edo ezin-

tasun arrazoiengatik. Eta baditugu ere iaz hemen zirela ebakuntzak izan eta medikuberrikusketa egitera etorri direnak. Guztiek Orkoienen utzi diguten ikastetxe batean pasako dute uda».

Hori dela eta, harrera familia izatea ezinezkoa egin baina Oporrak Bakean programarekin lagundu nahi dutenek, diruz lagundu dezakete Asociación Navarra Amigos del Sahara kontuan donazio eginez: ES93 3008 0001 1107 0036 5729 edo Bizum eginez 626 502 495 (Carol). Donazioa egiterakoan izena, abizenak eta NAN zenbakia jarritz gero, hurrengo urteko errenta aitortpenen kenkaria egingen da. Zalantzak argitzeko harreman bideak: 626 50 24 95 edo asociacionanavarra@gmail.com.

Ondasun higiezin zergari buruz informatzeko

Zergari buruzko zalantzak argitzeko teknikari bat kontratatu du udalak eta udaletxera deituta hitzordua eska daiteke

TTIPI-TTAPA

Aurten, baztandarrek egiaz-tatu ahal izanen dutenez, ondasun higiezin gaineko zerga edo kontribuzioa aunitz aldatu da, Baztango balorazio txostena eguneratu delakoz. Balorazio txostenak dokumentu teknikoak dira, udalerrian edo udalaz gandi aplikatzen direnak, eta ondasun higiezin bakoitzari balio bat banaka esleitzeko metodo eta parametro teknikoak ezartzea dute helburu.

19 urte eguneratu gabe

Baztan da txostena eguneratu gabe urte aunitz zerematzan udal ugarietako bat; azken eguneratzea 2004koa da. Nafarroan hainbertze udalek ez zuten eguneratzen, ezen Nafarroako Gobernuak, 18/2017 Foru Legearen 10. artikuluan, toki ogasunen banaketa ezartzen zuenak, adierazi baitzuen, ponentzia eguneratu ezean, % 10 murriztuko zela udalerrri bakoitzak funts horretatik hartzen zuena. Horregatik, Baztango Udala balorazio txostena eguneratzera behartua sentitu da.

Jakina da herritar guztien gan duela eragina, eta ia 20 urtez berritu gabe egon ondok, ordaintzen diren zergak dezente aldatu dira. Kasu batzuetan, ordaindu beharrekoa nabarmen igo dela.

Balorazio irizpideetan, lurzorua balioa eta eraikuntzarena kontuan hartzen dira. Kontuan hartuta ia 20 urtez ez dela eguneratu, eta azken 20 urteetan eraikuntzaren kostua metro koadroko 240

eurotik 540ra pasa dela, ordaindu beharrekoa nahiko aldatu da.

Gainera, luraren balioa kalkulatzeko azken urteetan eremu jakin bakoitzean izandako salerosketak hartzen dira kontuan, eta hortaz, kasu gehienetan, azken 20 urteetan goiti egin du honek ere.

Balorazio txostena Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun sailak erregulatzen du, Lurralde Aberastasunaren eta Ondare Zergen Zerbitzuaren bidez, ez da udalaren eskumena.

Hori bai, balio berri horiek onartutakoan, Baztango Udalak, ordaindu beharreko kontribuzioa kalkulatzeko orduan karga tasak ezartzen ditu. Hori dela eta, udalak, bere esku dagoenean eraginez, karga tasak minimoan ezartzea erabaki du, aitzineko karga tasak jautsiz, zergadunek ordaindu beharrekoa ahalik eta guttien igotzeko helburuarekin.

Hiri-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioaren kasuan, karga tasa % 0,25ekoa izanen da (orain artekoa % 0,30ekoa izan da) eta landa lurreko ondasunen gaineko kontribuzioaren kasuan ere, karga-tasa % 0,25ekoa izanen da (orain artekoa % 0,80koa izan da). Bi kasuetan hori da aplikatu daitekeen minimoa.

KONTRIBUZIOAREN KARGA TASA MINIMOAN EZARRI DU UDALAK



MIKEL LIZARDI

Irudi ikusgarriak Arizkungo bestetan

Ederki joan dira Arizkungo bestak eta irudi politak utzi zituen San Joan bezperak. Antolatzaileen erranetan, «giro ederra izan dugu txopoa goratu dugunetik bota arte. Adin guzietako herritarrak hurbildu gara herriko plazara giroaz gozatzera, baita inguruko herrietako jendea ere. Aupa Arizkungo bestak!».

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEOIAK
HILERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK
HARRI ZIZELKATZEA

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444
marmolessoule@gmail.com |

LGTBIQ+ Harrotasunaren Eguna Erratzun

Ekainaren 28an jendetza bildu zen herriko plazan, Harro Baztan taldeak deitutako elkarretaratzean

TTIPI-TTAPA

Agerraldian adierazi zutenenez, «gure gorputz ez-bitar, trans, bollera, marika, bisexual eta disidenteez harro gaudela nahi dugu erran. Gure luma, gure bizitza eredu ez-heterozuzenak eta gure hazkuntza ereduak ederrak direla aldarrikatu nahi dugu ozen».

Hainbat aldarrikapen egin zituzten. «Gure borroka askapen borroka da, LGTBIQ+ pertsonen askapena exijitzen duena, eta gainerako desjabetuena ere bai, eta horregatik, palestinar herria buruan

dugula aterako gara karrikara aurten. Gure askapena aldarrikatzea Palestinaren askapena aldarrikatzea baita, ez dago harrotasunik genozidioan».

Horrez gain, «ikusi ditugu aste hauetan enpresak eta etxegabetzen duten banketxeak ortzadar banderaren koloreaz beren logoak apaintzen. Kapitula metatzea bertze helbururik ez duten enpresa eta erakunde horiei erran nahi diegu ez dela bateragarria etxegabetzeak agindu eta aldi berean itxuraz LGTBIQ+ es-



Aurten ere Erratzun egin dute elkarretaratzea. HARRO BAZTAN

kubideen alde agertzea, eta langileon esplotazioan ez dagoela harrotasunik».

Gobernu, erakunde eta administrazioei dagokienez, «LGTBIQ+ bizitza guziak duinak izan daitezten, ez da aski urtean behin gurekin gogortzea. Sakoneko aldaketak behar ditugu: Atzerriartasun Legea indargabetzea, etxebizitza eskubidea bermatzea, trans pertsonen eskubideak bermatzea...».

Azkenik, «guzion bizitzak bizigarri egiteko behar ditugun eraldaketak sakonak dira eta kapitalismoa eta eredu zisheterosexista, matxista eta arrazista dira osorik inpugnatu behar ditugunak. Etxebizitzarako, zaintzarako eta bizi baldintza duinak izateko aukerak emanen dituen gizartea behar dugu. Borrokan segituko dugu sexu eta genero disidente ororen gorputzak eta bizitzak duinak izan arte».

Baztango Udalak hainbat mozio onartu ditu azken osoko bilkuran

TTIPI-TTAPA

Alde batetik, LGTBIQ+ Harrotasunaren Egunaren harira, aho batez onartu zuten EH Bilduren mozioa. Bertan, konpromisoa hartu dute «herriko LGTBIQ+ pertsonen bizitzan gaineko diagnostikoak egin, eta honetan oinarritutako ekintza plan integralak abiatzeko. Prozesu hauek, herriko LGTBIQ+ mugimenduko kideekin batera egiteko konpromisoa hartzen dugu».

Elizondoko osasun etxea

Baztanen «aspalditik jasaten ari garen osasun sistema publikoaren gabeziak» direla eta, Nafarroako Gobernuari eskatu diote «kalitatezko osasun publikoa, duina eta unibertsala izateko eskubidea bermatzea» baztandarrendako. Aho batez onartu zuten mozioa.

Palestinari elkartasuna

Azkenik, aldeko zortzi botorekin eta bi abstentziorekin, «Israel Gazan egiten ari den genozidioa» salatu dute. Israeli «Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa betetzea, korridore humanitarioak irekitzea eta sua berehala eta modu iraunkorrean etetea» eskatu diote.

Horrez gain, «Palestina estatu gisa ofizialki aitortzeko ekimena» babestu dute, UNRWA Nazio Batuen Agentziaren «ezinbertzeko lana» aitortu dute eta Nafarroako Gobernuari zein Estatuko Gobernuari eskatu diote «Palestinarekin dauden lankidetzak proiektuekin segitzeko eta indartzeko». Europar Batasunari «bake justu eta iraunkorra lortzeko ahaleginak areagotzea» eskatu diote eta «herri palestinarren burujabetza eskubidea» berretsi dute.



MAITANE MARITORENA

Anizen ere harrotasunarekin bat

Ekainaren 28a LGTBIQ+ Harrotasunaren Eguna dela baliatuz, Anizko gaztetxoak frontoiko sarreraren bi aldeetara dauden zementuzko bankuak ortzadarraren kolorez pintatu dituzte. Mugimenduarekin bat egin eta polit-polita utzi dute frontoia.

Agintaldiaren balantzea egin dute Independentetek

Taldearen hautagaitzak «izandako inpaktua» eta agintaldiak sortutako kezka zein diren azaldu dute

TTIPI-TTAPA

Bi zinegotzi ditu gaur egun Baztango Independentetek taldeak udalean: Pello Sarratea eta Andoni Irigoien. Argitaratutako prentsa oharrean, kezka sortzen dieten puntu batzuk aipatu dituzte, tartean «udalak joan den agintaldian obra baimenak ematerakoan edo bertze eskaerei erantzuterakoan zuen atzerapen handia. Oraindik hobetzeko aunitz» gelditzen da eta «udalaren erantzuteko epeak laburtzen» saiatuko direla adierazi dute.

NPB (PAC)

Bertze gaietako bat «mendien banaketa eta Nekazaritza Politika Bateratuko kontuak» izan dira. «Hektarea banatzeko irizpideekin, banaketa sistema eskatzen urteak» zermatzatela dio taldeak, «joan den urtera arte, hektareen banaketa diferentea baitzen sektoreko profesionalendako, udalaren irizpidearen arabera». Horri lotuta, «emaitza aztertu» beharko da, «eta hobekuntzak egiteko prest egon behar da».

«Desadostasunak»

Udal gobernuaren kudeaketari dagokionez, «desadostasun batzuk» dituzte. Lur faltaren gibelean «udalaren utzikeria» salatu dute, «ez dute deus egin egoera lehengora bueltatzeko. Udalak aurten aurkeztu ditu lehenbiziko aldiz hektareak berreskuratzeko alegazioak Nafarroako Gobernuan».

Bertze kontu bat ere salatu dute: «udalak gutienez lur partikular bateko bide zati bat asfaltatu du. Nahiz eta metro guti izan, edo nahiz eta egiten ari diren lan bateko breia izan, baztandarrei begira errespetu falta iruditzen zaigu».

Hiri Jarduketarako Plan Berziak «kezka eta zalaparta eragin ditu, alderdi batzuk eztabaida ditzakegu edo ados egon gaitezke, baina hirigintzako egoera berdinetan izan den irakurketa bikoitza salatu nahi dugu; ez dira irizpide berearekin tratatu eraikin guztiak».

Akitzeko, «udalak Nafarroako Administrazio Auzitegiak ematen dituen ebazpen guztiak onartu beharko lituzke, gus-tatu edo ez».



UTZITAKOAK

Giro bikaina Erratzuko bestetan

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere erratzuarrek gogotsu parte hartu zuten ekintzetan. Antolatzaileek azpimarratu dute «bestak denen artean egiten direla» eta eskerrak eman dizkiete herritar eta elkarteei emandako laguntzagatik. «Esker mila parte hartu duzuenei eta aupa Erratzuko bestak!».

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
ESTADIOS Y OBRAS

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BERA

KATEA BIKE

Bizikleten salmenta eta konponketa.

📍 Kanttonberri, 1 | BERA
☎ T. 948 631 218
✉ joxemi@kateabike.com
🌐 www.kateabike.com

ORBEA PINARELLO MONTY
BERGAMONT BH MERIDA

URDAZUBI



Estalaktitz eta estalagmitaz betetako munduan murgiltzeko aukera izanen da.

Ikaburua lezearen eguna uztailaren 20an ospatuko dute

Familia guztiarendako jarduera ugari izanen dira ohiko egitaraua izanen duen egun berezian

ARANTXA ETA IRAIA

Urdazubiko Ikaburuko Lezearen Eguna ospatuko dute uztailaren 20an. Larunbatean, egun osoan hainbat ekitaldi izanen dira hamargarren edizio honetan, familia guztiarendako jarduera ugariekin. Hurbiltzen direnek estalagmitaz eta estalaktitzaz betetako mundu batean murgiltzeko aukera izanen dute, antzinako pertsonaia, kondaira eta kontrabando istorioekin.

Ohiko egitaraua izanen dute: txalaparta erakustaldia eginen dute lezearen sarreran. 11:00etatik 14:00etara, berriz,

historiaurreko bizitza-tekniken erakustaldia (sua egitea, jaurtiketak...) eta tailerra eginen du Iñaki Libano, Edestiaurre Arkeologia Elkarteko presidentea. 11:00etatik 18:00etara artisau azoka izanen da eta 17:00etan artisau produktuz betetako saski baten zozketa eginen dute. Txalaparta tailerra izanen da (15:00-18:00) eta magiaikuskizuna (16:00-18:00).

Pilotaren Unibertsoa 27an

Uztailaren 27an, berriz, Pilotaren Unibertsoa jaialdia eta ohiko tortilla lehiaketa eginen dituzte.



ARANTXA ETA IRAIA

San Joan gaua

Herri anitzetan bezala, San Joan gaua ospatu zen herrian ekainaren 23an. 21:00 aldera elkartuz, suaren inguruan salto egiteko aukera izan zuten bertaratutako guztiak. Gaua borobiltzeko, bakoitzak etxetik ekarritako mokadutxoekin eman zitzaion akabera urteko egun luzeenari.

Uda sasoia sumatzen da herriko mugimenduan

Herrian bisitariak agertzen dira udan eta herritarrak ere, eguraldi onaren aitzakiaz, gehiago ateratzen dira. Ostatu eta jatetxeek ere ordutegia zabaltzeko baliatzen dituzte udako egunak. Horren lekuko, Montxo ostatuan pintxopotea eginen da udako ortzegunetan.

Ttikien udalekuak hasiak eta hastear gaztetxoek

Uztaila ailegatzearekin batera, eskolako lanak bukatu eta udalekuak hasi dira. Ttikienek, 3-7 urte artekoak, uztailaren 8an eman zieten hasiera udalekuei. Gaztetxoek, aldiz, 8-16 urte artekoak, uztailaren 22an hasiko dira multijarduerara campusean.

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

IRUGAILU ELEKTRIKOA
KANTZATEKO GURDIA

DOMOTIKA

EGUZKI PANELAK

Zalain Ind., 42 Bera.
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com

Jatetxe eta ostatuak
Menuak, kartak, mahai-oihalak...
Hainbat material, erabat pertsonalizatuta

Montxo
JATETXEA • ERRETEGIA
Tradizioa, historia eta gastronomia
asadormontxo.com

Axular karrika, 12
31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)
+34 848 85 00 21
info@asadormontxo.com

BISITATU

URDAZUBI-DANTXARINEA PLANIK ONENA DA!

100 saltoki baino gehiago zure eskura

Moda, aisialdia, pintxoak, lurrin-dendak, likoreak, janari-dendak,
arropak, oroigarriak, bitxiak, jatetxeak...

BENTAK ZABALIK DAUDE URTE OSOAN ZEHAR ASTEKO 7 EGUNETAN



Eta honako hauek bisitatzeko aukera eskaintzen duen Nafarroako herri eder tipiko bat:
Lezeak, museoa, monasterioa, erakusketak, ibilbideak, errota...



www.urdax-dantxarinea.com

ZUGARRAMURDI



Herriko etxeko jatetxea irekia dago dagoeneko. MARIFA ETA KORO

Herriko etxeko jatetxea ekainaren 22an ireki dute

Raul Tarancón chef ezagunak kudeatzen du eta bazkariak gain, ortzirale eta larunbatetan afariak ere emanen dituzte

MARIFA ETA KORO

Ekainaren 22an edeki zen Herriko Etxeko ostatu eta jatetxea, Raul Tarancón chef ezagunak kudeatuta. *Muga gabe* emana diote izena jatetxeari. Ostatuaz eta bazkariak gain, ortzirale eta larunbatetan afariak ere emanen dituzte.

Bi menu klase dituzte, baita errazioak ere. Horretaz gain, karta berezia daukate, non espezialitea alkatxofak diren. Asteartetan hetsita egonen da. Lehenbiziko bi hilabetetan *Sorginak-Akelarre ilustratua* erakusketa ere ikusgai paratu dute.

Jazz mitologikoa lezean

Nafarroako Gobernu Kultura Zuzendaritza Nagusiak (Vianako Printzea erakundea) antolatutako Kultur programaren 29. edizioaren barnean, **uztailaren 27an**, larunbatean 12:00etan Bazkun Proiektuak taldeak *Eguzkilo*, *jazz mitologikoa* kontzertua joko du lezean. Honekin lotuta, oinez egiteko ibilbidea eta gaztandegi batean dastaketa izanen dute goizean. 09:00etan abiatuko dira Azketa frontoiko aparkalekutik. Izen-ematea: info@orbela-beintza.com (20 euro).



MARIFA ETA KORO

Errotarriak lezeko atean

Errotatik erretiratutako errotarriak toki politean eman dituzte: lezeko atean. Mahai bezala jarriak daude, eta lehen autoak ikusten ziren tokian, orain pausa leku goxoa da. Herriarren autoak bakarrik sartzen dira orain Beheitiko karrikara eta aise gusturago egiten da lezerainoko bidea.



MARIFA ETA KORO

San Joan sua lezean berriz ere

San Joan suak tokiz aldatzeko intentzioa zen, Elixondoko bidean eginez. Plazatik hurbil eta toki lasaia aldi berean. Baina eguraldi txarra suertatu zenez, ezin izan zen hala egin. Beharrik lezeak hor ditugula, eta han egin ziren. Herriko Etxeak eskaini zuen jatekoa, eta Akelarre elkarteak edaria.

IBARDIN 31780 Bera BEHOBIA 20305 Irun LUZAIDE 31660 Luzaide DANTXARINEA 31712 Urdax

Egunero irekia, astelehenetik igandera arte
*Abenduaren 25ª eta urtarrilaren 1ª izan ezik

Jantxidendak · Lurrin-dendak · Bitxi-dendak · Supermerkatuak · Tabako-dendak
Harategiak · Jatetxeak · Ostatuak · Sagardotegia

www.venta-peio.com Tel. +33 9 72 10 40 20 (Fr.) Tel. +34 948 625 130 (Es.)

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Jarrai gaitzazu!

Udako egitarau zabala gauzatzen ari dira lezeetan

Bisita bereziaren eta Korrontziren emanaldiaren ondotik, Saguzarren Nazioarteko Gaua ospatuko dute uztailaren 26an

GANEX

Uda hasiera mugitua izaten ari dira lezeetan. Ekainaren 23an, txondorrari ikatza atera ondotik, ekainaren 28an 'Ipuin&kondairak' bisita gidatu berezia izan zuten, Ttikariaren eta Maddi Zubeldiaren eskutik. Uztailaren 5ean, Korrontzi taldeak bere 20. Urteurreneko birako emanaldia eskaintzekoa zuen lezeen parkean.

Aitzinera begira, berriz, **uztailaren 26an**, ortziralean 19:30ean, Saguzarren nazioarteko gauaren kariatat, gaudi berezi bat antolatu dute saguzarrak ezagutzeko eta behatzeko lezeetan. Peio Cornu (CEN Nouvelle Aquitaine) da antolatzailea eta urrikeri izanen da, izena emanez (leku mugatuak).

Agorrilaren 9an, Lezeko gaina ateraldia egingen dute, 09:00etan, CPIE Euskal Itsasbazterra elkarteko Imanol Amestoyk gidaturik. Ekitaldi hau ere urrikeri izanen da, baina lekuak mugatuak direnez, aitzinetik izena eman behar da.



San Josepe eskolako emanaldia.

San Josepe eskolakoek besta egin dute ereiarioaren 29an

Urte guziz bezala aurten ere Sarako San Josepe eskolako burasok ospatu dute beren eguna ereiarioaren 29an. 110 bat haurrek egin dituzte ikusgarri batzuk hilabeteko azken larunbatean, aski ongi. Gero 200 bat lagun baziren afaltzen. Zahar etxeko sukaldari batek eginak zituen jatekoak eta haurren burasok zerbitzatu dituzte.

Aski ongi pasatu dute eguna, umore onean, eta denak eskertu dituzte haur horien sustengatzera etortzeagatik.



GANEX

Zentro sozialeko laguntzaileekin hurrupa

Zentro sozialak antolatu du borondate oneko jendearekin hurrupa bat herriko etxeko gelan, ereiarioaren 21ean. Jende horiek laguntza ekartzen diote hiru eskoletako haurrei, beraien etxeko lanen egiteko. Ez haurrei bakarrik, adineko jendea ere laguntzen dute edozein gauzentzat.



GANEX

Gerla handian hildakoen oroitzapena

Munduko azken gerlako oroitzapena egin zuten ereiarioaren 18an, Bittor Iturriaren hil harriaren aitzinean. 80 urte bete dira Bittorren armadak salto egin zuela Britainian. Battitte Laborde auzapeza, Baionako RPIMako soldaduak, beteranoak eta Sanjosepe eskola eta eskola publiko haurrak ere hor ziren.

Haira Aizpurua garaile eta Unax Aizpurua bigarren Berritxu Sarian

TTIPI-TTAPA SARA

Saratarrak izan dira nagusi Berritxu bertsolari gazteen sariketan. Ekainaren 27an jokatu zuten sariketa Haira Aizpurua Ibargaraik irabazi zuen eta bigarren postua Unax Aizpurua Ibargaraik lortu zuen. Zortzi bertsolari aritu ziren

kantuan, eta horietatik lau pasatu ziren bigarren fasera: Kelmene Abaitua, June Aiestaran, eta Haira Aizpurua eta Unax Aizpurua saratarrak.

Bigarren fasean puntuari erantzun, hitzari bertso bat eta gaiarekin bi bertso kantatu behar izan zituzten.



Parte-hartzaileak eta antolatzaileak Berriatuan. XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA



SPUC errugbi taldea R2ko txapeldun, ekainaren 23ko finala irabazi ondotik.

SPUC errugbi taldea Frantziako txapeldun laugarren aldiz

Ekainaren 23an Okzitaniako Cazères herrian jokaturako finalean 27-15 irabazi zieten Millaseko katalanei

JL BESSONART

1984an, 1992an eta 2014an egin zuten bezala, Frantziako laugarren titulua eskuratu SPUC errugbi taldeak Cazerès herrian, Millaseko katalanen kontra 27-15. Partida zaila izan da, aurkari gotorrak zituzten parean, aldiz, pisuago eta zaharragoak (bataz-beste 35 urte). Hori litzateke partida horren gakoa. Senpertarrak zaluago eta gazteago, nagusitasuna erakutsi dute bereziki partida bururatzean, bertzeen nekadura baliatuz. Herritarrek sekulako ibiladia egina zuten, sostengu gaitza ekarriz eta zer



Herriko bestetan ere ospatu dute.

erran jokolariak sartu direlarik mukuru betetako karrika nagusian. Txalo eta kantuen artean, Herriko-etxeko baloira igo dira eta banan-bana aurkeztuak publikoari.

Udako asterte goizetan merkatua izanen da Postako plazan hamabigarren aldiz

Uztaileko eta abuztuko astear-te goizetan (09:00-13:00) Postako plazan iragaiten den merkatuak bere hamabigarren edizioa beteko du. Astero programa berezia aurkezten dute. Orotara hogeit hamar artisauk presentatzen dituzte beraien obra edo ekoizpenak. Bertzeak

bertze, tawashi tailerrak, olategia, nola landu egurra, larrua edo harria, xehetasunak tokiko produktuei buruz (ardi gasna, euskal bixkotxa), eta animazioetan, musika, dantza eta ikusgarri. Xehetasun gehiagorako arbaso@orange.fr edo 06 81 69 20 46.



JL BESSONART

Argazki lehiaketa berezia

Lehiaketa berezia proposatua zen argazkilariei, margolari ospetsuen obra baten iruditik argazkia sortzeko. 21 pertsonak parte hartu dute lehiaketan. Lehen saria, Johannes Vermeeren *Neska perladuna*; bigarren René Maren *Gizonaren semea*, hirugarren Norman Rockwellen *Begi ubeldua*.



JL BESSONART

Madalena eguna Otsanzeko kaperan

Uztailaren 22an, Senpere Jakobia elkarteak antolatzen du oinezko ateraldia, erretore etxetik, Otsanz auzoan den Santa Madalena kaperaraino (6,6km). 16:00etan abiatu eta 18:00etan zeremonia. Ondotik zintzur bustitzea eskainia da René Clément fundazioaren ekimenez.



Astero artisau berezi batzuk argipean ezartzen dituzte. JL BESSONART



Inoiz baino gehiago bertako aukerak eta zerbitzuak, 0 KM-koak



IBAI ETXEBERRIA BURLADA
BURLADA JATETXEA - ARANTZA

«Jatetxea hartu badut ere betiko martxan segitzeko asmoa dugu»

«Betitik» aritu izan da Ibai Etxeberria Burlada jatetxean laguntzen, «baina 2018 inguruan hasi nintzen lanean. Normalean sukaldean aritzen naiz, baina denetik egitea tokatzen zait». Aurten jate- txearen ardura hartu du, amaren orde; «urte pila batez aritu izan da lanean eta lasaiago ibil dadin. Lanean segitzen du, baina paperen kontu guztia nire izenean dago orain». Hala ere, «betiko martxan segitzeko asmoa dugu: plater konbinatuak, bokatak,

menua, karta... eta sasoiaren arabeko platerak». Turisten mugimendua ere nabaritzen hasiak dira; «eguraldiak gehiegi lagundu ez badu ere, jendea etortzen hasi da eta udan jende aunitz ibiltzen da Arantzana».




IÑAKI ARIZTIA URRIZA
URDAZUBIKO UDALA

«Urte zailak izan ditugu herrian, arazo aunitzekin, baina indarberritu gara»

Aurtengo agintaldiaren balorazio positiboa egin du Urdazubiko alkateak: «urte zailak izan ditugu, arazo aunitzekin, baina indarberritu gara eta etorkizunera begira proiektu ugari ditugu». Alde batetik, «Alkerdiko lezeetako aurkikuntzak aztertzen ari gara eta hurrengo urteetan museo berri bat sortu nahiko genuke, aurkitutako guztia ezagutzera emateko». Baserriberri proiektua ere «polita iruditu zaigu eta laguntzen ari gara; baserri zahar bat berritu bitartean hargintza

eta zurgintza formakuntza ematen dute». Xaretako herriekin, berriz, harremanak sendotu nahi dituzte. «Pandemiaz geroztik galdu den Herri Aitada berreskuratu nahi dugu eta bertze aukerak bilatzen ari gara, lau herriak elkartzeko».



PATXI JAUREGI
SARAKO UDALA

«Saran elkarte ugari ditugu, herritarrak anitz mugitzen baitira»

Sarako kultura axuanta da Patxi Jauregi; «herriko elkar- teekin egiten dut lan, eta aunitz dira, herritarrak anitz mugitzen baitira». Horrez gain, «herrian euskaraz gehiago mintzatzeko lanean ari gara Plazara elkar- teekin». Kultur elkar- teekin ez ezik, kirol taldeekin ere aritzen da lanean; «pilotan, errugbian, eskubaloian eta lasterka aritzeko taldeak dira haundienak Saran». Izarra errugbi taldeko lehendakari- tako bat da Jauregi, eta kontent agertu da nesken taldearekin;

«taldea duela bi urte sortu zuten hainbat neskek. Joan den urtean hasi ziren euskal ligan parte hartzen eta aurten bigarren mailako txapel- dunak izan dira! Polita da neska talde batek hasi zuena bere fruituak ematen ikustea».




REYNALDO ARMENDARIZ DE JESUS
ORDOKI ZALDITEGIA - ARIZKUN

«Haurrek denbora guttitan primeran ulertzen dute zaldiaren maneia»

Haur eta gazteendako ekitazio klaseak eskaintzen dituzte Ordokin; «irailtik ekainera izaten da, baina udan segitzeko aukera dago. 50 ikasle inguru ditugu, 5 eta 18 urte bitartekoak». Haurrak «esponjak bezalakoak» direla dio, «denbora guttitan primeran ulertzen baitute zaldiaren maneia eta zein den zaldian ibiltzeko modurik seguruenak». Horrez gain, «persona tituludunek eta urteetako esperientzia dutenek zuzendutako jarduera orok segurtasun plus hori ematen

die gurasoei». Lanbide heziketako eskaintza ere dute: «Elizondoko ikastetxetik astean bi egunetan etortzen zaizkigu ikasleak, eta eskola pribatua daukagu, non zalditegiko kirol teknikarien heziketa zikloa eskaintzen dugun».





Txapeldunak eta txapeldunordeak, antolatzaile eta laguntzaileekin.

Udaberriko txapelketa irabazi du Utergak herrian

Ekainaren 28an Ezkurra pilotalekuan jokaturako finalean, Agirrezabalarekin, 35-23 irabazi die Zeberio II.ari eta Saldiasi

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Nafarroako hamaika herritik igaro ondotik, Doneztebeko Ezkurra pilotalekuak hartu zuen Udaberriko erremonte txapelketaren finala ekainaren 28an. Final handian, txapelketako partida guztiak nagusitasunez irabaziak zituzten Zeberio II.a eta Aimar Saldias oiztarra, Xanti Uterga doneztebarraren eta Agirrezabalaren kontra aritu ziren. Gorriak ziren faborito, baina finalean, Ezkurra pilotalekua bete zuten 500 zaleren aitzinean, Uterga eta Agirrezabala gailendu ziren (35-23), batez ere herriko au-

rrelariak emandako erakustaldiari esker. Hamalau tanto egin zituen Utergak. Finalaren hasieran pilota batzuk galdu zituen Zeberioi eta horrek bere konfiantzan eragin zuen. Saldiasek ere ez zuen bere egunik onena izan. Uterga, aldiz, jaun eta jabe izan zen. eta 14 tanto egin zituen. Inor ez omen da profeta bere herrian, baina Utergak ederki lortu zuen Donezteben.

Jaialdia hasteko jokatu zen partidari, Mikel Mikelarena oiztarrak eta Ionek 30-27 irabazi zieten Matxin III.ari eta David Mitxeo doneztebarrari.



Beka hartu duten kirolarietako batzuk, Indurainekin, Iruñeko Navarra Arenan.

Miguel Indurain Fundazioak 336.700 euro emanen dizkie 181 kirolariri

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuaren esku dagoen Miguel Indurain Fundazioak Nafarroako 181 kirolariri eman dizkie aurten bekak, 2023an lorturiko emaitzak kontuan hartuta. Denera, 336.700 euro banatu zituen ekainaren 25ean Iruñeko Navarra Arenan egin zen ekitaldian. Miguel Indurain bera izan zen ekitaldian, baita Rebeca Esnaola, Nafarroako Gobernu Kultura, Kirola eta Turismo kontseilaria ere.

Eskualdeko kirolariei dago-kienez, **programa olimpikoren** barrenean, Aresoko Adur Etxezarreta Rezola eskiatzaileak 8.764 euro hartuko ditu.

Euskal pilota programan, esku pilotan, Oian Canabal Etxarte eta Joseba Aldabe Etxeberria igantziarrek 750na euro hartuko dituzte eta paleta goman, David Albiasu Azka-

rraga narbartearrak 600 euro hartuko ditu.

Herri Kirol programan, Beti Gazte sokatira taldeko kideak izan dira beka gehien hartu dutenak. Honela, 350na euro jaso dituzte Irati Andueza Azpiroz, Maddalen Lopez Tapia eta Karmele Pikabea Baleztena tiralariek eta 450na Iñigo Altzugarai Legazkue, Ainhoa Etxegarai Elgorriaga, Irantzu Goienetxe Batiz, Ane Gurrutxaga Errandonea, Unai Gurrutxaga Errandonea, Ander Mitxelena Diaz, Karmelo Mitxelena Diaz, Jose Angel Mitxelena Mitxelena, Beñat Ordoki Telletxea, Julen Palenzuela Etxepare, Pascual Taberna Zubiria, Gerardo Telletxea Aizpuru, Oskar Telletxea Martiarena, Ainhoa Ubiria Sarasola, Maria Iantzi Irigoien eta Beñardo Iantzi Mitxelena tiralariek.

Baztango buruz buruko pilota txapelketako finalak jokatu dituzte

TTIPI-TTAPA BAZTAN

Baztango buruz buruko txapelketako finalak jokatu zituzten Elizondon ekainaren 8an, honako emaitza hauekin:

Txikiak: Ibai Etxenikek, 14 – Peio Anbustegik, 13.

Umeak: Oihan Etxenikek, 16 – Mikel Agerraldek, 1 (Agerral-

de 9-1 galtzen zela, ezin izan zuen partida akitu).

Kimuak: Julen Agestak, 18 – Egoi Otxandorenak, 16.

Haurrak: Oihan Brañak, 18 – Gaizka Zubietak, 13.

Aritzakunen egindako bazkari-bestarekin akitu du Txarutak denboraldia.



Buruz buruko txapelketako finalistak, Otxandorenarekin eta Atxarekin. UTZITAKOIA



Bortziritako eskuz binakako 23. txapelketan parte hartu duten hainbat pilotari, sari banaketaren ondotik. UTZITAKOA

Bortziritako eskuz binakako finalak jokatu dituzte Beran

Ekainaren 22an jokatu zituzten Eztegaran 23. edizioako azken partidak eta Jokin Altuna izan zen sari banaketan

TTIPI-TTAPA BORTZIRIAK

Bortziritako 23. eskuz binakako pilota txapelketako finalak jokatu zituzten ekainaren 22an Berako Eztegar pilotalekuan.

Tikiak: Eneko Telletxea eta Juel Igoa (Bortziriak), 16 – Aimar Baleztena eta Hegoi Otazo (Bortziriak), 18

Umeak B mailan: Oihan Andueza eta Ainara Hita (Arkupe), 15 – Urko Mendiburu (Erreka) eta Aiert Baleztena (Bortziriak), 18

Umeak A: Xiker Olagarai (Altxata) eta Gexan Lizardi (Bortziriak), 18 – Ekai Maritxalar (Arkupe) eta Mikel Ugalde (Bortziriak), 9

Kimuak B: Jokin Telletxea eta Aimar Almandoz (Bortziriak), 13 – Mikel Lizardi (Bortziriak) eta Ibai Maritxalar (Erreka), 18

Kimuak A: Hegoi Otxandorena (Txaruta) eta Iñaki Leiza (Bortziriak), 18 – Ekai Mikelperizena eta Eñaut Zubieta (Bortziriak), 16


Haurrak: Oinatz Eraunzeta-murgil eta Oihan Etxepare (Oiarpe), 18 – Nahien Anuntzibai (Oiarpe) eta Jon Lazkanotegi (Bortziriak), 7

Aitor Elexpuru Berako alkatetik eta Jokin Altuna pilotariak banatu zituzten sariak. Bortziriak pilota eskolak klubeko kamiseta bat eta Martikoko lote bat eman zizkion Altunari, eskerrak emanez.

Nerea Sorondo Euskal Herriko finalean, Ariztegi eta Sousa ez

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko emakumezkoen aizkolari txapelketako kanporaketa jokatu zuten ekainaren 23an Mungian (Bizkaia). Hamabi aizkolari aritu ziren lehian, urriaren 20an Elgoibarren jokatu den finalerako sei txartelen bila. Aizkolariak 36 ontzako, 45 ontzako eta 54 ontzako enbor bana moztu behar zuten eta pronostikoak betetz, Nerea Arruti, gaur egungo txapelduna, izan zen bizkorrena (8.19). Nerea Sorondo beratarra izan zen bigarren (9.11) eta beraiekin batera Oihana Fernandez de Barrena (10.23), Laiene Pikabea (10.40), Lucia Orbe (11.10) eta Irati Astondoa (13.05) izanen dira Elgoibarko finalean. Finaletik kanpo gelditu ziren, aldiz, Karmele Gisasola (13.33), Malen Barreneetxea (13.44), Maika Ariztegi iturendarra (14.44), Xanta Sousa lesakarra (16.11), Uxue Ansorregi (17.10) eta Ainize Perez (17.20).



MAIALEN ANDRES

Urriza eta Martirena txapeldun

Javier Urriza eta Ibai Martirena (Aburuza) dira Sagardoaren Txapelketako txapeldun berriak, ekainaren 24ko finalean Josetxo Ezkurra doneztebarrari eta Xabier Azpirozi (Alorrenea) 2-0 (15-13 bikoitza) irabazita. Ezkurra II.ak 18 tanto egin zituen, baina ez zen aski izan txapela lortzeko.



BETI GAZTE

V. Zubigaineko krosa Lesakan

V. Zubigaineko Krosa egin dute ekainaren 29an Lesakan, Beti Gazte antolatuta. Senior kategorian, Gwendal Larque Sanjurjo beratarra eta Beran bizi den Teresa Igoa Dozagarat lesakarra nagusitu dira. Beti Gazteko bazkide onenak Beñat Saralegi eta Loli Pardal izan dira.

AGENDA

UZTAILAK 11 - 25

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ARTXIBOKO ARGAZKIA

URDAZUBI Ikaburuko Lezearen X. Eguna

Txalaparta, historiaurreko tekniken erakustaldia eta tailerra, artisaу azoka eta magia ikuskizuna. Uztailaren 20an. Informazio osoa 52. orrialdean.

ERAKUSKETAK

ARIZKUN

Xabier Soubeleten pintura erakusketa

Sasternea etxean, irailera arte. Ortzegunetik igandera 11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara.

Santxotena Parke Museoko eskultura erakusketa

Bozaten, abuztuaren 31ra arte. Asteartetik larunbatera 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era eta igandeetan 11:00etatik 14:00etara.

IRURITA

Dorrea Jauregizarrea

Irailaren 15era arte. Asteazkenetik igandera 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

ELIZONDO

'Gorputzak' collage erakusketa

Aitzol de Carlosen eskutik. Liburutegian, uztailean eta abuztuan. Astelehenetik ortziralerara 08:30etik 14:30era.

Jose Luis Alzugarayen pintura erakusketa

Jaime Urrutia 3an, uztailaren 20tik aitzinera. Asteazkenetik ortziralerara 18:30etik 20:30era eta larunbat eta besta egunetan 12:00etatik 13:30era eta 18:30etik 20:30era.

AZOKAK

ELIZONDO

Baztango Artisauak eta Zaporeak

Plazan, uztailaren 13an eta 20an, 10:00etatik 14:00etara.

SENPERE

Artisauen merkatua

Postako plazan, uztailaren 16an eta 23an, 09:00etatik 13:00etara.

MUSIKA

DONAMARIA

'Pepito Yanci, beti bizi' kontzertua

Iñaki Dieguez eta Xabier Leturiarekin. Jauregian, uztailaren 19an, 20:00etan.

BERA

'Pause' emanaldia

Xabier Zeberiorekin. Telletxeako lorategian, uztailaren 20an, 20:00etan.

LEGASA

Kantu zaharren bazkaria

Angel Mariezkurrena, Aitor Ibarra 'Jalisko' eta Beñat Mitxelenarekin. Leokadia ermitan, uztailaren 27an.

JARDUNALDIAK

GOIZUETA

Karmen bezperako festa

Uztailaren 15ean.

LEITZA

Atekabeltz gaztetxearen 19. urteurren festa

Uztailaren 20an.

URDAZUBI

Ikaburuko Lezearen Eguna

Uztailaren 20an.

Pilotaren Unibertsoa jaialdia

Uztailaren 27an.

SENPERE

Madalena eguna

Otsanzeko kaperan, uztailaren 22an.

SARA

Saguzarrak ezagutzeko gaualdia

Peio Cornurekin. Lezean, uztailaren 26an, 19:30ean.

BERTZELAKOAK

BERA

Muga Gabe zirku festibala

Tailerrak eta ikuskizuna. Herriko Etxeko plazan, uztailaren 12an, arratsaldean.

Herri kirol saioa

Nafarroako Herriz Herriko Txapelketa. Toki Onako patioan, uztailaren 20an, 18:00etan.

DONEZTEBE

'17. logela' ihes gela

Uztailaren 19tik 21era.

LESAKA

Emakumeen futbol txapelketa herrikoia

Mastegin, uztailaren 20an, 11:30etik aitzinera.

GOIZUETA ETA ARANO

Liburutegi ibiltaria

Uztailaren 26an. 11:30etik 12:30era Goizuetan eta 13:00etatik 13:30era Aranon.

«Euskal Herria Zuzenean festibalean jotzea ohore bat izan da»

XABI ARRATIBEL MONFORT ARANON BIZI DEN MUSIKARIA



Plazatik itsasoa ikusten den Nafarroako herri bakarra da Arano. Hala, mendi kaskotik, sorterrira begira egoteko aukera du Xabi Arratibel donostiarrak. Duela ia zazpi urte hartu zuen kostatik mendirako bidea, «ez zen nolana hiko aldaketa izan, baina hemengo lasaitasuna, jendearen gertutasuna eta natura hain gertu izatea altxor bat da».

Aranora bizitzera joandakoan zituen aurreiritziek eta errealtateak ez zutela bat egiten ikusi zuen: «gehiengo base-ritarra izango zela espero nuen, jende hotza eta itxia espero nuen eta horren kontrakoa aurkitu nuen. Hasieratik jendea oso irekia izan da eta erraztasunak eman dizkit. Gainera, bizilagunak zure atera barazkiz betetako saskiekin noizbehinka etortzen badira, ba zer esango dut!». Herritaren artean

dagoen aniztasuna ere nabarmendu du: «herri txiki honetan diseinatzaileak, argazkilariak, tatuatzaileak, musikariak, bertolariak eta hainbat artista bizi dira. Bizitzako esperientziak elkarbanatzeko aukera paregabea ematen du herriak».

Aranok zer duen soberan galdetuta, «egun euritsu eta lainotuak» aipatu ditu. Badaki, ordea, horiek ere beharrezkoak direla hain gustuko duen paisaia izateko: «horiei esker mendi eta zelai politez goza dezakegu. Aukera gutxi izaten diren arren, egun eguzkitsuetan errekarra jaistea ere gusta-

«MUSIKARIK GABE EZERK EZ ZUEN ZENTZURIK IZANGO»

tzen zaigu». Faltan berriz, adin beretsuko jendea: «nire adineko kuadrilla txiki bat izatea gustatuko litzaidake, gure estiloko planak hemen bertan egin ahal izateko».

Musikari lotuta

Plan horietan ez da musikarik faltako: «musika nire pasioetako bat da, nahiz eta lanbide izatera ez den iritsi. Nire bizitzan musikari lotutako momentu berezi pila bat egon dira eta klipseak dioen bezala, musikarik gabe ezerk ez zuen zentzurik izango». Piano baten bueltan izan zuen musikarekin lehenbiziko harremana, baina gazte garaian lagun baten gitarra probatu zuenean piztu zitzaion musikarako harra: «nire lagun min batek gitarra klasikoarekin jotzeko akorde batzuk erakutsi zizkidan eta horrek dena aldatu zuen. Hurrengo urtebetetzean gitarra elektriko bat erosi eta harekin hasi nintzen nire kabuz ikasten, denbora gutxira lehenengo musika taldeak sortzen hasi ginen eta geroztik milaka gauza gertatu dira». Gaur egun, «gitarra, pianoa, baxua, bateria, ukelelea, banjoa, saz turkiarra eta ia sokadun instrumentu guztiekin aritzen naiz saltsan. Hala ere, gitarra da gehien disfrutatzen dudana eta eroso sentiarazten nauen instrumentua».

Musikaria da afizioz, baina ez ofizioz. Musikaren munduan bidea egitea kosta egiten dela aitortu du: «gaur egun, gainera, proposamen eta estilo ugari lantzen dituzten hainbat talde daudenez, oso zaila da besteengandik nabarmentzea eta batez ere, musikatik bizitzea lortzea». Horri lotuta, hainbat

«ARANORA ETORTZEA EZ ZEN NOLANAHIKO ALDAKETA IZAN»

kolektibok eta elkartek ematen duten laguntza aipatu nahi izan du: «Euskal Herrian musikari eta musika talde txikiei atek irekitzen dizkiete, lehenengo pausoak eman eta kontzertu txikiak antolatzen has daitezten».

Hori horiei tiraka, akaso, lortu du aurten Xabik Euskal Herria Zuzenean festibalean jotzeko gonbidapena: «Bananas du izena nire azkenengo musika proiektuak eta aurten Euskal Herria Zuzenean festibalean parte hartzeko deitu digute». Pozik eta ilusioz hartu zuten antolatzaileek emandako aukera: «guretzako festibalik eta elkargunerik hoberenetarikoa bat delako, bai musika eta taldeen kalitateagatik baita beraiek bultzatzen dituzten balioengatik ere. Beraien proiektuarekin bat egiten dugu». Oholtzan, «gozatu ederra» hartu dute eta festibalean jotzea «ohore bat» izan dela dio. Ez da datozen hilabeteetan Bananas taldea zuzenean ikusteko aukera bakarra izango: «taldearekin pare bat kontzertu gehiago lotuta ditugu irailera arte».

Udako planei buruz galdetuta, «oporretan kanpora bidaiatxo bat egiteko asmoa ere badut eta ahal den heinean deskantsatzeko». Hori bai, aurretik Aranoko festetan gozatzeko tartea hartuta: «normalean gonbidatuak izaten ditugu etxean, bai familia aldetik baita kuadrillakoak ere, giroaz gozatzeko, bazkari eta jolasetan parte hartzeko eta bingo musikatuan berriz irabazten saiatzeko». Ekitaldi guztien artean, produktu feria du gustukoena, «herriko sagardo eta etxeko janariak dastatzeko, patata tortilla txapelketako pintxoak probatzeko eta giro polit eta herrikoiaz gozatzeko aukera izaten dela».

Bere hitzak irakurrita, badi-rudi kostako kresala, mendietako ihintzagatik aldatu eta ziztangila bihurtzen ari dela dagoeneko.

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

ORONOZ. Etxea salgai. 4 logela, 3 bainugela, bi egongela eta sukaldea. Oso merkea. ☎677 07 24 37.

ELIZONDO. Baztanberrin apartamentua salgai, garajea eta trastelekuarekin. ☎658 99 83 40.

KONPARTITZEKO

BERA. Pisua konpartitzeko norbaiten bila, ahal bada emakumezkoa. ☎669 33 61 88.

MALERREKA. Pisu bila, errentan hartzeko edo erosteko prest. Errioxakoa, 25 urte, psikologoa eta lanean ari dena. Jatorra eta lasaia. Euskara ikasten ari dena. ☎601 08 09 93.

ERRENTAN EMATEKO



BENICARLO. Apartamentua errentan emateko. 2 logelakoa, terraza, igerrilekua. Hondartzatik hurbil. Deitu edo idatzi Whatsapez. ☎680 88 77 56.

GARAJEAK-LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

BERA. Kanttonberi karrikan, 115 m²ko lokal argitsua errentan emateko, bulegorako, mediku kontsultarako eta abarrerako proposa. ☎620 93 92 54.

LANA

ESKARIAK

Neska arduratsua udan haurrak zaintzeko prest, Bortziriak inguruan bada hobe. Idatzi Whatsapez. ☎636 18 15 46.

45 urteko neska baztandarra, udan Bortziriak aldean haurrak zaintzeko prest, esperientzia duena. Edozein duda idatzi Whatsapp bidez mesedez. ☎636 18 15 46.

Eskualdeko gazte bat kamioi gidari lanetan aritzeko prest. C eta C+E gidatzeko baimenak, CAPa eta ta-kografoko txartelaren jabe. ☎608 89 99 48.

ESKAINTZAK

SUNBILLA. Landetxe bat garbitzeko pertsona bat behar dute. Orduka. ☎699 14 66 85.

Mendi Mendian bentan sukaldari baten bila. Interesatuak bidali curri-

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

culuma: mendimendian@hotmail.com. Edo deitu. ☎948 63 07 23.

LESKA. Astean behin garbiketaren lanetan aritzeko pertsona baten bila. ☎613 18 80 25.

BERA. Pagola harategian egun osoko lanaldian aritzeko langilea behar dute. ☎948 63 00 54 / 722 84 12 85.

ELIZONDO. Diseinatzaile/saltzaile bila. Almaco Baztan zeramika eta komunaren dendan lanean aritzeko pertsona bat behar dute. Barne diseinatzaile ikasketak (interiorista) baditu hobeki. ☎661 30 61 23 / 948 58 01 04.

ANIMALIAK


OPARITZEKO

BAZTAN. Zakurkume bat oparitzeko, irakasteko momentuan. Dudak Wha-

tsapp bidez. ☎948 58 11 36 / 636 18 15 46.



BERA. Katutxoak oparitzeko. ☎680 88 77 56.



Katuak oparitzeko. ☎626 33 53 98.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,45 €
- 1.koa 5,33 €
- 2.koa 5,21 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,56 €
- 1.koa 5,42 €
- 2.koa 5,31 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiikiak

- (15 egun inguruokoa).

Aretze mestizoak

- Urruxak 150,00 €
- Idixkoak 210,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 50,00 €
- Idixkoak 90,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,49/5,59 €
- Zaldi-behorrak: 2,52/2,69 €

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,60/8,70 €
- 8-10 kilokoak: 7,30/8,00 €

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 75 €

Zerri gizona 1,844 €

Zerramak 0,850€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua ekainaren 21etik 28ra bitarteko prezioak)

ZERBITZUAK

ZURGIN-LANAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea - ARANTZA
647 810 144 - 626 093 181

MOTORRAK

SALGAI



Autoa salgai. Egoera onean. ☎690 05 09 03.



Suzuki Jimny salgai. 1.5ddis, 85cv, 2009.urtekoa. 79.000 km. 12.500 euro. ☎666 32 00 53.



Ford Focus bat salgai. Gasolina. 125 CV. 2018koa. 32.104 km. ☎653 70 79 09.

DENETARIK

GALDU-AURKITUAK

Urrezko kate bat galdu dute Donezteben (Sumaren eta Beni arrandegiaren artean egurrezko zubia pasatuz), gurutze forma du eta atzean *Feli-Martin* paratzen du. Norbaitek aurkitzen badu deitu faborez, balore sentimental haundikoa. ☎699 71 49 95.



744 484 361

ttipi-ttapa



GANIX
Tailorra

948 63 06 69

Zalain Pol., 11 . BERA
EUROMASTER zegoen lekuan



SANTESTEBAN TAILERRAK



RENAULT CLIO TCE - 75 CV
2019 URTEKOA
69.300 KM | 10.950 €

www.talleressantesteban.com

DONEZTEBE - T. 948 450 282
info@talleressantesteban.com

SALEROSKETAK



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.



Haurrentzako osagarriak salgai. ☎677 65 33 84.

Mendaur Motor
Leitzako bidea • DONEZTEBE
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

Kotxe berriak


SUZUKI VITARA
3 ATE | JLX 1.6 | 16 BALBULA



NISSAN TERRANO II
3 ATE | 2.7 TD INTERCOOLER | 125 CV.



www.mendaurmotor.com



Egurrezko ohatze artikulatua. Koltxoia viscoelastic. Neurriak: zabalera 105 cm, luzera 180 cm eta altuera 50 cm. la erabili gabea. Salneurria: 1.200 euro. Whatsappez. ☎669 21 48 56.



Ezpelarekin egindako tresnak salgai, sukaldean erabiltzeko aski onak. Kuxetak, sardexkak eta espatulak saltzeko. Idatzi Whatsappez. ☎627 25 88 17.

SORTZEAK

- **Unai Laborde Lavignette**, Sarakoa, ekainaren 11n.
- **Idoia Douchet Otondo**, Sarakoa, ekainaren 18an.

SORTZEAK ETA EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 63 54 58 telefonora deitu edo info@ttipi.eus edo 744 48 43 61era idatzi beharko du.

URTEBETETZEAK



Olaia uztaillaren 14an 8 urte beteko ditu. Ongi pasa zure eguna eta merienda goxoa prestatu!!! Zorionak familia guziaren partez eta bereziki Xubanen partetik.



Sunbillako **Haize Baleztena Agirre** 2 urte bete ditu uztaillaren 1ean. Zorionak Sunbilla, Eratsun, Donostia eta Arantzako familiaren partez.



Illargi Perez Mutuberriak 6 urte bete ditu ekainaren 30ean. Zorionak gure etxeko printzesari! Segi barruan duzun alaitasuna eta bizipoza banatzen! Maite zaitugu!



Doneztebeko **Elaia Telletxea Juaneneak** 6 urte beteko ditu uztaillaren 16an. Zorionak etxeko printzesari eta 6 muxu potolo familia osoaren partetik!



Aunitz urtez, **Xuban!** Uztaillaren 29an urteak beteko dituzu! Bederatzi muxu haundi familia guziaren partez! Ederki ospatuko dugu zure eguna!



KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com

WEB orriak



Landetxeak Komertzioak Gremioak...

Ordenagailu, tablet eta mugikorretara egokitua
Kontaktu formularioa
Lokalizazio-mapa
Testu eta argazki galeria
Hizkuntzak aukeran

ZERBITZUAK

URTEURRENA

Maite AROZARENA BENGOTXEA

1958-07-18/2014-07-27
X. URTEURRENA

*Aurtengoa hamargarrena,
Ezin ahantziz zure hutsunea,
zure solasak, zure irrifarrea,
Betikoz gure ondoan ama Maite(a).*



Bere aldeko mezak Urdazubin uztaillaren 27an eta Amaiurren 28an izanen dira.

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

Bea BARANDIAIN SUBIZAR

Ornoz-Mugairin,
2024ko ekainaren 26an, 57 urte zituela



*Zure indarra eredugarri
Zure irribarra atzenduezina
Gurekin nahi zaitugu orain
Eta beti.*

BARAPARK TALDEKO LAGUNAK

OROIGARRIA

Rosarito Makazaga Aizpuru

Pasai Donibanen 2024ko ekainaren 17an hil zen



*“Ez agurrik, ez adiorik,
gero arte baizik.
Beti gogoan izango zaitugu”*

Apezetxea Aizpuru, Zugarramurdi Aizpuru, Aizpuru Begiristain,
Aizpuru Santesteban

GOIZUETA

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

Gure lurra,
gure jendea,
gure sustraiak

TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

HILBERRIAK

- **Josephe Dainziart**, Sarakoa, ekainaren 7an, 96 urte zituela.
- **M^a Adoracion Berrueta Pikabea**, Etxalarkoa Baionan hil zen, ekainaren 9an.
- **Rosarito Makazaga Aizpuru**, Goizuetakoa, ekainaren 17an, 76 urte zituela.
- **M^a Isabel Larralde Iribarren**, Berakoa, ekainaren 20an, 84 urte zituela.
- **Santiago Etxenike Arrijuria**, Iruritakoa, ekainaren 20an, 79 urte zituela.
- **M^a Jesus Maisterrena Inda**, Amaiurkoa, ekainaren 21ean, 84 urte zituela.
- **Dolores Ganboa Arretxea**, Sunbillakoa, ekainaren 22an, 90 urte zituela.
- **Basilia Etxebeste Etxeguren**, Arantzakoa, ekainaren 23an, 90 urte zituela.
- **Maria Pilar Elizetxe Etxebertz**, Erratzukoa, ekainaren 24an, 90 urte zituela.
- **Pili Iparrea Etxenike**, Gartzaingoa, ekainaren 25ean, 58 urte zituela.
- **Beatriz Barandian Subizar**, Ornoz-Mugairikoa, ekainaren 26an, 57 urte zituela.
- **Bias Sarratea Illarregi**, Doneztebekoa, ekainaren 26an, 70 urte zituela.
- **Concepcion Elgorriaga Korta**, Berakoa, ekainaren 28an, 90 urte zituela.
- **Joxe Mari Salaberria Zubiri**, Goizuetakoa, ekainaren 28an, 86 urte zituela.
- **Juan Bertiz Etxegarai**, Etxalarkoa, ekainaren 29an, 95 urte zituela.

Baztan Bidasoa | Ehorzketak |

BAZTAN ELIZONDO · Santiago Kalea, 79
MALERREKA · DONEZTEBE
Mourgues etorbidea, 24

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere.

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

IRACHE
tanatorioak


Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara


24 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**
www.tanatoriosirache.es

HITZ GEZIDUNAK

	Ezbitu, ematu	Balea mota, zeroi	Arraunlariak	Alabastro	Tontorra
	◆ Izen-abizena	Noranzko	Hainbat zatitan	Azkena eta lehena	Laboré hautsa
	Liluragarri				
	Hilda				
Onarpena	Sare modukoa			Ohorezko hitz emate	
Gipuzkoako udalerria	Asteko 5. egun			Ez emea	
			Lastoaren errautsa		
			Nafarroako udalerria		
Eskumotza					Arnasa hartu ezinik hilak
Abere belarri handi		Grabatu			Bokai mehea
		Burdinola			Arreta, ardura
3.1416	Poesia mota		Kasik	Kanpo, landa	
Geltokia	Jan-edanez gutzitiz bete		Momentu	Maiz, sarri	
				Behiaern arbaso	
				Einstenioa	
Moita, kala		Galdera sorta			
Karrika		Lehenengo letra			
		Bihi, garau		Suteak	

◆ Gure lurraldeko abeslaria, zugarramurdiarra

GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Duela gutxi, aspaldi ez dela.
- [2] Arantzako auzoa.
- [3] Greziako hiriburua.
- [4] Zazpi eguneko denbora bitartea.
- [5] Sarrera nahiz irteera.
- [6] Egoskin mota.
- [7] Antze, erti.
- [8] Jalgi, irten.
- [9] Eibarko santutegia.
- [10] Bizkaiko udalerria, Mungialdean.
- [11] Zintzurra.

ERANTZUNAK



PLAZAN BAZAN

ITZALA



Zein da patinatzailearen itzal zuzena?

ZORIONAK!
MADDI BARANDARAIN IRAOLA

857. aldizkariko irabazlea zara!



Marrazkiak: Garbifne Ubeda (Alurri)

Plazan bazan egiteak
BADU SARIA!

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin,
Ttipi-Ttapako Whatsapera: (0034) 744 48 43 61
zure izen-abizenak jarrita.
Ondoan duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!

Laguntzailea:

ibaizabal



ALDEA DAGO

Bi zamaltzain hauek ez dira berdin-berdinak. Aurki itzazu bien artean dauden aldeak. Bederatzi dira.



ZOMORROAK LABIRINTOAN

Hiru xomorrotxo hauek bat labirintotik aterako da, beste bat etxera iritsiko da eta hirugarrena harrapatuta geldituko da labirintoan. Ea identifikatzen dituzun.



INTERNETEN ERE BAI!

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.es/kioskoa/soluzioak

<http://plazanbazan.es/>



Ttipi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61
info@ttipi.eu | erran.eu
www.ttipi.eu/ttipi-txartela

857 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

- Donostiako Aquariuma - Bi sarrera**
Maritxi Goñi Arrastio | LEITZA
- Bua Txabal - Kamiseta bat**
Angel Garcia Etxandi | ELIZONDO
- Ez Kexa - Kasketa bat**
Juan Carlos Campo Rey | ITUREN
- Irrisarri Land - Sarrera bat**
Angel Gago Agesta | SUNBILLA
- Okille tailerra - Eguzkilo bat**
Isidro Leiza Etxeberria | BERA
- Wow Park - Sarrera bat**
M^a Soledad Etxeberria Etxarte | IGANTZI
- Zugarramurdiko lezeak - Sarrera bat**
Iñaki Oiaregi Vara | ATARRABIA
- Giltxaurdi - Bi sarrera**
Juan Irigoien Etxegoien | ARRAIOZ
- Baga-Biga - Hiru CD**
Elena Iribarren Larralde | URDAZUBI

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

Bi sarrera

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com

Kamiseta bat

HARA BI
www.harabi.eu

Poltza bat eta botila bat

BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com

Sarrera bat

IZAR PARK
www.galaxypark.eu

Sarrera bat

LA RHUNE
www.rhune.com

Sarrera bat

MENDUKILO
www.mendukilo.com

Bi sarrera

ANIKOTE
@AnikoteLeitza

Sarrera bikoitza igerilekurako

Sartu

ttipi.eu/ttipi-txartela
webgunean eta ikusi
abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGITALETXEAK



Aprobetxa itzazu Ttipi Txartelak eskaintzen dizkizun abantailak, Ttipi Txartela onartzen duten denda eta zerbitzuetan erosiz.

LIBURUAK

Bi liburu



txalaparta

www.txalaparta.eu



Deskontuak eta zozketa: Ttipi-Ttapa aldizkari guztietan Ttipi Txartelaren informazioa argitaratzen da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun deskontuak oroitaraziz!